

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
 BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

<b>INFORMAZIO MEMORIA</b>		<b>AURKIBIDEA</b>
---------------------------	--	-------------------

<b>1. HIRIGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA.....</b>	<b>3</b>
<b>1.1. INGURUNE FISIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA .....</b>	<b>3</b>
<b>1.2. GIZARTE ETA HIRIGINTZAKO INFORMAZIOA.....</b>	<b>3</b>
1.2.1. BIZTANLERIA .....	3
1.2.2. ETXEBIZITZA.....	7
1.2.3. LAN-JARDUERA ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	7
1.2.4. LURZORUAREN OKUPAZIOA.....	10
1.2.5. ZERBITZUAK ETA POTENTZIALKI KUTSATUTAKO LURZORUAK .....	10
<b>1.3. UDALERRIAN ERAGINA DUEN UDALAZ GAINEKO PLANGINTZA .....</b>	<b>10</b>
1.3.1. EAE-KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK (LAG).....	11
1.3.2. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA.....	19
1.3.3. EAEKO IBAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA .....	25
1.3.4. EAE-KO NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA.....	32
<b>1.4. INDARREAN DEN PLANGINTZAREN ANALISI ETA DIAGNOSTIKOA .....</b>	<b>40</b>
1.4.1. PLANGINTZAREN BILKAERA .....	40
1.4.2. ARAU SUBSIDIARIOEN INDARRALDIAN ERAIKITAKOA .....	41
1.4.3. ANALISIA .....	42
1.4.4. DIAGNOSTIKOA .....	47
<b>2. PLANA ZEHAZTEKO PROZESUA .....</b>	<b>49</b>
<b>3. AZTERTUTAKO ALTERNATIBAK ETA HAUTAPEN PROZESUA .....</b>	<b>51</b>
<b>3.1. HERRIGUNEA ANTOLATZEKO ALTERNATIBAK .....</b>	<b>51</b>
3.1.1. 01 AUKERA. PLAZA AURREA .....	51
3.1.2. 02 AUKERA. SANTIAGO AURREA.....	53
3.1.3. 03 AUKERA. LURGAIN.....	55
3.1.4. 04 AUKERA. ELIZEGI.....	56
3.1.5. 05 AUKERA. PLAZA ATZEA .....	59
3.1.6. 06 AUKERA. SANTIAGO BIDEA .....	61
3.1.7. 07 AUKERA. PLAZA ATZEA 2B .....	63
<b>3.2. AUKEREN ARTEKO ERKATZEA, BATERAGARRITASUNA ETA OSAGARRITASUNA.....</b>	<b>65</b>
<b>3.3. INGURUNE FISIKOAREN ARRAZOIZKO ALTERNATIBEN DESKRIBAPENA.....</b>	<b>65</b>
3.3.1. 0 ALTERNATIBA. 1996KO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUEN EGUNGO EGOERA ETA ONDORENGO ALDAKETAK .....	65
3.3.2. 1. ALTERNATIBA. KONTSERBAZIO ETA BIRSORKUNTZA INTENTSIBOA.....	66
3.3.3. 2. ALTERNATIBA. HAPOREN PROPOSAMENA. ANTOLAMENDUKO INGURUMEN-UNITATEAK.....	67
<b>4. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUA.....</b>	<b>69</b>
<b>4.1. PROZESUAREN LEHEN FASEA .....</b>	<b>69</b>
4.1.1. LANDA-LURREN ORDENAZIOA .....	69
4.1.2. HERRI-EKIPAMENDUAK .....	71
4.1.3. AZPIEGITURAK .....	72
4.1.4. ETXEBIZITZAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA.....	73
4.1.5. JARDUERA EKONOMIKOEN LURZORUAREN ANTOLAMENDUA .....	76
4.1.6. MUGIKORTASUNA.....	76
4.1.7. ONDAREA.....	78
1.1. ESPAZIO PUBLIKOAK .....	79
4.1.8. ONDORIOAK .....	79
<b>4.2. PROZESUAREN BIGARREN FASEA .....</b>	<b>82</b>
4.2.1. GALDETEGIA .....	83
4.2.2. GALDETEGIAREN EMAITZAK.....	87
4.2.3. HERRITARREKIN EGINDAKO BILERAK.....	89
4.2.4. PROZESU PARTEHARTZAILEAREN EMAITZAK.....	94
<b>5. H.A.P.O.-REN HASIERAKO ONESPENA .....</b>	<b>97</b>
<b>5.1. ONARPENA.....</b>	<b>97</b>
<b>5.2. JENDEAURREKO ERAKUSTALDIAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.....</b>	<b>97</b>
5.2.1. ALEGAZIOAK ETA ERANTZUNAK .....	98
Jendaurrean egon zen bitartean, alegazio hauek aurkeztu ziren: .....	98
5.2.2. ONDORIOAK .....	98

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

<b>5.3.</b>	<b>INSTITUZIOEN SEKTOREKO TXOSTENAK .....</b>	<b>99</b>
5.3.1.	TXOSTENAK ETA ERANTZUNAK .....	99
5.3.2.	ONDORIOAK .....	99

## INFORMAZIO MEMORIA

### 1. HIRIGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

#### 1.1. INGURUNE FISIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ingurune fisikoaren egungo egoerari buruzko informazioa, HAPO honen K Dokumentua den Ingurumeneko Azterketa Estrategikoko 5 kapituluaren, Ingurumenaren Egungo Egoeraren Alderdi Garrantzitsuak izenburua duen horretan jasota dago, bere osagarri topografiko, geologiko eta geomorfologiko, hidrologiko eta hidrogeologiko, edafologiko eta agrolologiko, klimatologiko, biogeografiko, landareriako eta faunistikoei dagokienez.

Horien gain, babestutako espazio naturalak, igarobie naturalak eta maila altuagoko planifikazioak definitutako intereseko espazioak aztertzen dira.

Kapituluaren 5.5 atalean ingurumenaren arrisku eta arazoak aztertzen dira: airearen kalitatea, kalitate akustikoa, zoruen kutsadura, akuiferoen kutsadura, arazo geoteknikoak, eremu higagarrien higadura-arriskua, arrisku sismikoa, sute arriskua eta ehizak eragindako arriskua.

Kapituluaren 5.6 atalean paisaia aztertzen da, interesa duten zonak deskribatuz. 5.7 atalean berriz, ondare arkeologiko eta arkitektonikoa deskribatzen da. 5.8 atalean ingurumeneko eta paisaiako unitate homogeneoak deskribatzen dira.

Azkenik 5.9 atalean, aurreko datu guzti horien azterketatik eratorriko emaitzak azaltzen dira.

#### 1.2. GIZARTE ETA HIRIGINTZAKO INFORMAZIOA

##### 1.2.1. BIZTANLERIA

###### 1.2.1.1. BIZTANLE-DENTSITATEA (EUSTAT-ERROLDA).

Alkizak hurbileko udalerriekin eta probintziarekin alderatuta, daukan biztanleria-dentsitatea nabarmen txikiagoa da, taula honetan ikus daitekeenez:

	2011	2019
EAE	301,3 hab/km <sup>2</sup>	302,4 hab/km <sup>2</sup>
Gipuzkoa	356,1 hab/km <sup>2</sup>	362,5 hab/km <sup>2</sup>
Tolosaldea	143,2 hab/km <sup>2</sup>	148,3 hab/km <sup>2</sup>
Anoeta	444,5 hab/km <sup>2</sup>	496,6 hab/km <sup>2</sup>
Asteasu	89,2 hab/km <sup>2</sup>	91,9 hab/km <sup>2</sup>
Larraul	42,2 hab/km <sup>2</sup>	44,2 hab/km <sup>2</sup>
Henialde	84,7 hab/km <sup>2</sup>	71,6 hab/km <sup>2</sup>
<b>Alkiza</b>	<b>30,1 hab/km<sup>2</sup></b>	<b>31,3 hab/km<sup>2</sup></b>

###### 1.2.1.2. BIZTANLERIAREN BANAKETA


Gipuzkoako erroldako estatistiken datuen arabera, 2020/01/01 datarekin udalerriko biztanleriaria 371 pertsona daude erroldatuta, eta honela banatzen dira:

- Herrigunen 192 pertsona daude erroldatuta, hau da, % 52.

- Landa lurrean 179 pertsona daude erroldatuta, hau da, % 48.

### 1.2.1.3. BIZTANLERIAREN BILAKAERA

ALKIZAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981-2016




Eustateko grafikoan ikusten denez, 1981 eta 1996 urteen artean biztanleriaren gutxitze motel baina etengabea gertatzen da, azken urte honetan biztanleriaren gutxiengo historikoa ematen delarik. Urte horretatik aurrera biztanleria handitzen hasten da eta 2001 eta 2011 urteen arteko aldian, 10 urtetan, hazkunde handia ematen da (%39). 2011-tik egunera arte, hazkunde tasa jaisten da (%4) eta biztanleen kopurua egonkortzen da.


### 1.2.1.4. BIZTANLERIAREN BANAKETA ADINA, SEXUA ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA

Atal honetan Erroldako datuekin Alkizako biztanleriaren ezaugarri soziologiko garrantzitsuenak zehazten dira.

#### BIZTANLERIA SEXUA ETA JAIOTZE DATAREN ARABERA




**BIZTANLERIA ADINA ETA JATORRIAREN ARABERA**




Grafiko honetan ikusten da populazioaren hazkuntza gertatu zenean, 2001 urtetik aurrera, herrian jaiotza kopuru handia egon dela, hazkuntza begetatiboak garrantzia izan du Alkizako biztanleen kopuruan.

**BIZTANLERIA ADINA ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA**




1.2.1.5. FAMILIEN OSAERA



Eustateko grafiko honek bat egiten du ikusi dugun aurrekoekin. Altua da seme-alabak dituzten familien kopurua, familia mota guztietan.

Gehiago dira ere amarekin dauden neba-arrebak aitarekin daudenak baino.

1.2.1.6. BIZTANLE ADINGABEAK



Eustaten grafiko honetan ikusten denez 20 urte azpikoen kopurua bikoiztu da 20 urtetan.

Egun, Erroldako datuen arabera 107 lagun daude 20 urte baino gutxiago dutenak eta 94 lagun 16 urte baino gutxiago dutenak. Biztanleria osoarekiko portzentaia %29 eta %25 dira hurrenez hurren. Portzentaia altua da Gipuzkoako eta AEA-ko portzentaiekin alderatuta, hauetan 18 urte baino gutxiago duten lagunenak %18 eta %17 inguru dira hurrenez hurren.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Datu hauek aztertuta, hurrengo urtetan etxebizitzaren eskaera handitzea eragingo duela ondorioztatu daiteke. Egun 20 eta 35 urte bitarteko 40 bat pertsona daude Alkizan, etxebizitzako erosle izan daitezkeenak. Hurrengo 8 urtetan adin tarte horretara 66 lagun pasako dira eta egun daudenetatik 27 aterako dira. Erosle potentzialak 39 lagunetan haziko da.

#### 1.2.1.7. EUSKARAREN EZAGUTZA

Biztanleen artean euskara ama-hizkuntza dutenak 255 dira, Eustaten 2021-eko datuen arabera. Gaztelera ama hizkuntza dutenak 52 dira. Biak batera dituztenak 32. Beste ama-hizkuntza dutenak 9.

Euskaldunen portzentaia %89,53 da. Euskadiko Toki-erakundeetan Hizkuntza Ofizialen Erabilera Instituzionala eta Administratiboa Normalizatzeari buruzko 179/2019 dekretuak xedatutakoaren arabera, "arnasgunea" da.

D ereduan matrikulatutako umeen kopurua (2022) 51 da. Alkizan beste hezkuntza eredurik ez dago.

#### 1.2.2. ETXEBIZITZA

Erroldako datuen arabera 2020ko urtarrilaren 1-ean 3an, 178 etxebizitza zeuden guztira; horietatik 85 kalean eta 93 landa lurrian.

Etxebizitza horietatik 45 zeuden hutsik, 19 kalean eta 26 landa lurrian. Etxebizitza hutsen portzentaia %25,3 da. Kaleko etxebizitzetarako %22,4, eta landa lurreko etxebizitzetarako %28,0.

Biztanle bakarreko etxebizitzak:	30
2 biztanleko etxebizitzak:	31
3 biztanleko etxebizitzak:	21
4 biztanleko etxebizitzak:	36
5 biztanleko etxebizitzak:	12
6 biztanleko etxebizitzak:	2

Batez besteko okupazioa: 2,8 biz./etxe.

2010-etik egun arte 162 etxebizitzetatik 178-ra pasa gara, 16 etxebizitza berri egin dira. 2016-ean bazeuden 178 etxebizitza horiek, azken 4 urtetan ez da etxebizitza berririk egin.

INE-k ematen dituen estatistiketan ikus daitekeenez, saldu zen azken etxebizitza berria 2008 urtean izan zen. 2007 eta 2008 urteetan guztira 21 etxebizitza berri saldu ziren, ondoren ez da gehiago saldu. Berriak ez ziren 6 etxebizitza saldu ziren 2009 eta 2017 urteen artean, azken hiru urtetan ez da etxebizitzarik saldu.

Lehen ikusi dugunez etxebizitzako eskaera egon behar du herrian, adinako estatistikak kontutan hartzen baditugu, horren gain, 45 etxebizitza hutsik daude, eta hala ere, etxebizitzaren merkatua ez da mugitzen. Edo dagoen eskaintza ez da egokia, edo eskaera potentzialak ez du erosteko ahalmenik edo beste herrietara desbideratu da.

2014 urtean egin zen inkestan, etxebizitza berriak egitea komeni al zen galderari 11 bizilagunek soilik erantzun zioten, beste galderari baino azkoz jende gutxiago. Etxebizitza berriak erosteko interesa zutenak izan zirela pentsa daiteke, baina hori ez da ondoren merkatuan islatu, erabilitako 3 etxebizitza soilik saldu dira.

#### 1.2.3. LAN-JARDUERA ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK

##### 1.2.3.1. JARDUERAK

Eustaten datuen arabera, 2019 - 2022 urtetan establezimendu hauek daude herrian:

01. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza:	11 - 9
02. Industria, energia eta saneamendua:	1 - 2
03. Eraikuntza:	4 - 3

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

04. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza:	10 - 4
05. Informazioa eta komunikazioak:	0 - 1
06. Finantza jarduerak eta aseguruak:	1 - 1
07. Jarduerak higiezinekin:	0 - 0
08. Jarduera profesional eta laguntzaileak:	3 - 3
09. Herri Administrazioa, Hezkuntza eta Osasuna:	4 - 4
10. Arteetako eta bestelako jarduerak:	2 - 2
GUZTIRA:	36 - 29

Enpresen lege-nortasuna eta enplegatuen kopurua 2022:

Pertsona fisikoa:	18
1-2 langile	16
3-5 langile	2
Elkarte anonimoa	0
Elkarte mugatua:	6
1-2 langile	4
3-5 langile	2
Bestelako elkarteak:	1
1-2 langile	1
3-5 langile	0
Beste forma juridikoak:	4
2 langile edo gutxiago	2
3-5 langile	0
6-9 langile	2

Enplegatzaile nagusia administrazioa da, Udala eta Eusko Jaurlaritza, udaletxean eta eskolan hurrenez hurren.

Hala ere, herriko enpresa guztiak mikroenpresak dira, 9 langile baino gutxiago dituztenak.

#### 1.2.3.2. LANA

Eustaten datuen arabera hau da lanaren egoera 2019 urtean:

Jarduera tesa: emakumeak %50,9, gizonak 49,2, guztira %50.

2021 urtean, azken datuekin, hau da bilkaera:

Jarduera tesa: emakumeak %51,9, gizonak 59,4, guztira %55,7.

Hobera egin du egoerak, eta gizonen eta emakumeen arteko diferentzia txikiagoa da.

Lanaren ikuspegi orokorra hurrengo koadroak ematen digu:

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
 BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

		2019		2021	
<b>BIZTANLERIA AKTIBOA</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>173</b>	<b>%47</b>	<b>158</b>	<b>%45</b>
	GIZONAK	87	%23	82	%24
	EMAKUMEAK	86	%23	76	%22
<b>BIZTANLERIA LANDUNA</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>158</b>	<b>%91</b>	<b>147</b>	<b>%42</b>
	GIZONAK	83	%48	79	%23
	EMAKUMEAK	75	%43	68	%20
<b>BIZTANLERIA LANGABEA</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>15</b>	<b>%9</b>	<b>11</b>	<b>%3</b>
	GIZONAK	4	%2	3	%1
	EMAKUMEAK	11	%6	8	%2
<b>LEHEN ENPLEGUA BILATZEN</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>0</b>	<b>%0</b>	<b>0</b>	<b>%0</b>
	GIZONAK	0	%0	0	%0
	EMAKUMEAK	0	%0	0	%0
<b>LAN EGIN DU</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>15</b>	<b>%9</b>	<b>11</b>	<b>%3</b>
	GIZONAK	4	%2	3	%1
	EMAKUMEAK	11	%6	8	%2
<b>BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>173</b>	<b>%47</b>	<b>190</b>	<b>%55</b>
	GIZONAK	90	%24	90	%26
	EMAKUMEAK	83	%22	100	%29

Langabezia biztanleria aktiboaren %9-tik %3-ra jaitsi da bi urtetan. Deigarria da langabeziaren diferentzia gizonen eta emakumen artean. Hala ere hain kopuru txikiekin portzentaia oso aldakorrak dira.

Beste datu deigarria: ez egotea inor bere lehen enplegua bilatzen ari denik. Gazte guztiek lana al dute? Eustateko 2019-ko eta 2021-eko datuek hala baieztatzen dute, 16-24 urte arteko adina duten bizilagunen artean ez dago langaberik eta 25-34 urte arteko adina dutenen artean 1 bakarra, emakumea dena. Ez da bi urtetan egoera hori aldatu.

Ez dugu daturik enplegu horren kalitateari buruz, txarra balitz horrek etxebizitzaren merkatuaren geldotasuna azalduko luke, zati batean behintzat; ona balitz berriz, hutsik dauden etxebizitzaren kalitate eskasari egotzi beharko litzaioke geldotasun hori, alokairuen egoerak eduki dezakeen eragina baztertu gabe. 2016ko datuek adierazten digutenez, alokairuan dauden etxebizitzaren portzentaia etxebizitza guztien %6,1 besterik ez da, beraz alokairuak ezin du eragin berezirik izan salmenten geldotzean.

### 1.2.3.3. HERRITARREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

Eustaten azken datuetan norbanakoen errentaren bilakaera:

<b>ERRENTA OSOA</b>		2011	2013	2014	2015	2016	2017	2020
	<b>GUZTIRA</b>	<b>19.064</b>	<b>20.020</b>	<b>20.277</b>	<b>21.694</b>	<b>21.566</b>	<b>21.764</b>	<b>23.107</b>
	GIZONAK	23.128	23.533	24.486	27.104	26.533	26.874	24.512
	EMAKUMEAK	14.026	15.946	15.133	15.697	16.020	15.911	14.538

Ikusten denez gizonen eta emakumeen errenten arteko arrakala oso handia da: 2017-an %41.

Familien errenta honela banatzen da errentaren hartzaile nagusiaren sexuaren arabera:

<b>ERRENTA OSOA</b>		2011	2013	2014	2015	2016	2017	2020
	<b>GUZTIRA</b>	<b>42.317</b>	<b>44.143</b>	<b>43.528</b>	<b>44.305</b>	<b>44.318</b>	<b>42.715</b>	<b>45.269</b>
	GIZONAK	41.716	44.647	44.415	48.588	50.010	47.743	
	EMAKUMEAK	43.811	42.971	41.617	36.043	33.339	33.644	

Hemen ere arrakala: 2017 eta 2020-an %59.

Hau kezkarriagoa da, 2.2 atalean ikusi dugunez, guraso bakarreko familien kasuan seme-alabak amarekin gertzen direlako gehienbat.

#### **1.2.4. LURZORUAREN OKUPAZIOA**

Udalerriak 1.187 hektarea ditu.

Eustaten 2014ko datuek lurzorua honako banaketa hau ematen digute:

Egoitzako lurzorua 4 Ha dira, udalerriko azaleraren %0,33.

Jarduera ekonomikoen lurzorua 0 Ha dira, udalerriko azaleraren %0.

Sistema orokorren lurzorua 4 Ha dira, azaleraren %0,33

Urbanizagarria ez den zoruak 1.179 Ha hartzen ditu, udalerriko azaleraren %99.

Egoitzako lurzorua herrigunean, eliza eta udaletxearen inguruan, biltzen da, ez da herrian beste etxebizitzagunerik.

Zoru urbanizaezinaren zati handi bat Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremuak hartzen du. 521 Ha, udalerriko azalera guztiaren %43-a.

Alkizan dagoen ZBE-ko zatia horren azaleraren %24-a da. Guztira ZBE-ak 2.160 Ha ditu.

#### **1.2.5. ZERBITZUAK ETA POTENZIALKI KUTSATUTAKO LURZORUAK**

Hondakinen kudeaketari dagokionez Alkiza Tolosaldeako mankomunitatearen barruan dago. Herrian sortzen den hondakinen kopurua txikia da.

Hondakin organikoak konpostagailuen bidez kudeatzen dira, ez da organikoak hartzeko edukiontzirik.

Herrigunearen ur beltzak biltzeko eta garbitzeko araztegi biologikoa dauka, zizareen bidez ura tratatzen duena. Etxe isolatuetako askok hobi septikoa daukate, hala ere, ezer ez dutenak badaude ere.

2017ko abenduaren 21eko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioa eguneratzen duena da arlo honetan daukagun azken erreferentzia.

Alkizan lursail bakarra dago lurzoruen inbentarioan, udalerriko iparraldeko muturrean, Larraul eta Asteasuko mugak bat egiten duten puntuan. Inbentarioan lursaileko kodea 20006-00001 da. Baldosen fabrika izandako eraikina da markatuta dagoena, 893,84 m<sup>2</sup>-ko azalera dauka.

### **1.3. UDALERRIAN ERAGINA DUEN UDALAZ GAINEKO PLANGINTZA**

Alkizako udalerriko hirigintzako plangintzan lurralde antolamenduaren dokumentuek eduki dezaketen eragina azaltzen da kapitulu honetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) 2019.

Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala, 2020.

Kantauriko isurialdeko Lurralde Antolaketa Planoa, 1998.

Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko LAP-ren aldaketa, 2013.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021 zikloko Plan Hidrologikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala, 2014.

Energia Eolikaren Lurralde Plan Sektoriala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, 2004.

Hezeguneen Lurralde Arloko Plana.

Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegituretako Lurralde Plan Sektoriala.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala

### **1.3.1. EAE-KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK (LAG)**

Gidalerroen Aplikatzeko Arauek bi motakoak dira: lotesleak eta gomendiokoak. Lotesleak direnak Aplikatzeko Arauen II kapituluaren xedatzen dira, eta gomendioak III kapituluaren. Hala ere, idazkian eranskinak daude.

I. eranskinean, artikuluz artikulua eta puntuz puntu, II kapituluaren xedapenak zeintzuk dira lotesleak eta zeintzuk dira gomendioak adierazten da. II. eranskinean berriz, ingurune fisikoaren antolamendu loteslea definitzen da. IV. Eranskinean etxebizitzaren kuantifikaziorako sistema ezartzen da, hau ere bete beharrekoa.

V. Eranskinean estatuko administrazioen menpeko azpiegituren arloko xedapenak jasotzen dira, bete beharrekoak ere.

#### **1.3.1.1. INGURUNE FISIKOA**

Landa-lurrari, ingurune fisikoari LAG-en izndapenaren arabera, ezartzen zaion xedapen garrantzitsua Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matriza da. Horretan uztartzen eta sistematizatzen dira ingurune fisikoaren antolamendu kategoriak, hauetan gauza daitezkeen jarduerak, hauen ezaugarriak, bateragarritasunak eta ezartze baldintzak, eta lurraldearen ezaugarriek eragindako baldintzatzaile gainjarriek horien gain ezarritako murriztapenak

Antolamendu kategoriak erabilerak eta baldintzatzaile gainjarrien kategorizazioa loteslea da, matriza berriz, hirigintza-antolamenduak doitu dezake.

Hau da matriza LAG-etan agertzen den bezala:



Erabilera onargarrien artean:

2<sup>1</sup>: Nekazaritza eta basozaintzako LPSean garatzen dena.

2\*: Nekazaritza eta basozaintzako LPSa Trantsiziozko Landa Paisaian eta debekatua Balio Estrategiko Handian.

2<sup>2</sup>: Ibai eta Erreken LPSaren eta Plan Hidrologikoen bitartez garatua.

2<sup>3</sup>: Babes-figura aplikagarriak dauzkate (NBAP, Urdaibaiko EKZP, KBE)...edo Hezeguneen LPS edo Kostaldeko LPS.

#### 1.3.1.2. AZPIEGITURA BERDEA

Hauek sartzen dira azpiegitura berdean:

- a) Beren ingurune-balioengatik babestutako espazioak.
- b) LAG-ek aipatutako korridore ekologikoen sarea.
- c) Ibilguak eta gainazaleko uren babeseke zona gisa kategorizatutako haien zonak, RAMSAR hezeguneak eta Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak inbentariatutako urmasa guztiak.
- d) LAG-ek aipatutako interes naturala duten beste espazio multifuntzional batzuk.

Hirigintza-plangintzan egin beharrekoak:

a) Eremu Funtzionaleko azpiegitura berdearekin eta EAEkoarekin konektatuta dagoen tokiko azpiegitura berdea jasotzea.

b) Tokiko azpiegitura berde horren barruan kontuan hartzea espazio libreen eta berdeguneen sistema orokor gisa kalifikatutako lurzorua, eta, aukeran, espazio libreen eta berdeguneen tokiko sistema gisa kalifikatutakoa, zeinen gainean aplikatuko diren honako printzipio hauek:

1) Berdeguneen espazioen jarraitutasuna.

2) Ekosistemen balio ekologikoa eta zerbitzuen indartzea babestea; horretarako, elementu ekologikoz hornitzea, halakoek bizi kalitatea hobetu ahal baitute eta natura pertsonengana hurbildu ahal baitute. Klima-aldaketari arreta berezia eskainiz, eraikitako hiriko espazio libreak iragazkor bihurtzea sustatuko da.

c) Ingurune-balioengatik babestutako gune bakoitza mugatzea gune horretan eragina duten korridore ekologikoetatik eta beste espazio multifuntzional batzuetatik, eta horretarako araubide egokia ezartzea.

#### 1.3.1.3. HIRI-AZKUNDEAREN ARLOKO GIDALERROAK

Hirigintza-plangintzarako gidalerroak.

a) Hiri Hazkundeko Perimetroaren barruan, garapen berriak alde aurretik dagoen hiri-bilbean txertatzea, hiri-bilbe hori osatuta, lurzoruaren erabilerrari dagokionez intentsitate txikikoak diren eremuak dentsifikatuta, eta okupaziorik ez duten edo erabilera berriak izan ditzaketen espazioak berrituta.

b) Garraio sistemetara heltzeko puntuen inguruan kokatutako dentsifikazioko, berrikuntzako edo hazkundeko jardueri lehenetsua ematea.

c) Hiri hazkundearen perimetroaren arabera aztertzea balio handiko nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzoru urbanizaezin gisa sailka daitezkeen hiriko etxebizitza dinamiken edo jarduera ekonomikoen poderioz zaharkituta geratu diren lurzoru urbanizagarriak.

#### 1.3.1.4. JARDUERA EKONOMIKOAK

Hiria erabileren arabera segmenta dadin sailkatuko da, baita bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kanpoaldeko poligonoetara kanpora daitezzen ere.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak sustatuko da, lurzoru horietan zenbait solairutako eraikinak ahalbidetuta, betiere inguruak dituen balio eta ezaugarri natural, ingurune-arloko, topografiko eta paisajistikoekin bat etorriz, baita garatu beharreko jardueren izaerarekin ere.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
**BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA**  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

Merkataritzari dagokionez, herrietako hiri-bizimodua sustatuko da, hiriko merkataritza lehenetsita aldiriko merkataritzaren aurrean. Merkataritza-ekipamendu handien gehieneko azalera mugatuko da interes orokorreko ezinbesteko arrazoien arabera, hala nola lurraldearen antolamendua eta hirigintza.

1.3.1.5. ETXEBIZITZA

Hirigintza-plangintzako etxebizitzen kuantifikazioa ezartzeko prozedura LAG-en Aplikatzeko Arauen IV. eranskinean («Bizitegi-kuantifikazioa») dago jasota. Hirigintza-plangintzak berrikustean aplikatu behar da, eta eranskin horretan jasota dauden balio zehatzak argibide modura hartuko dira kontuan. Hirigintza-plangintzaren etxebizitzen kuantifikazioa kalkulatzeko, planaren behin betiko dokumentua idazteko irizpide-hartzearen erabakiaren data baino lehenagoko datuen estatistika ofizialean oinarritu behar da.

<b>BIZITEGI-LURZORU ESKAINTZA REN KUANTIFIKAZIOAREN KALKULUA, LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN ARABERA</b> (2020-208ko epea)		<b>1</b>
<b>CÁLCULO DE LA CUANTIFICACIÓN DE LA OFERTA DE SUELO RESIDENCIAL,</b> <b>DE ACUERDO CON LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL (período 2020-2028)</b>		
Udalerría / Municipio:	<b>ALKIZA</b>	Eguna / Fecha:
Eremu Funtzionala / Área Funcional:	<b>TOLOSALDEA</b>	<b>2020/10</b>
<b>LURRALDE PLAN PARTZIALEAN EZARRITAKO LURRALDE EREDUAREN ONDORIOAK</b> IMPLICACIONES DEL MODELO TERRITORIAL DEFINIDO EN EL PLAN TERRITORIAL PARCIAL (PTP)		
<b>CMT.</b>	LPP-ean ezarritako Lurralde Eremuaren ondorioak / Implicaciones del Modelo Territorial definido en el PTP	<b>CMT = 0</b>
<b>PLANEAMENDU-DENBORALDIAN, BIZITEGI-BEHARRAK / NECESIDADES RESIDENCIALES del PERÍODO de PLANEAMIENTO</b>		
<b>A. Etxebizitza nagusien beharrak / Necesidad de viviendas principales</b>		
<b>A1.</b> Biztanleriaren aldaketaren ondorioz / Por variación de la población		
A1 = (P28-P20) / TMF28    HAZKUNTZA 2011-2020 = %4    P 20 = 371    P 28 = 386    TMF 20 = 2,8    TMF 28 = 2,5		<b>A1 = 6</b>
<b>A2.</b> Familiaren Batezbesteko Tamainaren (TMF) aldaketaren ondorioz / Por variación del Tamaño Medio Familiar (TMF)		
A2 = P20 x (1/TMF28-1/TMF20)		<b>A2 = 16</b>
<b>B. Bigarren mailako etxebizitzaren eskaera / Demanda de vivienda secundaria</b>		
<b>B1.</b> Etxebizitza nagusien (VP) aldaketaren ondorioz / Por variación de las viviendas principales (VP)		
B1 = (A1+A2) x (CVS28-1)    CVS 28 = 1,25		<b>B1 = 6</b>
<b>B2.</b> Bigarren mailako etxebizitza-Koefizientearen (CVS) aldaketaren ondorioz / Por variación del Coeficiente de Vivienda Secundaria (CVS)		
B2 = (P20/TMF20) x (CVS28-CVS20)		<b>B2 = 0</b>
<b>C. Jenderik gabeko etxebizitzaren aurreikuspena / Previsión de viviendas deshabitadas</b>		
<b>C1.</b> Jenderik gabeko etxebizitzaren (VD) aldaketaren ondorioz / Por variación de las Viviendas Deshabitadas (VD)		
C1 = (A1+A2+B1+B2) x (CVD Norm.-1)    CVD = 1,08		<b>C1 = 2</b>
<b>ETXEBIZITZA-BEHARRAK GUZTIRA / NECESIDADES RESIDENCIALES TOTALES</b>		
NR = CMT+A1+A2+B1+B2+C1		<b>NR = 30</b>
<b>PLANEAMENDUAN ESKAINI DAITEKEEN BIZITEGI-AHALMEN MAXIMOA / CAPACIDAD RESIDENCIAL MÁXIMA A OFERTAR POR EL PLANEAMIENTO</b>		
<b>NRe.</b> Bizitegi-Behar harrotuak = Bizitegi-beharrak x harrotze-koefizientea / Necesidades residenciales esponjadas		
NRe = NR x ESP    ESP = 3		<b>NRe = 90</b>
<b>C2.</b> Errekuperatu daitezkeen jenderik gabeko etxebizitzak / Viviendas deshabitadas a recuperar		
C2 = Bertan dauden etxebizitzaren kopuru osoaren %2 / C2 = 2% del Parque residencial total existente		<b>C2 = 5</b>
<b>CR.</b> Mugatzaileak aplikatu gabe, bizitegi-ahalmen maximoa / Capacidad residencial máxima sin considerar limitaciones:		
CR = (NR x ESP) - C2		<b>CR = 85</b>
<b>MUGATZAILE GEHIGARRIAK / LIMITACIONES ADICIONALES</b>		
Onartutako bizitegi-ahalmen maximoa (bertan dauden etxebizitza-kopuruaren %50a) Capacidad residencial máxima admisible (50% de las viviendas existentes)		<b>Cmáx = 89</b>
Beti aurrekusi daitezkeen bizitegi-ahalmen minimoa (bertan dauden etxe. kopuruaren %10a) Capacidad mínima que siempre se puede prever (10% de las viviendas existentes)		<b>Cmin = 18</b>
Planeamenduan eskaini daitezkeen bizitegi-ahalmen maximoa (etxebizitza-kopurua): Capacidad residencial máxima a prever en el planeamiento (nº de viviendas):		<b>CR = 85</b>

#### 1.3.1.6. URA

Hirigintzako plangintzan honako hauek aurreikusi behar dira:

- a) Ur-eskariak behar bezala gogobetetzeko behar adinako baliabideak, eta, aldi berean, harguneetako emari ekologikoen erregimenekiko bateragarritasuna.
- b) lotutako euri-masaren ingurumen-helburuak betetzeko nahikoa eta egokia den saneamendu- eta -arazketa azpiegitura.
- c) Plangintza orokorrean, lurzoru urbanizaezinaren ibai, erreka, aintzira eta urmaeletako ertzetan «Gainazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina» kategoria ezartzea, LAG-en Aplikazio Arauen ingurune fisikoari buruzko artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta.
- d) Hirigintza-garapen berriak dituzten ibai-ertzetan urak har ditzakeen eremuaren okupazioa saihestea, eta, ezinezkoa balitz, itzulerako 100 urteko uraldia mugatzen duen lerrotik abiatuta kokatuko dira.
- e) Hiri-lurzoruetako ibaiertzei garrantzi handia ematea hiripaisaia itxuratzean eta ingurune naturala hirien barruan integratzean, eta eraikuntza-erretiro oparoak sartzea, ibaiaren tamainaren arabera.
- f) Lur urbanizagarriko sektoreetako ertzetan, ibilguaren aldamenean lur askeak eskuragarri izateko aukera gehiago izateak espazio-antolamendu zabalagoa ahalbidetzen duela aintzat hartzea. Beraz, eraikuntzaren eta urbanizazioaren erretiro jakin batzuk planteatu behar dira, berdeguneak sartzea eta lehendik dagoen ur-bazterreko landaredia babesteko moduan.
- g) Hiri-berroneratzeko eta -birmoldaketarako eragiketetan, estaldurak eta bideratze gogorrak dituzten ibai-eremuak leheneratzea.
- h) Hirigintza-plangintza egiterakoan, uholdeak prebenitzeko problematika hidraulikoaren soluzioa kultura-intereseko zubi edo elementuak zaintzearekin bateragarri egitea.
- i) Ur-ibilguak aldatzeko debekua errespetatzea, baldin eta ibaiadarraren artoa 1 km<sup>2</sup>-tik gorakoa bada isurialde kantauriarrean, eta 2 km<sup>2</sup>-tik gorakoa bada isurialde mediterraneoan. Salbuespenez, 2 km<sup>2</sup>-rainoko eta 3 km<sup>2</sup>-rainoko tartek baimentzea, hurrenez hurren, Lurralde Plan Partzialean zehaztutako hirigintza-azpiegitura edo -jardunak direnean.
- j) Etxadien, plazen eta espaloien iragazkortasuna sustatzea, hiriaren drainatze-ahalmena handitzeko.

#### 1.3.1.7. ENERGIA

Hirigintza-plangintzak honako hauek sustatuko ditu:

- a) Eraikinak, auzoak eta hiriak energia-burujabetasuneko sistema hobeez horni daitezela.
- b) Lehendik dauden eraikinen eta urbanizatutako guneen energia-eraginkortasuna hobetzea.
- c) Eraikin eta espazio publikoen plangintzaren, proiektuaren eta egikaritzearen faseetan irizpide bioklimatikoak erabiltzea, batik bat orientazioari, diseinuari eta materialei dagokienez, eta energia-kontsumoa minimizatzen duten sistema pasibo eta aktiboen erabilerari dagokienez.
- d) Eraikin eta espazio publikoetan landaredia erabiltzea isolatzeko elementu moduan eta konfort klimatikoa urtaro batetik bestera erregulatzeko faktore moduan.
- e) Energia-alorrean efizienteak diren argiteria publikoko gailuak erabiltzea.
- f) Hiri-berroneratze eta -birgaitzeko eremuetan eta garapen berriko esparruetan hiriko bero-sareen bitartez energia termikoa sortzeko eta eraikinetan banatzeko sistema zentralizatuak ezartzea, energia berriztagarrien iturriak erabiliz.

#### 1.3.1.8. EKONOMIA ZIRKULARRA

Eraikuntzako eta urbanizazioko udal-ordenantzen bitartez, material iraunkor eta birziklagarrien erabilera sustatuko da, baita biologia-jatorriko materialen erabilera ere, baldin eta haien diseinuan, produkzioan eta ondorengo birziklatzean, ingurunearen gainean sortutako inpaktuak minimizatzen badira.

Proiektu eta obren kontratazioan, ingurumen-alderdiak, diseinua eta material ekologikoen erabilera sustatzea eta balioestea, baita material horien beste zenbait alderdi ere, hala nola iraunkortasuna, inpaktua eta ingurumen-portaera, eta birziklatzeko eta berrerabiltzeko erraztasuna sustatuko da.

hiri-plangintzan lehendik dauden azpiegiturak eta hiriguneak berritzeko, birziklatzeko, leheneratzeko eta berrerabiltzeko jardunei lehentasuna emango zaio. Zabortegi zahar zigitatuak azpiegitura edo ingurumen-ekipamendu bezala kalifikatu beharko dira.

Lurzoruaren erabilerak planifikatzea «lurzoruaren kalitatearen» faktorea kontuan hartuko da, ingurumen-arriskuak prebentzioa ziurtatzeko, eta kutsatzaileak beste ingurune-konpartimentu batzuetara barreia daitezen saihesteko eta baliabideen erabilera optimizatzeke.

Kutsa dezaketen jarduerak bertan behera uztean edozein jarduni ekin aurretik deskutsatze-premiak zein diren jakiteko ikerketak egin daitezen sustatuko da, bide batez giza osasunerako edo ekosistemetarako kalteak saihesteko.

#### 1.3.1.9. ZEHARKAKO GAIAK

Kontuan hartzea lurraldean eragina duten zeharkako gaiak: irisgarritasun unibertuala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde-interrelazioa.

Zeharkako gaiak kontuan hartuta hiri-eredu trinkoa, erabileren nahasketari dagokionez konplexua eta gizarte arloan kohesionatutako eredia sustatuko da.

#### 1.3.1.10. GOMENDIO MAILAKO GIDALERROAK

a) Landa-lurrei dagokienez, nekazaritza-ustategien jarraitutasuna ziurtatzea landa-inguruneke garapen sozioekonomikoaren oinarriko tresna gisa. Nekazaritza-ustategien errentagarritasuna indartuu biztanleria finkatzeko eta landa-enplegua sustatzeko.

Landa-ingurunea ekipamendu eta komunikazio egokiekin hornitzea, garraioa, energia, ura, telekomunikazioak eta herritarren segurtasuna hobetuz. Teknologiaren erabilera eta banda zabalerako sarbidea sustatzea bizi- eta lan-kalitatea hobetzeko.

Landa Nukleoak zaintzea dauden eraikuntzen birgaitzea eta aprobetxamendu hobea bultzatuz, aldez aurreko kokaguneen izaera errespetatuz morfologiari, bolumetriari eta materialei dagokienez, lurzoruaren kalitatea eta inguruko paisaia atxikiz.

Genero-ikuspegia sartzeko laborantza-sektoreke esparru guztietan eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean ezartzen diren neurriak gauzatzea, gizonen eta emakumeneke arteko aukeraberintasuna lortzea.

Garraio publikoko zerbitzuak hobetzea.

Euskadiko Landa Garapen Programareke proposamenak kontuan hartzea nekazari gazteak ingurunera sartzeko; ekimen publiko eta pribatuak martxan jartzea, hala nola nekazaritza-herririkak, nekazaritza-lurreke bitartekaritza-zentroak, lurbankuak edo helburu herietarake beste batzuk.

Nekazaritza- eta abeltzaintza- jarduerai lotutako instalazio eta eraikinak eraikitze- orduan eskatzen diren baldintzak malgotu eta homogeneizatzea, nekazaritza-ustategi profesionalen garapena erraztuz.

b) Paisaiari dagokionez, lurraldeareke gaineko jardunak morfologiara eta topografiara egokitzea, landareke eta zuhaitz klimazikoeke eustea. Elementu nagusien gainean edo mendi-gandor, labar-ertz eta lurreke puntu gorenetan ez eraikitzea. Hormak, zuhaitz-lerroak edo bide tradizionalak desagertzea saihestea.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Landarediari eta baso naturalei eustea, laborantza-paisaiak kontserbatzea, testura-nahasketari eta erabilera-mosaikoaren geometria bereziari arreta berezia eskaini.

Lehendik dagoen landaredia desagertzen bada, konpentsazionerri jakin batzuk ezartzea,

Bertako landaredia berreskuratzea, sail handi mono espezifikoak saihestea, baso autoktonoa berroneratzea, espezie autoktonoak eta errekek babesteko zerrendak behar bezala errespetatuz.

Ondare historiko-kulturala sustatzea. Kultura-bideei balioa ematea eta ibilbideen, bideen eta sarea sortzea, ibilbideetan ondare-intereseko ondasunak eta tokiak biltzea, ibilbide tematikoak ezartzeko aukera aintzat hartuz. Bista ugari tokietan begiratokiak sustatzea. Ahal den neurrian, ibilbide eta begiratokietatik bistetarako oztopoak kentzea.

Kokatze-sistema iraunkor eta tradizionalak babestea, hazkunde trinkoa erraztuz, lur berriak okupatu beharrean dauden eremuak optimizatzen, jarduera ekonomikoak ezartzean ere.

Hiri-ertzetako edo kanpoaldeko paisaia babestea eta hobetzea. Hiri-baratzeak ongi integratu eta bateratzeko irizpideak ezartzea. Herriguneak inguruko ingurune fisikoan integratzea, landa-hiria trantsizioa behar bezala antolatu, Herrigune txikien irudi tradizionala babestu eta inguruko paisaien kontserbazioarekin estuago lotzea.

Hiri-paisaia berezi eta historikoen izaera mantentzea, erreferentzia materialak eta eraikitako ondare-elementu bereziak galdu gabe. Estetikaren, eraikuntzaren, funtzionaltasunaren eta tipologiaren ikuspegitik gune, hiriko gune edo hiri-paisaia historikoaren ezaugarri morfologikoetan guztiz integratuta dauden eraikuntza-baldintza batzuk ezartzea. Eremu publikoen erregulazioa zehaztea, paisaia-ikuspegiak zaintzeko. Inguruneke balio handiko elementuak (hegal eta mendiak, itsas eremuak eta abar) hiri-eszenan biltzea, haiei irekitzea.

Paisaian eragina izan dezaketen azpiegitura, obra eta jarduera guztien oinarrizko baldintzak betetzen direla bermatzea, ingurunea ebaluatzeko tresnen edo paisaia integratzeko azterlanen bitartez.

c) Kultura-ondareari dagokionez, hirigintza-plangintzak honako irizpide hauek hartu beharko lituzke aintzat: ondasunaren eta haren lurralde-ingurunearen arteko erlazioa islatzea, ondasuna kargen eta onuren berdinbanaketa ahal izateko moduko hirigintza-esparru batean biltzea, ondasuna bere jatorrizko kokapenean mantentzea, kultura-ondasuna bere osotasunean babestea.

Toponimiaren tratamendu bateratua hartu beharko litzateke aintzat.

Dagozkion hirigintza-plangintzako figuretan, Arkeologia Ondarearen antolamendu kategorietatik arkeologia-eremu bakoitzerako behin betiko zer zehaztaperen egin beharko liratekeen ezartzea.

d) Naturaren ondareari dagokionez, biodibertsitatearen aldagaia hirigintza-plangintzan integratzea, geodibertsitatea barne, ondare naturalak gizarteari, ekonomiari, ingurumenari eta kulturari dakarzkion onurei balioa emanez.

Naturan oinarritutako soluzioen aplikazioa sustatzea, horiek baitira ekosistemen funtzionamendua hobetu, biodibertsitatea areagotu, habitaturiko guneen erresilientzia hobetu eta biztanleriaren osasuna eta ongizatea hobetzeko bidea ematen dutenak.

e) Baliabide turistikoari dagokionez, elementu berezizat hartzea honako hauek: baliabide naturalak, paisaia, herrigune historikoak, monumentu multzoak, ondarea eta hainbat alorretan (natura, historia, kultura, arkitektura, hirigintza, ingurumena, geologia edo arkeologia) interesa duten elementuak, oinezko eta bizikletentzako ibilbideak, ondare immateriala (gastronomia, nortasuna).

Naturaren eta kulturaren aldetik dagoen potentziala modu iraunkorrean garatzea. Garapen turistikoaren ereduak bat etorri behar luke natura-eremuaren nahiz hiri-ingurunearen harreraahalmenarekin.

f) Mugikortasunari dagokionez, hirigintza-plangintzetan garraio publiko intermodaleko sistema integralak lantzea, garraio bide garbiei eta hiri-autobusetako lehentasunezko trafiko-lineek (adibidez zirkulazio azkarreko autobusak) eskaintzen dituzten aukerei arreta berezia eskainiz. Autobus-geltokiak intermodalitate-irizpideei jarraikiz sortzea, baita bizikleta-mugikortasunarekin ere, bizikletak alokatzeko sistemak barne.

Ekobulebarren garapenean, garraio kolektiborako eta oinezko eta bizikletentzako erreserbatutako plataformak biltzea, hiri-pieza desberdinak artikulatzeko eta zentralitateko gune eta garapen berriak kokatzeko.

Landaguneetan eta biztanleria-dentsitate txikiko eremuetan garraio kolektiboko zerbitzu egokiak ezartzea, eta teknologia berriak erabiltzea mugikortasuna eraginkorrago bihurtzeko aukerak ikertzeko, eskatu ahalako zerbitzuak adibidez.

Genero-ikuspegia biltzea, zaintzaren mugikortasuna kontuan hartuta.

Bizitegi-garapen edo jarduera ekonomiko berrien proposamenetarako irisgarritasun egoki bat aurreikustea bai ibilgailu pribatuan, bai oinez, bai bizikletaz eta bai garraio publiko bidez.

Hirigintza Plangintzak oinezko eta bizikletentzat garapen berrietarako irisgarritasuna ziurtatu beharko du, konektibitatea bermatzen duen toki-sare baten bitartez. Oinezko eta bizikletentzako bidea herrietatik igarotzen dela ziurtatu beharko du, hiriarteko bilbeari jarraipena emanez. Hiri-ingurunean kaleak oinezkoentzat moldatu daitezela edo bizikletaren erabilera handi dadila sustatzea. Oinezkoen eta bizikletetarako bideak diseinatzea, paisaiaren irizpideak txertatuta eta lurraldea eta paisaia gozatzea ahalbidetzen duten hiri-altzariak baliatuta. Oinezkoei lehenetasuna ematea bizikleten gainetik udalak zehaztuko dituen herri barruko bideetan. Bizikleten alokairua eta/edo aparkatzea erraztea, nola eraikinen barnealdean hala aparkaleku eta gune publikoetan, eta bereziki intermodalitateko puntuetan.

g) Irisgarritasun unibertsalari dagokionez, hiri-inguruneetan erabileren nahasketa sustatzea, joanetorrien premiak minimizatzeko moduan. Hiri diseinatzean hurbiltasunaren bilaketa oinarritzat hartzea, oinezkoen ardatzen sareari lehenetasuna ematea, gune publiko eta ekipamenduetarako irisgarritasuna bermatzen duen ibilbide-kontzeptuari jarraikiz.

Auzoen eta hiri-aldiriaren autonomia bermatzea, ekipamendu-sare baterako sarbide unibertsala eduki dezaten, hirigunearen mendetasun funtzionala saihestuz. Hiri-garapenari lurzoru berriak eranstea aukera aztertu baino lehen irisgarritasun-sarean integratzea.

Lurraldean merkataritzaren banaketa orekatua sustatzea, iristea automobilaren erabileraren mendean ez jartzeko. Intermodalitatea indartzea, irisgarritasun-katearen ideia barruan.

Landa-habitataren ibilbide irisgarriak ezarri herriguneeen artean, eta, bereziki, bizitegi-ingurune barreiatuen eta zerbitzu- eta ekipamenduen artean Naturagune babestuetan eta historia- eta kultur-ondarean irisgarritasun unibertsala sustatzea. Turismo-eredu irisgarria garatzea.

Hirigintza-plangintzak, diseinuari dagokionez, espazio publikoa eta ekipamenduak irisgarritasun unibertsaleko eta adinekoekiko lagunkotasuneko baldintzei egokitzea. Adinekoek eta desgaituek plangintza-prozesuetan izan dezaketen parte-hartzea azpimarratzea. Auzo, herri eta hirietako espazio publikoa ariketa fisikoa egiteko ingurune apropos bihurtzea. Zahartzen ari diren edo desgaitasunen bat duten pertsonentzat ostatu-forma berriak sustatzea, etxean gera daitezela bermatzeko.

h) Genero ikuspegiari dagokionez, hiri konplexua sustatzea, ongi hornitutako auzo seguruetan oinarritua. Gune publiko bizi eta seguruak indartzea, planifikatu eta diseinatzean, emakumeen, adinekoen (bi sexuen premia diferentzialei arreta eskainiz) eta haurren premiak kontuan hartzea. Dentsitate nahikoa duen hiri-eredu bat sustatzea,

Garraioaren plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia sartzea, segurtasuna kontuan hartzeko moduan. Zaintzaren mugikortasuna sustatzea, zaintzarekin lotutako bidaiak ahalik eta denbora gutxienean, eskatutako ordu-tarteetan eta arrazoizko kostu batekin egiteko aukera ziurtatuz, eta pertsonen ordainpeko enplegua zaintza-erantzukizunekin bateragarri egiteko bidea emanez.

Plangintza-prozesuan, parte-hartze prozesuen barruan, talde sozial batzuek eta besteek arriskutsu edo ez seguru gisa ikusten dituzten guneak identifikatu. Herritarrek parte hartzeko prozesuak garatzea genero-ikuspegia aintzat hartuz emakumeen parte-hartzea indartzeko.

i) Klima aldaketari dagokionez, hirigintza-plangintzan klima-aldaketaren kausak eta eraginak aintzat hartzea, eta proposamenen bidez berotegi-efektuko gasen isurpenaren balantze garbia murrizten eta erresilientzia handitzen laguntzea. Klima-aldaketarako egokitzapena aintzat hartzea, inpaktuen eta urrakortasunaren kartografia tematiko baten bitartez. Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako soluzioak sustatzea klima-aldaketara egokitzeko neurri

gisa. Baso-kudeaketa hobetzea, lurzoruaren galerak ekidinez, lurzoria baita karbonoaren sarbegi nagusia, baso naturalak karbono-hustubide izateko duen azalera handitu.

Lurzoruaren okupazioa mugatzea, gune urrakorrak berroneratzeko bidea erraztuz. Hiri-guneetan energia-eraginkortasuneko irizpideak indartzea eraikuntzan eta garraioan. Hirigintza-plangintza klimaren ikuspegia txertatzea.

Espazio publikoak iragazkor bihurtzea eta birlandatzea; naturan oinarritutako konponbideak bultzatuko dira uholdeak eta estres termikoa jasan ditzaketen eremuetan.

j) Osasunari dagokionez, hiri-garapen trinkoak sustatzea, erabilera mistoaz, kale irisgarriez eta bizitegi- eta merkataritza-dentsitate egokiaz, garapen berriak integratuz. Gune eroso, seguru eta irisgarriak sortzea, herritarren ongizatearen eta kohesio sozialaren mesedetan.

Ekipamendu-sareetarako berdintasunezko irisgarritasuna bultzatzea, Mugikortasun aktiboa sustatzea, oinezko bizikletaz ibiltzeko moduko inguruneak diseinatzea, jarduera fisikoa egitea eragozten duten oztopoak kenduz

Agente kutsatzaileen kontzentrazioa murriztea, hiriko zein hiriarteko garraio publikoaren erabilera sustatuz.

Kalitatezko etxebizitza osasungarriak bermatzea, hirigintza-diseinuan irizpide bioklimatikoak sartuz. Halaber, biztanle talde guztientzako etxebizitza eskuragarrien nahasketa eta integrazio tipologikoa sustatzea.

Nekazaritza-erabilerako lurak babestu eta leheneratzea, eta hurbiltasuneko elikadura osasungarria sustatzea.

Oroimen kolektiboan garrantzi naturala, historikoa edo kulturala duten edo nortasuna duten lekuak zaintzea eta/edo hobetzea.

k) Euskarari dagokionez, EA Eren errealitate soziolinguistikoa hirigintza-antolamendurako tresnetan gehitzea, hizkuntza-ikuspegiari zeregin integratzailea emanda. Harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta eskusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea. Plangintzan hizkuntza-paisaiaren kontzeptua sartzea. Euskarazko toponimo edo terminoen erabilera sustatzea, haien aldaera normalizatuan, hirigintza-elementu berriak izendatzeko.

l) Hirigintza-planen izapidetzeari dagokionez, esku hartuko duten administrazioek ezingo dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legean (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) ezartzen ez den beste izapiderik onartu, onarpenerako prozedurak atzeratzea ekidite aldera.

Ingurumen arloko ebaluazio-prozeduraren izapideak eta planaren funtsezko prozeduraren izapideak beteko dira aldi berean, izapidetzearen epeak hobetze aldera.

Administrazioen arteko lana eta koordinazioa errazteko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak honakoak egingo ditu: plan orokorraren moldatzea aztertzea, Lurzoruari eta 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrira.

Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta administrazio zentralerako sailek aurkeztutako txosten sektorialak dokumentu bakarrean biltzea, ingurumen-ebaluazio estrategikoari lotutako ingurumen-organoen txostenak barne, igortzen diren kasuetan, koherentzia global bat bermatuz. Ingurumen-organok ebaluatuko du, legedi aplikagarriaren markoaren barnean, plan orokorrean proposatutako ingurumeneko aspektuen integrazioa, berariaz azpimarratuz bere eskuduntzako gaiak eta ingurumenaren ikuspuntutik garrantzia justifikatua dutenak. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txosten tekniko bat sortzea sustatuko du, non administrazioarteko bateratze maila aztertuko den lurralde-plangintzak hirigintza-plangintzarekin duen koordinazioko gidalerroen aplikazioan.

### **1.3.2. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATI KO PLANA**

#### **1.3.2.1. ANTOLAMENDU-KATEGORIAK**

##### **A) INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA**

###### **A.1. GARRANTZI BEREZIKO EREMUAK**

- Babestu beharreko eremuak
- Natur intereseko eremuak.
- Interes zientifiko-kulturaleko eremuak eta guneak.
- Nekazaritza- edota ingurumen-intereseko eremuak.
- Interes hidrologikoko eremuak.
- Hobetu edota leheneratu beharreko eremuak
- Ekosistemak hobetzeko eremuak.
- Baso kontserbazioko eremuak.
- Erabiltzen ez diren meatze, harrobi eta zaborteziak.

## A.2. INGURUNE FISIKOAREN KATEGORIZAZIO OROKORRA

### A.2.1. Kategoria orokorrak

- Babes berezia.
- Ingurumen hobekuntza.
- Basogintza.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala.
- Mendiko larreak.
- Lur gaineko uren babesa.

### A.2.2. Baldintzatzaille gainjarriak

- Akuiferoen urrakortasuna.
- Higa daitezkeen eremuak.
- Urpean gera daitezkeen eremuak.
- Espazio natural babestuak eta Natura 2000 sarea.
- Korridore ekologikoen sarea.

## B) OINARRIZKO AZPIEGITURA SISTEMAREN EREDUA

### B.1. GARRAIO ETA KOMUNIKABIDEEN SISTEMA

#### B.1.1 Errepide sarea

- Kanpoko Sarbide Sare Orokorra.
- Tokiko Sarbide Sare Nagusia.
- Lurraldeko Sarbide Sare Osagarria.
- Tokiko Bigarren Mailako Sarbide Sarea.
- Landaguneetako sarbide sarea.

#### B.1.2. Oinezko eta txirrindularientzako hiriarteko sarea

#### B.1.3. Ingurumen ibilbideen sarea

#### B.1.4. Trenbide sarea

- Trenbide sare berria.
- Egungo trenbide sarea eta aldirietakoa (RENFE)

#### B.1.5. Sistemako beste hainbat elementu

- Autobus geltokiak eta intermodalak.

### B.2. OINARRIZKO ZERBITZU AZPIEGITURAK

- Saneamendua.
- Ur hornidura.
- Arriskuen prebentzioa.
- Hondakin solidoak.
- Azpiegitura elektrikoak.
- Gas azpiegiturak.

- Telekomunikazio azpiegiturak.

## C) ASENTAMENDU SISTEMAREN EREDUA

### C.1. UDALERRIEN KATEGORIZAZIOA

- Burutza-hiri edo azpi-burutza sistemako hiriguneak.
- Tamaina ertaineko hiriguneak.
- Landa esparruetako guneak.

### C.2. OKUPAZIOAREN EZAUGARRI OROKORRAK

- Hiri esparruak.
  - . Hiri esparru garatuak.
  - . Hiri garapenerako esparruak:
  - . Hiri eraldaketa edota biziberritzeko espazioak.
  - . Garapen berrietarako eremu nagusiak.
- Landa esparruetako guneak.
- Hiri garapenik gabeko esparruak: Garapenik gabeko korridoreak eta Erreserba Espazialerako Eremuak.

### C.3. BIZITEGIRAKO ASENTAMENDUAK

- Asentamendu kategoriak eta lurzoru politikak
- Hazkunde selektiboko udalerriak.
- Lurraldeko sarreraguneak.
- Ordezko habitatak.
- Etxebizitza babestuen garapen publikorako lehentasunezko interesa duen udalerria.
- Jarduera publikoak garatzeko lehentasunezko interesa duen udalerria.

### C.4. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ASENTAMENDUAK

- Asentamendu kategoriak eta lurzoru politikak
- Lehentasunezko intereseko udalerriak.
- Hazkunde moteleko udalerriak.
- Garapen txikiko udalerriak.
- Sustapen publikoko eskualde poligonoa.

### C.5. EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

- Hiri ekipamenduak
- Hezkuntza arlokoa.
- Kirol arlokoa.
- Osasun eta sorospenekoa.
- Hiri eta administrazio zerbitzuak.
- Kultura eta aisiakoa. - Komertziala.
- Garraiorako ekipamenduak.
- Hiri inguruko parkeen zuzkidurak.
- Beste hornidura batzuk (Lurralderako sarreraguneetako ekipamendu bereziak, etab.).
- Landa eremuetako eta ingurune naturaleko ekipamenduak eta azpiegiturak
- Aisialdi eta atsedenerako eremuak.
- Ingurumen ibilbideen sarea.
- Beste hainbat ekipamendu.

### C.6. ASENTAMENDU EREDUAN ESKU HARTZEKO MODUAK

- Esku hartzeko moduak
- Babes eta birgaitze jarduketak.
- Hiri eremuak eraldatzeko eta biziberritzeko jarduketak.
- Garapen berriak egiteko jarduketak.
- Zentraltasunak indartzeko jarduketak.
- Esku-hartzeen hierarkia lerruna
- Esku-hartze estrategikoak.
- Lehentasunezko esku-hartzeak.



a) Garraioari dagokionez, hiri eta landa inguruen eta sistemako elementu guztien arteko egituratze eta harremana sustatzea. Gaur egungo garraio eta komunikazio sistema hobetzeko administrazioek, garraio politika komun bati jarraituz, modu koordinatuan egitea plangintza eta antolamendua.

Intermodalitatea oinarrian duen garraio politika bat garatzea. Garraio publikoari lehenetsua ematea. Garraibide ez-motordunak edota ingurumenari gutxiago eragiten dioten garraibideak sustatzea, automobil pribatuaren erabilera mugatzea.

Iragaitze eta agitazio trafikoa pixkanaka bereiztea. Errepide sareen funtzio aniztasuna sustatzea, sistemak erlazionatzeko eta egituratzeko dagokien funtzioa indartuko da. Hiri trafikoa bide hutsaren kontzeptua gaitu, batez ere hiri zeharbideetan. Oinezko eta txirrindularientzako hiriarteko irisgarritasun sare bat itxuratzen eta garatzen laguntzea, Sarearen funtzionaltasun integrala osatzea, sistemarako halabeharrezkoak diren zerbitzuen bitartez, hala nola autobus geltokiak, truke zentroak eta garraiorako ekipamenduak.

b) Errepideen sareari dagokionez, Tokiko Bigarren Mailako Sarbide Sarean sartzen duen LZP-ak . GI-3630 errepidea (Asteasu - Alkiza - Anoeta).

c) Oinezko eta txirrindularientzako ibilbideen hiriarteko oinarritzako sarea, Tokiko Sarbide Sare Nagusian eta Bigarren Mailakoan oinarritu da batez ere. Bizikleta trafikorekiko edota trafiko motordunarekin baterako kasuetarako oinezkoen lehenetsua ematen dien sare honek ahalmen handiko garraio publikoen sistemekiko lotura eraginkorrak ahalbidetuko ditu.

#### 1.3.2.4. ASENTAMENDUEN SISTEMA

a) Lurralde desorekak zuzentzeko landa garapenerako politika, ekonomia-oinarria dibertsifikatua duena eta lehen sektorearen alternatibak, bizitegitarako eskaintza alternatiboa, kultur eta ingurumen zerbitzuen berrekiamendua eta integrazioa, telekomunikazioen garapena eta garraio publikoaren hobekuntza ahalbidetuko dituena.

b) Asentamenduen sistemaren ereduak, Alkiza landa esparruetako guneen artean agertzen da.

c) Lurraldeko sarreraguneak. Eredu hauen kokapena eta ingurune fisikoko espazioekin duten erlazioa direla eta, aisialdi eta atsederako eremu gisa erabili daitezke, betiere LZP honetan egindako aurreikuspenen arabera; horrela, zuzkidura-eremuak areagotzea komeni da, dagokien berariazko funtzioaren arabera.

#### 1.3.2.5. BIZITEGI ASENTAMENDUAK

a) Alkizan, eremu hiritartuenetakoarekiko bizitegi eskaintza alternatibo bat bultzatu ahal izango da, hazkunde motelez, intentsitate txiki eta egungo azpiegiturari edo hiri lerrunari egokitu ahal izango da. Horien hiri egitura eta morfologiari eutsiko zaie, herri eta ingurune baliok zainduko dituzten soluzioen bidez. Dentsitate txiki bizitegitarako eskaintza egin ahal izango da.

b) Landa Eremuetako Guneak Babesteko Planek (izan ere, gune hauetako askoren balio paisajistikoa, lurraldearen ezaugarriak eta topografiaren aldetik sarridan leku nagusi batean kokatuta egoteak berak emana, dela-eta garatu behar dira horrelakoak) helburutzat dute bere ikusizko kalitateagatik, bolumetriagatik, antolamendu orokorragatik eta abarregatik multzo bereizgarriak diren guneak identifikatzea, mugatzea eta babestea, eta baita horietarako dimentsionamendu egoki bat zehaztea ere, dituzten baliok mantentzea eta behar duten garapen sozioekonomikoa bateragarri izan daitezen.

Babesteko planak diren neurrian, gune horien izaera mantentzeaz arduratuko dira, balio urbanistikoak, arkitektonikoak, kultura, paisaia eta ingurumen aldetikoak bermatzeko. Horretarako, hiri multzoaren ezaugarriak zehaztuko dira, eta tipifikatu egingo da, egungo garapen sozioekonomikoaren aurrean sentikorrenak diren eboluzio alderdi dinamikoak identifikatuz, eta babes araudi bat proposatuko da, plangintza orokorrak jasoko duen perimetroa definituz horretarako.

c) Erdi urbanoak eta landatarrak diren beste udalerrietan, adibidez Alkizan, etxebizitza babestuaren motetako batera bideratutako lurzoruen garapen txikia aurreikusten da; ez da, baina, egokitasun jarduketarik edo jarduketa asistematikorik garatzeko aukera bazterten, betiere eskaera antolatu batean oinarrituta.

d) LAG-en xedapenak jasotzen dituen aurreko atalean, etxebizitza berrien eskaintza kuantifikatzeko betetako koadroan, Tolosaldeko LZP-ak bere 38 artikuluan ezartzen dituen kalkulatzeko irizpideak erabili dira. Emaizta 85 etxebizitza da.

Baina koadroa betetzean ez da erabili etxebizitza berrien gehienezko kopuruari LZP-ak jartzen dion muga. Hau da:

800 biztanletik beherako udalerrietan, etxebizitzetatik % 30 baino gehiago lurzoru urbanizaezinean dutenean bizitegi edukiera mugatu egiten da, planaren hasieran hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian dagoen parkearen % 70era.

Alkizan lurzoru urbanizaezinean dagoen etxebizitzaren portzentaia %52 da. Udalerriko 187 etxebizitzetatik herrigunean 85 daude. Hauek dira egun, HAPO berriaren hasieran, aurreko paragrafoan jasotako baldintzak dion eran, hir-lurzorua izango denean dauden etxebizitzak, ez da geratzen zoru urbanizagarririk osatu eta urbanizatu gabe. Honen arabera:

**Alkizan eskaini ahal izango diren etxebizitza berriak gehienez 60 izango dira.**

Gutxienez 20 etxebizitza egin beharko dira.

#### 1.3.2.6. EKONOMIA JARDUEREN ASENTAMENDUAK

Haranen hondoetako zerrenda estu eta lauetako esku-hartzeak deskalifikatu behar dira, batez ere erriberakoak, horietan esku-hartzeak galarazi behar baitira. Gisa horretan hiri garapeneko baztertze zerrenda izango dira

Izaera poluitzailea edo narriatzailea duten erabilera bereziak, besteak beste, aire zabaleko txatar biltegiak, automobilen hilerriak, hormigoizko plantak eta antzeko eragineko beste hainbat, ezinbestean arautu beharko dira udal plangintzetan, arloko araudiari jarraiki eta akuiferoen, ingurune naturalaren eta hiri eta landa paisaiaren babesaren inguruko irizpideak aintzat hartuz.

Garapen txikiko udalerriak tamaina eta industria-lurzoruen eta hiri garapeneko bestelako ekonomia-jardueren garapen txikiak dituztenak dira. Alkiza haien artean. Udalerri horietan hirigintzako plangintzak hiri garapeneko ekonomia-jardueretarako lurzoruaren kalifikazioa mugatzea proposatzen da. Udalerri bakoitzak gehienez 3 ha lurzoru aurreikusi ahal izango ditu, nahikoa harrera-ahalmen dagoenean ingurune naturalean eragin esanguratsurik izan gabe.

#### 1.3.2.7. EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

Natura 2000 sareko espazioetan, Hernio-Gazume horien artean, turismo-jarduera toki horien babesarekin eta kontserbazioarekin bateragarria den mailetan mantendu behar da.

Ingurumen ibilbideen sarea: Biztanleriaren gune nagusiak lurralderako sarreraguneekin eta proposatutako atsedeen eremuekin lotzen dituzten ibilbideen sistema integratua da. Tokiko sarbide sare nagusiko oinezkoentzako pasealekuak eta bidegorriak, naturaren, ondarearen eta turismoaren inguruko interesa duten elementuen arteko ibilaldi bigunak eta oinezkoentzako bestelako ibilbide eta zirkuituak.

#### 1.3.2.8. ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK

Txirrindulari eta Oinezkoentzako Ibilbide Sare bat sortzea, hiriarteko bat zehazki, ereduaren bide egitura osoaren parte izan dadin.

Lurraltera sartzeko guneetako berrekipamendu jardunak. Jolas eta atsedeen eremuak eta Ingurumen Ibilbideen Sare Nagusia natura, paisaia edo kultura aldetik interesgarriak diren elementuen artean, lurraldearen laketa erabilera modu antolatu batean indartzeko estrategia garatzeko beharrezko lurralde ekipamendutzat.

#### 1.3.2.9. LZP APLIKATZEKO ARAUAK

a) Hirigintza antolamendurako planak formalizatzen direnean, berriaz aipatuko dira LZP-renedukiak, modu espezifiko, sistematizatu eta hierarkizatu batez.

b) Era berean, LZP-ko zehaztapenak egokitzeari, doitzeari edo interpretatzeari lotutako azalpenak, hala egokituz gero baimentzen diren desbideratzeekin batera, modu argi, arrazoitu eta zehatzez jasoko dira alorreko antolamenduaren, udal antolamenduaren eta antolamendu bereziaren derrigorrezko justifikazio memorian.

c) Lurralde ereduko elementuak plangintzara eramateko LZP-ren eskala dela-eta, jasotzen dituen helburuak eta oinarritzko eduki funtzionalak lehentasunezko erreferentziatzat hartuko dira; lurralde egiturari buruzko zehaztapenak betetzea derrigorrezkoa izango da. Antolamendu kategorია eta esparruen mugen doitzea onar daiteke.. Dena den, aldaketa horiek behar bezala justifikatuta egon beharko dute.

#### 1.3.2.10. ALKIZARI ZUZENEAN JARRITAKO BALDINTZAK

##### 1. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

- Udalerrian babestu, hobetu edota leheneratu beharreko eremuak antolatzea, LZPren zehaztapenei jarraikiz.
- Ingurune fisikoa antolatzeako kategoriak bere baldintza, ezaugarri, potentzialtasun eta harrera-ahalmenaren arabera definitzea eta arautzea, LZPan edota LAG-etan ezarritako irizpideei jarraikiz.

##### 4. ZERBITZU AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA

- LZP honek barnean hartutako arloko planak eta proiektuak gauzatzeko beharrezko erreserbak.

##### 6. BIZITEGITARAKO ASENTAMENDUETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

- Bizitegitarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea LZPren xedapenen arabera. - Landa eremuetako guneak babestea.

##### 8. EKIPAMENDU ETA ESPAZIO LIBREETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

- Hiri ekipamenduak.
- Turismo, hotel, aisia edota kulturarekin zerikusia duten ekipamenduak aurreikustea, lurralderako sarreragune dela kontuan hartuta.
- Ekipamenduak eta espazio libreak landa zonetan eta ingurune naturalean.
- Udalerriari dagokion ingurumen ibilbideen sarea.

### 1.3.3. EAEKO IBAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

#### 1.3.3.1. DEFINIZIOAK

Ibaia: 10 km<sup>2</sup> baino arto isurle handiagoa duen ur-ibilgu oro.

Erreka: 1 km<sup>2</sup> eta 10 Km<sup>2</sup> arteko arto isurlea duen ur-ibilgu oro.

Isurketa: 1 km<sup>2</sup> baino arto isurle txikiagoa duen ur-ibilgu oro.

Eragin-zona: bat dator Uren Legean definitutako ibilguen polizia-zonarekin eta Kosta Legean definitzen den itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasunzonarekin, eta ertzen eta urpean gera daitezkeen zonen gehieneko hedadura mugatzen du, betiere Lurraldearen Arloko Plan honetan jasotzen den araudia aplikatzearen ondorioetarako.

Birgertatze-aldia: magnitude jakin bateko bi gertaeren arteko batez besteko tarte estatistikoa. Emandako baliotik gorako ur-goraldi bat epe jakin batean gertatzeko probabilitatearen alderantzizkoa da (gertatzeko probabilitatea).

Urteko probabilitatea (%)	Birgertatze-aldia (urteak)
10	10
1	100

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

0,2

500

Urpean gera daitezkeen zonak: bostehun urteko birgertatze-aldi edo errepikadenbora estatistikoa duten ur-goraldietan urak hartuko lituzkeen maila teorikoek mugatzen dituzten zonak dira. Horiek zehazteko, azterketa geomorfologiko, hidrologiko eta hidraulikoak hartzen dira kontuan, uraldi historikoen serieekin eta uraldi horiei buruzko dokumentu edo froga historikoekin batera.

Lehentasunezko fluxu-eremua: uraldietan zehar fluxua nagusiki biltzen den zona (edo zonak) edo huste biziko bidea, eta 100 urteko errepika-denborako uraldiak pertsona eta ondasunen gainean kalte larriak eragin ditzakeen zona elkartzen diren eremua da; bi zona hauen inguratzaileak ematen digu eremu honen kanpoko muga. Aurreko definizioa aplikatzean, pertsona edo ondasunen gaineko kalte larriak gerta daitezkeela joko da, baldin eta, uraldian zehar, baldintza hidraulikoei dagokienez ondoko irizpideetakoren bat edo batzuk betetzen badira:

- a) Sakonera 1 m-tik gorakoa izatea.
- b) Uraren abiadura 1 m/s baino handiagoa izatea.
- c) Aldagai horien bien produktua 0,5 m<sup>2</sup> /s baino handiagoa izatea.

### 1.3.3.2. ERTZ TARTE ETA ZONAK

honela bereiziko dira zonatan edota tarteetan ibaien eta erreken ertzak.

- 1.- Ertzen zonak, ingurumen-osagaiaren arabera.
- 2.- Ur-ibilguen tarteak, arro hidraulikoen arabera.
- 3.- Ertzen zonak, hirigintza-osagaiaren arabera.

Osagai bakoitzari dagokion araudia batera aplikatzearen emaitzakoa izango da Lurraldearen Arloko Plan honen esparruko puntu bakoitzean aplikatu beharreko araudia. Arau batzuk beste batzuei gainjartzen zaizkien kasuetan, ingurumen baloreen babes maila handiena dakarren araudia aplikatuko da.

- 1.- Ingurumen-osagaiaren araberako sailkatzea:

Lehentasuneko interes naturalistikoko zonetako ertzak.

Ondo kontserbatutako landaredia duten ertzak.

Higadura, irristatze edota akuiferoen urrakortasunaren arloko arriskua duten zonak.

Leheneratu beharreko ertzak.

- 2.- Arro hidraulikoen araberako sailkatzea:

Ibai- tarteak	Arro isurlearen azalera km <sup>2</sup>
VI	600 km <sup>2</sup> < A
V	400km <sup>2</sup> < A ≤ 600 km <sup>2</sup>
IV	200 km <sup>2</sup> < A ≤ 400km <sup>2</sup>
III	100 km <sup>2</sup> < A ≤ 200 km <sup>2</sup>
II	50 km <sup>2</sup> < A ≤ 100km <sup>2</sup>
I	10km <sup>2</sup> < A ≤ 50 km <sup>2</sup>
0	1 km <sup>2</sup> < A ≤ 10 km <sup>2</sup>
00	A ≤ 1 km <sup>2</sup>

Alkizako errekek 0 edo 00 mailakoak dira

- 3.- Hirigintza osagaiaren araberako sailkatzea:

A.- Landa-esparruko ertzak.

B.- Hiri arteko komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertzak.

C.- Esparru garatuetakoko ertzak.

D.- Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten ertzak.

### 1.3.3.3. ARAUDI OROKORRA

#### a) Aplikatzeko oinarritzko legedia:

Urari buruzko 2000/60/EE Esparru Zuzentaraua; 1/2001 Uren Legearen Testu Bategina, uztailaren 20koa.

1/2006 Uraren Euskal Legea, ekainaren 23koa.

Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko 9/2008 Erregelamendua, urtarrilaren 11koa.

EAEko mugapeetako plan hidrologikoak, une bakoitzean indarrean daudenak.

Urpean geratzeko arriskuari buruzko 2007/60/EE Zuzentaraua, Uholde arriskuak ebaluatzeko eta kudeatzeko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretua, eta une bakoitzean indarrean dauden uholde arriskua kudeatzeko planak.

#### b) Kultura intereseko elementuen babesa

- Kultura-intereseko zubiak babesteko dira baina uholdeen prebentzioareki bateragarriak izan beharko dira. Sailkatutako zubien zerrenda dakar dokumentuak, ez dago alkizako zubirik.

- Hirigune historikoetan berdin. Ez dira aplikatuko LAP-aren eraikuntzen atzerapenarako arauak.

- Urtegiak, lakuak, urmaelak eta hartuneak babesteko babes perimetroa ezarriko zaie eta uraren erabilera arautuko da. Plan bereziak izapidetu ahalko dira.

Oro har, ur-hartuneen babesari dagokionez uraren arloan indarrean dagoen araudiaren, mugape bakoitzeko plan hidrologikoaren, eta arlo honetan eskumena duen agintaritzak ezartzen dituen zehaztapenen arabera jardungo da. Udalerrri bakoitzeko hiri-plangintza orokorreko lurzoru urbanizaezineko zehaztapenen artean jaso beharko dira gaur egun dauden ur-hartunerik adierazgarrienak, erantsiz, betiere, Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroan sartuak, horien babes perimetroa grafikoki definituz, eta beharrezko babes neurriak eta erabilera erregulatzekoak ezarriz, dagokion plan hidrologikoarekin bat.

#### c) Ibilguetatik hurbil dauden azpiegiturei buruzko araudia.

- Lurpeko azpiegitura linealen atzerapenak:

Landa-lurretan 15m, tokiko bide baten azpitik ez badoaz. Kolektoreak eta beste eroanbide hidraulikoak salbuetsita egon daitezke ondo justifikatuta.

Esparru garatuetan bide eta espaloien azpian edo ubideratzen murruean atzealdean jarriko dira.

Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten esparruak: azpiegitura horiek urbanizazio berriko bideen edo espaloien azpian instalatzen saiatuko da.

ibilgua gurutzatzeko guneetan teknika suabeenak erabiliko dira (zubiei erantsiak, lurlean zutoinak sartzera,...), zanga bidezko gurutzaguneak behar bezala justifikatutako kasuetarako utziz; horrelakoetan, betiere, prebentzio, zuzentze eta konpentsazio neurri egokiak hartuko dira. Azpiegiturak ezartzean, ahalegina egin beharko da lehendik dauden natur intereseko elementu garrantzitsuenak eta ibaiertzeko landaretza babesteko; eta azpiegituren diseinuak landaretza hori birsortzea ahalbidetu beharko du, ukituta geratu den lekuetan.

#### d) Ingurumen osagaiaren araberako berariazko araudia.

- Landa-lurreko ertzetan erabilera sustatuak kontserbazioa eta ingurumen-hobekuntza izango dira. Erabilera onargarriak: aisia intentsiboa eta estensiboa, ehiza eta arrantza, nekazaritza, berotegiak, abeltzaintza eta basoa, erauzpen-jarduerak, garraibideak, lurpeko lineak, zrbitzu-instalazio ez linealak, erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak, nekazaritza-ustialekuari lotutako etxebizitza eta arrain-haztegiak. Erabilera debekatuak: hirigintza-hazkundera, nekazaritza-industria, hondakin solidoen zabortegeak eta hondakindegia, 3 Km<sup>2</sup> baino arto isurle txikiagoa duten erreketan izan ezik, etxebizitza-isolatua eta Instalazio arriskutsuak.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

- Lehenetsuneko interes naturalistikoa duten zonetan, Ibilgua Babesteko Eremu bat ezartzean datza babeserako irizpide orokorra. Babes-eremu horretan, ingurunea aldatzea eragingo duen jardun oro debekatuko da.

Onarpen ofiziala duen «Natura 2000» Europar Sare Ekologikoko lekuetan bete egin beharko dira dagozkien kudeaketa-tresnak, hau da, KBEen (Kontserbazio Bereziko Eremuak) kontserbazioaren gai diren kudeaketako funtsezko elementuekin lotutako neurriak, arteztarauak eta arauak.

Esparru horiek berriazko antolamendu-dokumenturik ez duten artean, ibaiibilguaren mugarekiko 50 metroko atzerapena, gutxienez, errespetatuko da lehenetsuneko interes naturalistikoko eremu batzuetan kokatutako landaesparruko ertzetan. Lur naturala aldatzen duen esku-hartze orotan aplikatuko da atzerapen hori (edozein motatako eraikinetan, instalaziotan edo eraikuntzatan, finkoetan zein desmuntagarrietan; lur-berdintzeetan; lur-higiduretan, eta abar). Salbuespenak izango dira herri-lanei eta azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo behar bezala justifikatutako kultura-ondarea babesteko ekintzei dagozkienak.

Erabilerei dagokienez lehenengo kasuko banaketa erabiltzen da ere, baina erabilera debekatuen zerrendan erauzpen jarduerak, zerbitzu-instalazio ez linealak eta hondakin solidoen zabortegi eta hondakindegia guztiak sartzen dira.

- Ondo kontserbatutako landaredia duten ertzetarako landa-esparruko ertzetan, urbazterreko landarediaren kanpoko ertzearekiko 10 metroko gutxienezko atzerapena errespetatuko da lur naturala aldatzen duen esku-hartze orotan, edozein motatako eraikinetan, instalaziotan edo eraikuntzatan, finkoetan zein desmuntagarrietan; lur-berdintzeetan; lur-higiduretan, eta abar. Salbuespenak izango dira herri-lanei eta estrategikotasuna azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo behar bezala justifikatutako kultura-ondarea babesteko ekintzei dagozkienak.

Erabileren araudia d) puntu honetako lehenengo paragrafoan azaltzen dena izango da, doikuntza bakarra egiten delarik: Ur-bazterreko landarediko zuhaitzak eta zuhaixkak mozteko, berriazko araudi sektorialak aurreikusten duen erregimenari jarraituko zaio.

- Higadura, irristatze edota akuiferoen urrakortasun arloko arriskua duten zonetako ertzeetan landaredi-estaldurari utsiko zaio irizpide orokor gisa, kaltetuta dagoenean landaredia hobetzea edo ezartzea ere hartuko da aintzat.

Erabileren araudia d) puntu honetako lehenengo paragrafoan azaltzen dena izango da, debekatutako erabileren zerrendan honako hauek sartzen direlarik: lurpeko akuiferoetako urak polui ditzaketen edozein izaeratako isurketak (solidoak edo likidoak), hondakin solidoen zabortegiak eta hondakindegia guztiak.,

- Leheneratzeko premia duten ertzetarako ingurumena hobetzeko jarduerak sustatuko dira, eta ibilguaren morfologia naturala leheneratzeko eta ur-bazterretako edo paduretako landaredia berrezartzeko esku-hartzeak bideratuko dira.

Erabileren araudia d) puntu honetako lehenengo paragrafoan azaltzen dena izango da.

c) Osagai hidraulikoaren araberako berriazko araudia

- Landa eremuetako ur ibilguetan, lurralde antolaketako estrategia nagusia, ibilgu horiek naturaren eta ekologiaren arloan zaintzea izango da; eta ondorioz, urak har ditzakeen ibai bazterrek morfologikoki zaintzea, betiere lehenetsuneko fluxu-eremua libre uzteari lehenetsuna emanez eta, urak har ditzakeen gainerako ibai bazterretan dauden hirigintza ezarpen bakanak babesten saiatuz, halakorik denean. Gainera, ahal bada behintzat, ibai ibilguetan eta urak har ditzakeen zabaldietan ez da okupazio berririk egingo, ezta hirigintza baldintzak aldatuko ere. Hala eta guztiz ere, hiriguneetako zeharbide gisa eratuak dauden ibai-zatietan, lurralde antolaketako estrategia, honako guztiak bateragarri egitera bideratu behar da: ibilguetako lehenetsuneko fluxu-eremuak geroz eta libreago uztea, hiri asentamenduek dituzten baina urak har ditzakeen zonak babesteko jarduerak burutzea poliki-poliki, eta ur ibilguak hiriguneetan drainatzeko baldintza orokorrak hobetzea.

- Oro har, ez da garajerik edota sotorik egingo urpean gera daitezkeen eremuetan. Saihestu egingo dira lurzoruko edo kale-arrasetik beherako kotan dauden egoitza, industria edo merkataritza erabilerrak

- Lehenetsuneko fluxu-eremuak hirigintzako erabilera intentsibo, eraikuntza-okupazio eta egitura-barneko elementuetatik babestu egingo dira.

Lehenetsuneko fluxu-eremuan dauden hiri-bilbeko eraikietan eraberritze-lanak ahalbideratuko dira, hirugarrenei uholde-arriskua areagotzen ez badiete (500 urteko birgertatze-aldiko zonetan ur-lamina ezingo da 10 cm baino

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

gehiago igo), Ageriko bideraezintasunik ezean, lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo geratuko da eremu berria, eta eremuko urbanizazioak 100 urteko eta ahal dela 500 urteko birgertatze-aldia baino uholde-kota maila altuagoa izango du. Ageriko bideraezintasunik sortuz gero, bizitegi-erabilerarik izatekotan, 500 urteko birgertatze-aldiaren uholde-kotaren gainetik kokatuko dira.

Lehentasunezko fluxu-eremuan sartuta dauden eta urpean gera daitezkeen lurzoruen erabilera erregimen orokorra honakoa izango da:

Baimendutako erabilerak: nekazaritzako lurrak, larreak, baratzezaintza, mahasgintza, soropilak, basogintza, aire libreko mintegiak eta baso-landaketak, ukuiluratu gabeko abeltzaintza erabilera, Laket-erabilerak, publikoak eta pribatuak: parkeak eta lorategiak, golf zelaiak, kirol pistak, atsedentokiak, igeriketarakoak, ehizarako natur erreserbak, ehiza edo arrantzako barrutiak, txango edo ekitazio zirkuituak (aparkalekuak kenduta), ibaiertzeko ekosistemaren kontserbazioa, gaitasun hidraulikoarena, drainatze iraunkorra, zaintza eta salbamendu jarduerak.

Debekatutako erabilerak: bizitegi erabilera berriak, kanpaldiak barne, eraikin berriak, erabilera edozein dela ere, lehendik dauden eraikinen okupazioaren handitzea edota eraikinen erabilera aldatzea, horrek uholde kasuan kalteak jasateko arriskua areagotzen duenean, argiak ez diren berotegiak, itxiturak eta hesiak, hala nola edozein motatako fabrikako murriz egindako itxiturak, mota guztietako betelanak, edozein motatako hondakin-materialen metaketak, are gehiago hustubidearen sekzioa nabarmen murrizten dutenean, Jabari Publiko Hidraulikoa kutsatzea edo andeatzea ekar dezaketenean, ikastetxeak edo osasun zentroak, zaharren edo urritu fisiko edo psikikoen etxeak, suhiltzaile parkeak, babes zibileko zerbitzuen instalazioak, gasolindegia, abeletxeak eta animalia haztegia, ibaiaren paralelismoa helburu izanik diseinatzen diren azpiegitura linealak, saneamendu- edo hornidura-instalazio edo lurpeko kanalizazioak salbu, beste aukerarik ez dagoenean, Ibilgailuen aparkalekuak, gainazalekoak izan ezik, husteko ahalmena ez badute kaltetzen eta uholde kasurako abisu-sistema eta ibilgailuak kentzeko sistema badu.

lehentasunezko fluxu-eremuan hirigintzako aprobetxamendu berriak onartu ahal izango dira urbanizatu egoeran dauden lurzoruetan, baldin eta ondoko balizko hauetakoren bat bada:

1. Alde batean edo bietan eraikuntza finkatuko mehelinak dauzkaten orubeak, edota lehendik dagoen lurzoru urbanizatuaren barnean erabat sartutako orube isolatuak.

2. Eraikuntza zaharkituko hiri eremuak, horietan erabateko hiri birmoldaketa gara daitekeenean, erabilera aldatuta edo aldatzeke, eta birmoldaketa horren bidez lor badaiteke urpean geratzeko arriskuaren aurreko baldintzak hobetzea, bai oztopo hidraulikoak kenduz, ibai ibilgua handituz edota inguruko drainatze baldintzak oro har optimizatuz; birmoldaketa lan horien bidez bermatu egin beharko da ez dela nabarmen areagotuko (ur-laminaren igoera 10 cm-tik gorakoa izatea 500 urteko errepika-denborako uholdearen kasuan) inguruak urpean geratzeko duen arriskua.

Kasu bi horietako edozeinetan, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko 9. artikuluan (urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretua) ezarritakoarekin bateragarriak diren moduan aplikatu ahal izango dira soilik salbuespen horiek.

- 100 urteko errepika denboran uholdeek har ditzaketen eta lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo dauden eremuetan ez da onartuko eraikuntza eta hirigintza erabilera berririk, ez azpiegitura-elementu puntualik, ez arroarekiko paraleloan egongo den azpiegitura linealik, ezta horiek ahalbidetzeko luraren morfologia aldatzeko jarduerarik ere (bideratze-lanak, betelanak, etab.), non eta ez diren Plan honen aurretik lurzoru hiritar edo hiritargarrizat sailkatutako lurzoruak edota dagokion LPPn programatutako lurralde mailako hirigintzako garapen berriak.

Eraikuntza garapen berriek xehetasunezko ingurune azterketa hidrauliko bat beharko dute, jarduera hori egingarri bihurtuko duten neurri zuzentzaileak zehazteko eta justifikatzeko. Edonola ere, neurri horiek onargarriak izan beharko dute ingurumenaren aldetik, eta ez dute inguruan lehendik dagoen urpean geratzeko arriskua areagotu behar. Irizpide orokor gisa, eraikin berriak 500 urteko errepika-denborako uholdea iritsiko ez den kota batean egin beharko dira. Uholdeek har ditzaketen eremuetan, ospitaleak, suhiltzaile-parkeak, segurtasun publikoa edo larrialdietarako depositoen moduko ezinbesteko azpiegitura publikoak ezartzea ekidingo da, horietan uholde handien larrialdi-egoeratarako sarrera bermatu behar baita.

Oro har, eremu hauetan lehendik dauden eraikin eta erabilerak mantenduko dira, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, uholde arriskuaren gainean jardun ahal izatearren. Azterketa hidraulikoak egingo dira ibai-tarte garrantzitsuetan. Oztopo hidraulikoen ondorioak kentzea edo murriztea, ibilguetako drainatze-sekzioak

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

handitzea, ertzetan zehar defentsa-obrak jartzeko dauden aukerak jorratzea edo, azkenik, eraikinak zona seguruagoetara aldatzeko lanen kudeaketa egiteko aukerak egongo dira. Eremu hauetan hirigintzako garapen berriak baimendu ahal izango dira, baina komeni da urbanizazioa eta kalte handienak izan ditzaketan erabilerak 100 urteko errepika-denborako uholdearen kotatik gora egitea, gutxienez, edo, ahal delarik, 500 urteko errepika-denborako uholdearenetik gora.

- 100 eta 500 urte bitarteko errepika-denborako uholdeek har ditzaketan eremuetan, batez ere dagoeneko urbanizatuta dauden edota garatze fasean dauden eremuetan edota, plan partzialak zehazten duenetan, hirigintzako jarduera berriak edo azpiegitura linealak ahalbidetu ahal izango ondoko baldintza hauek betez gero: saihestu egingo da kalteak eduki ditzakeen zerbitzu edo ekipamendurik edota funtsezko azpiegitura publikorik jartzea, dena den, puntualki onartu ahal izango dira 500 urteko errepika-denborako uholdeari dagokion ur-laminaren kotatik gora eta uholde handietan iristeko modua bermatuta dagoenean; hirigintzako garapena edota azpiegiturak egitea baimendu ahal izango da, urak hartzerik ez duen kotan ahal dela, eta ezin bada, jarduerari neurri zuzentzaile isolatuak ezarriko zaizkie, zeinen helburua pertsona eta ondasunen gaineko kalteak minimizatzea izango da. Neurri zuzentzaileen proiektuak justifikatzeko, ingurune azterketa hidrauliko zehatz bat eskatu ahal izango da; neurri zuzentzaileak justifikatuko dituena. Neurri horiek onargarriak izan beharko dute ingurumenaren aldetik, eta ez dute inguruan lehendik dagoen urpean geratzeko arriskua areagotu behar.

d) Jarduera hidraulikoen berarizko araudia

Irizpide orokor gisa, ez da estaldurarik baimenduko  $0,5 \text{ km}^2$ -tik gorako drainatze-arroa duten ibai-tarteetan. txikiagotan ere saihestuko dira, zeharo ezinbestekoa den kasuetan izan ezik; justifikatu beharko delarik.

$1 \text{ km}^2$ -rainoko arroko ibilguak estaltzea baimendu ahal izango da, azpiegitura estrategikoen kasuan eta urbanizazio intentsitate handiko eremuetako arro-buruen kasu berezian, justifikatuta. sekzioa bisitagarria izango da,  $2 \times 2 \text{ m}$  gutxienez. Lehendik dauden galeriak kentzeko aukera aztertuko da, ahal den guztietan, estaldura horien ordezkari zabaleko ibilguak lagako dira.  $5 \text{ km}^2$ -tik gorako drainatze-arroetan lehentasuna izango da. Finkatutako hiri-garapen handitan,  $5 \text{ km}^2$ -tik beherako drainatze-arroen kasuan, behar bezala dimentsionatuko dira egun dauden estaldurak.

Oro har, galarazita dago  $1 \text{ km}^2$ -tik gorako isurtze-arroa duten ur ibilguak aldatzea, ez bada hiri eremuetako uholde arriskua murrizteko, edo ibilguaren naturaltasuna areagotzeko, administrazio hidraulikoaren baimenez.

Urbanizazio prozesuetan edo ibarrak bete eta berdintzeko jardueretan,  $1 \text{ km}^2$ -tik beherako isurtze-arroko ibai ibilguei eragiten badiete eta ibilguaren trazadura errekifikatzea planteatzen bada, alternatiba hidraulikoei buruzko azterketa bat beharko da, hori justifikatzeko, eta baita ingurumenaren gaineko eraginak zuzentzeko azterketa.

Salbuespen gisa,  $2 \text{ km}^2$ -rainoko ur ibilguak aldatu ahal izango dira azpiegitura estrategikoak eta eskualde mailako hirigintzako jarduerak egiteko Lurralde Plan Partzialean horrela definituta badaude. Alternatiba azterketa bat egitea eskatu ahal izango da, jarduera justifikatzeko eta ingurumen afekzioak eta arlo hidraulikoari eta urbanistikoari lotuak ebaluatzen eta beharrezko prebentzio, zuzentze eta konpentsazio neurriak hartzeko.

Ibilgu ertzak tratatzeko hiri-garapen berri baten eremuan, ingeniari naturalistikoko konponbide bigunak jorratzea proposatzen da, uholdeen prebentzioa eta ibaiertzeko landaretzaren kontserbazioa bateragarri eginez, ibaien funtzionalitate ekologikoa bultzatzeko. Zona horietan, ibilgu bikoitzeko formulak erabiltzea komeni da.

e) Dreinatze araudia zoru urbanizagarrietan

Hiri-garapen eta azpiegitura linealek, moztuzko arroetako drainatzean aldatzeak eragin baditzakete, drainatze iraunkorrerako sistemak sartu beharko dituzte, aurreko egoerarekin alderaturik gerta daitezkeen jariatze-igoera konpentsatu ahal izateko.

Komunikabideetako zeharkako drainatzeetan ezin zaio ibar bati erantsi arro propioaren azaleraren % 10 baino handiagoko isurtze-eremurik. Baldintza hori bete ezean, handitu egin beharko da ibar hartzaileko ibilguak duen huste ahalmena, 500 urteko errepika-denborako maila handitu ez dadin.

$5 \text{ km}^2$ -tik beherako isurtze-arroen buruetako plangintza edo hirigintzako okupazio berriko prozesuetan azterketa hidraulikoa egitea eskatu ahal izango da, huste ahalmena mantentzeko neurriak har daitezkeen, ekimenetik behera 500 urteko errepika-denborako ur maila igo ez dadin. Azterketa hidrauliko hau eskatuko da, ekimenaren azalera arroko azalera osoaren % 25 behintzat hartzen duenean. Azterketan zehaztutako obrak jaso egin beharko dira hiriritze jarduketaren garapenean, eta jarduketak hori martxan jarri aurretik amaitu beharko dira.

f) Hirigintza osagaiaren araberako berariazko araudia

- Landa esparruko ertzeetan gordeko den atzerapena hau da: 15 metro 1 eta 10 km<sup>2</sup> arteko arro isurlea duten ibai-tarteekiko (0 mailakoak eta Isurketen eta 1 Km<sup>2</sup> baino arro isurle txikiagoa duten ur-ibilguen kasuan (00 mailako ibilguen kasuan), Uren Legean ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

Eraikinetan, instalaziotan edo eraikuntzatan, lur-berdintzeetan; lur-higiduretan, eta abarretan erabiliko dira atzerapenak. Nekazaritzari, baso-lanei, herri-lanei eta azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo kultura-ondarea babesteko ekintzei dagozkienak salbuespenak izango dira. Aurretik dauden baserrietarako eraikin osagarriak eraikitzeko atzerapenak eratutako zerrendetatik kanpo eraiki ezin daitezkeela frogatzen bada, udal-plangintzak eraikuntza hori zein baldintzatan gauzatu ahal izango den ezarri ahal izango du. Haatik, ezin izango da aurretik dagoen eraikina baino gehiago hurbildu ibilgura. Ibilguen aldeetako bakoitzean 100 metroko zabalerako zerrenda batean, lurzoru urbanizaezinaren berezko eraikuntzak, jarduerak eta lurzoruaren erabilerak soilik onartuko dira.

- Lehentasuneko interes naturalistikoko zonetan edo ondo kontserbatutako landaredia duten zonetan kokatutako ertzetan edozein esku-hartzek egungo baldintza naturalak eta ondareaa kontserbatuko direla bermatu beharko da.

Ez da landa-esparruko ibilguen trazadura aldatuko, ezta estaliko, ezta artifizialki errektifikatuko ere. Uholdeak prebenitzeko jardunak edo obra publikoak salbuespenak dira. Kasu horretan, kalten zuzentze-azterlana gaineratu beharko zaio proiektuari. Ingeniaritza «biguneko» irtenbideak garatuko dira eta ur-bazterreko landaredia galtzea, ur-lamina gehiegi zabaltzea eta sakabanatzea eta ibaiaren ohea homogeneizatzea saihestuko da.

Arro-buruetan eta, hala dagokionean, geldoetarako zelaigune edo isurtegiak sortzea ahalbidetzeko, 1 km<sup>2</sup>-tik beherako isurtze-arroetako erreka eta isurketak errektifikatzea onartu ahal izango da, isurtze-arro osoari buruzko azterketa hidrokologikoa eta zuzentze neurrietarako proiektua beharko dira.

Hiri-garapen berriak hartzeko ahalmena duten ertz gisa hartu ahal izango dira landaesparruko ertzak, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri lez sailkatzen diren unetik. Era berean, udal-plangintzak ibilguarekin muga egiten duen esparruren bat landagune gisa kalifikatzen badu, ibilgu horren ertzak esparru garatuetako ertz gisa hartu ahal izango dira.

- Landa-esparruko ertzetarako atzerapenak komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertzetan aplikatuko dira. Komunikazio-sare orokorreko azpiegiturak ezartzearen ondoriozko ingurune naturalaren gaineko eraginak bere egin beharko dira. Azpiegituraren entitateak ikusita, udal-plangintzak arloko planak ezartzen dituen mugak ezabatu ahal izango ditu, legeria sektorialaren bitartez azpiegiturak ezar ditzakeen mugen mesedetan.

Herri-lanek eta komunikazio-sare orokorreko elementuek ibilguekiko bete beharreko atzerapenaren irizpideak: Uren Legean ezartzen den 5 metroko eta Kosta Legean 6 metroko zortasunzerrendari eustea, salbuespenezko ezintasuna salbu, interes naturaleko elementuak eta ur-bazterreko landaredia kontserbatzea, bereziki justifikatutako ezintasuna salbu.

g) Esparru garatuetako eta hiri-garapen berriak hartzeko ahalmena duten ertzetarako berariazko araudia

Ez du Alkizan eraginik.

h) Araudi osagarria

Ibilgu bakoitzean Jabari Publiko Hidraulikoaren Muga Lerroaren mugatze takimetrokoa ez dagoen bitartean, administrazio hidraulikoak definituko ditu, antolamenduaren erredakzio prozesuetan, ohiko uraldien goreneko lerroak, hain zuzen plan honek ezartzen dituen atzerapenak horietatik abiatuta aplikatzearen.

Ibai-tarteen banaketaren eta ingurumenaren edo hirigintzaren arloko zonen banaketaren artean bat-etortzeak gerta daitezke. Hori dela eta, ibilguekiko atzerapenen distantzien erregulazioan bat-bateko jauziak ager daitezke. Jauzi horiek ebazteko, ibaiaren zabalera baino handiagoa izango ez den ibaiaren luzeran arautuko diren distantzien artean trantsizio-tarteak antolatzea onartuko da.

l) Dokumentuan azterketa hidraulikoak egiteko irizpide teknikoak jasotzen dira ere

Lehentasunezko fluxu-eremua definitzen da. Hauek dira: baldintza hidrauliko hauetako bat edo gehiago betetzen dituzten eremuak: Sakonera 1 m-tik gorakoa izatea. Abiadura 1 m/s baino handiagoa izatea. Bi aldagai horien biderkadura 0,5 m<sup>2</sup>/s baino gehiago izatea.

#### **1.3.4. EAE-KO NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA**

LPS honek garatu eta xehatu egiten ditu LAGetako atal hauei dagozkien irizpideak: Ingurune Fisikoaren Antolamendua kapituluko «5.2. Ingurune Fisikoko Elementuen eta Prozesuen Gidalerro Orokorrak» eta «6.8. Ingurune Fisikoa Antolatzeko Kategoriak».

Sektoreei dagokienez, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak nekazaritzako eta basozaintzako erabilerak arautzen ditu; hala ere, nekazaritza eta basozaintzarako balio handiagoa duten lurren biziraupena arriskuan jartzen duten beste erabilera batzuetarako zuhurtzia ere ezar dezake.

Europako Natura 2000 ekologia-sarea osatzen duten eremuak antolatzeko, ingurumen-araudira edo natura-inguruneari buruzkora jo beharko da.

##### **a) Beste LPS-ekin eta beste motako planekin koordinatzea**

- LPS guztiak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSarekin koordinatuko dira Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legearen 16. artikuluan adierazitako moduan;

- Ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LPSak ezarritako antolamendua Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren antolakuntzaren gainetik egongo da.

- Kontraesana badago EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko antolamendu-arauetan, edo antolamendu-arauen eta lurralde-planean jasotako planoen artean zortasun aeronautikoek ezarritako mugek edo baldintzek lehentasuna izango dute plangintzan jasotako beste edozein neurriren aurretik.

##### **b) LPS-aren aplikazioa**

Udal-plangintzak lurzoru ez-urbanizagarria LPS-ak ezarritako kategoriatan sailkatuko du. LPS-ko kategoria horien mugaketa erabili beharko du.

Balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintza nahiz landazabal gisa kalifikatutako esparruetan, udal-plangintzak ezingo du ahalbidetu aurrez sortutako guneeetan oinarrituta ez dagoen hazkunderik, LPParen berariazko definizioa izan ezean.

Udal-plangintza, idazteko eta onartzeko izapideetan, nekazaritza-sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa erabiliko da, LPS honetako «Jardun-tresnak» I. eranskinen D dokumentuaren arabera.


Balio Estrategiko Handia azpikategoriaren mugaketa loteslea izango da. Gainerako mugaketak orientagarriak dira, eta udal-plangintzak ongi arrazoituta aldatu ahal izango ditu.

Onura publikoko mendien eta mendi babesleen mugaketa loteslea izango da, eta haien legeria sektorialean jasotako moduan eta prozeduren arabera soilik aldatu ahal izango da.

##### **c) Erabilerak, antolamenduko kategoriak eta zonifikazioa**

Hau da LPS-ak Alkizan egiten duen zonifikazioa:

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
 BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**



**ANTOLAMENDU KATEGORIAK / CATEGORIAS DE ORDENACION**

- Nekazaritza-abeltzaintza eremua / Agroganadera y campiña  
 Balio Estrategiko Altua / Alto Valor Estratégico  
 Trantsiziozko Landa Paisaia / Paisaje Rural de Transición

**Mendia / Monte**

- Basoa / Forestal  
 Basoa-Mendi Urria / Forestal-Monte Ralo  
 Larre Menditarra / Pasto Montano  
 Larre Menditarra-Harkaitzak / Pasto Montano-Roquedos

- Ingurumen Hobekuntza / Mejora Ambiental

**BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK / CONDICIONANTES SUPERPUESTOS**

- Higadura jasatzeko arriskua duten tokiak / Areas erosionables  
 Akuiferoen zaugarritasuna / Vulnerabilidad de acuíferos  
 Interes Naturaleko tokiak / Areas de Interes Naturalístico  
 Natura 2000 sarearen barne dauden tokiak. Lugares incluidos en la Red Natura 2000.  
 Onura Publikoko Mendiak / Montes de Utilidad Pública  
 Pasabide ekologikoak / Corredores ecológicos

**INFORMAZIO GEHIGARRIA / INFORMACION ADICIONAL**

- Etxe-lurra, industrial, ekipamendua eta azpiegiturako lurzorua. UdalPlan 2013  
 Suelo residencial, industrial, de equipamiento e infraestructuras. UdalPlan 2013  
 Zabalgunen sistema orokorra / Sistema general de espacios libres. Udalplan 2013  
 Ibai eta urtegiak / Ríos y embalses  
 Itsaslabarrak, hondartzak eta portuak / Acantilados, playas y puertos.  
 Harrobi eta zabortegiak / Canteras y vertederos  
 EAEko Itsasen LAPek antolatutako esparrua  
 Ambito ordenado por el PTS del litoral de la CAPV  
 Parke Naturalak, Biotopoak eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserba  
 Parques Naturales, Biotopos y Reserva de la Biosfera de Urdaibai.  
 EAEko Hezeguneeen LAPek antolatutako esparrua  
 Ambito ordenado por el PTS de Zonas Húmedas de la CAPV  
 N.B.A.P.aren idazketa agindua emana duten Parke Naturalak eta Biotopoak.  
 Parques Naturales y Biotopos con Orden de inicio de redacción del P.O.R.N.  
 Eskualde-Egituraren muga / Límite Area Funcional  
 Itsaso eta lehorraren arteko jabego publikoaren mugaketaren lerroa  
 Línea de deslinde del dominio público marítimo-terrestre  
 Itsaso eta lehorraren arteko jabego publikoaren babes-zorguneko lerroa  
 Línea de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre

Erabileren eta antolamendu kategorien matriza:

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
**BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA**  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

ERABILERAK	ANTOLAMENDU-KATEGORIAK										GAINAZALEKO UREN BABESA	
	NEKAZARITZAKOAH NAHIZ ABELTZAINZAKOAH ETA LANDAZABALEKOA		MENDIA					INGURUMENAREN HOBEEKUNTZA	GAINAZALEKO UREN BABESA			
	Estrategikoa	Trantsizioko Paisaia	Basoa - Mendi Barbana	Basoa	Mendi Larreak	Mendi Larreak - Harkaitzak						
<b>INGURUMENAREN BABESA</b>												
Ingurumenaren hobekuntza	2	2	1	2	2	2	2	2	2	2	1*	1
<b>AISIA</b>												
Aisia estentsiboa	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	-
Aisia intentsiboko eremuen egokitzapena eta erabilera	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	-
Aisia intentsiboari lotutako eraikinak eta instalazio handiak	2a**	3a**	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	3a	-
Ehiza- eta arrantza-jarduerak	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
<b>LEHEN MAILAKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA</b>												
Nekazaritzako praktikak	1	1*	2*	2a*	2a*	2a*	2a*	2a*	2a*	2a*	3	2*
Nekazaritzako ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	2a	2a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3	3
Abeltzaintzako praktikak	2	2	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*
Abeltzaintza-ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	2a*	2a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3a*	3	3
Basozaintzako praktikak	2a*	2*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	2*
Basozaintzako ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	3a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	3	3
Nekazaritzako industriak	2a**	3a**	3a	3a	3a	3a	3a	3a	3a	3a	3	3
Erauzteko jarduerak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>AZPIEGITURAK</b>												
Garrabideak <sup>1</sup>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Landa-bideak eta pistak	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a*	2a*	2a*	2a	-
Aireko lineak	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	3a	3a	3a	2a	-
Lurpeko lineak	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	3a	3a	3a	2a	-
A motako zerbitzuetako instalazio teknikoak	2a**	3a**	2a	2a	2a	2a	2a	3a	3a	3a	3	-
B motako zerbitzuetako instalazio teknikoak	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	-
Obra-hondakindegia eta hondakin solidoen zabortegiak	3a	2a	2a	2a	2a	2a	2a	3	3	3	2a	-
<b>ERAKUNTZA-ERABILERAK</b>												
Aurretik zeuden guneetan oinarritutako hazkundeak	2b	2b	2b	2b	2b	2b	2b	2b	2b	2b	2b	-
Aurretik zeuden guneetan oinarritu gabeko hazkundeak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	-
Onura publikoko edo gizarte-intereseko eraikinak	2a**	3a**	2a	2a	2a	2a	2a	3a	3a	3a	2a	-
Ustiapenari lotutako egoitza isolatua	2a*	2a*	3a	3a	3a	3a	3a	3a	3a	3a	3	3
Ustiapenari lotuta ez dagoen egoitza isolatua	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	-
Instalazio arriskutsuak	2a**	3a**	2a	2a	2a	2a	2a	3	3	3	2a	-

\* : LPS honetan zehaztasunak dituzten edo foru-antolamenduak zehaztu beharreko nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak

\*\* : Balio Estrategiko Handia kategorian, Arabako Erdialdeko eta Guardiako eremu funtzionaletan (2a) EAEko gainerako lekuetan (3a) dutena ez bezalako araubidea dute nekazaritza eta basozaintzako erabilerak.

- : Plangintzako beste agiri batzuetan arautu beharreko erabilerak

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Hau da taulako zenbakien esanahia:

2a Onargarria: Nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egingo da, eta neurri zuzentzaileak jasoko dira sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan

2b Udal-plangintzak planteatzen badu lehenagotik badauden gune batzuk oinarri hartuta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabala – Balio Estrategiko Handia, Trantsizioko Landa Paisaia, Basoa - Mendi Barbana, Basoa edo Ingurumen Hobekuntza kategoriakoa den eremu batean haztea, hura LPPko lehentasunezko interes-guneetan egon gabe, nekazaritza-ingurune inaktuaren balioztatze espezifikoak jasoko du plangintzak aukeren azterketan

3a Erabilera ez da egokia antolamendu-kategoria horretan. Salbuespen gisa, onargarria izango da, nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. Txosten horrek berriaz hartu behar du aintzat nekazaritza- eta basozaintza-jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak biltzea sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan.

- Erabileren definizioa eta izaera.

Ingurumenaren hobekuntzan jardura hauek sartzen dira: natura-landaretza leheneratzea; aukerako ebaketak; artzaintza kontrolatua; garbiketak; landaretza aukeran kentzea; izurrien eta gaixotasunen tratamendua; birsortzeko itxurak; ezpondak birmoldatzea, ezpondak ekologia eta paisaia hobetzeko prozesuen alde egiten badira; ereite hidraulikoak; aukerako ebaketak; eta abar.

Aisia estentsiboan oinezkoen txangoak eta paisaia ikustea. Horretarako azpiegitura eta egokitzapen txiki batzuk baino ez dira behar, adibidez obra txikiak (erreken gaineko pasabideak, bideetan balizak jartzea, behatokiak, eta abar). Oro har, eraikuntza-garapenak eta bide-sarearen instalazioak baztertzen dira.

Aisia intentsiboan bi tipologia daude: lehenengoa, jolas-eremuen egokitzapena eta erabilera; tamaina txikiko azpiegitura iraunkorrak egon daitezkeelarik, aparkaleku txikiak, mahaiak, eserlekuak, barbakoak, iturriak, osasun-zerbitzuak, haurrentzako jolasguneak, paperontziak, eta abar., eta bigarrena, eraikinak edo instalazio handiak egitea behar duten jarduerak, kanpinak, golf-zelaiak, ibilgailu motordunetarako zirkuituak, eta abar.

Nekazaritza erabileratzat, beste ohikoen artean, lurzoruaren nibelazioak, zapaldak, egitea hartzen da.

Abeltzaintza LPS-ak definitzekoan ez dago ezer berezirik.

Baso zaintza. Erabilerari egiten zaion definizioan ustiatzearekin zerikusia duena soilik hartzen da kontutan.

Nekazaritzako industriak. Lehen transformazioko nekazaritza-elikagaien arloko edo basozaintzako industriak, zenbait arrazoiengatik (funtzioa, tamaina, jatorriaren edo zona-ekoizpen batekiko lotura, osasuna, eta abar) landa-lurzoruan ezarri behar badira, eta nekazaritza-ustia gune baten erabilera lagungarritzat jotzen ez badira. Hauek dira: lehenengo transformazioko nekazaritzako elikagaien industriak, lehen transformazioko basozaintzako industriak, zura zerratzea eta leuntzea, zuraren inpregnazio edo tratamendu kimikoa, ea..

Erauzketa jarduerak. Ohikoak sartzen dira.

Garraiobideen, landa-bideen, azpegituren eta hondakindegien definizioak ohikoak dira.

Hirigintza hazkundeak. Bereizten dira lehendik dauden herriguneetan oinarrituto hazkundeak eta horietan oinarritzen ez diren hazkundeak. Landa-guneak 2/2006 Legearen 29.5 artikuluzatiaren arabera definitzen dira.

Erabilera publikoko edo gizarte intereseko eraikin eta instalazioak. Zoologikoak sartzen dira lada-lurrean kokatu beharra justifikatzen bada. Sartzen dira ere: Ekipamendu soziokulturalak, museoak, interpretaziozentroak, bisitariak hartzeko guneak, informazioa ematekoak, e.a., jolas-parkeak eta jolaserako helburua duten bestelako eraikuntzak, tertziarioa, ostalaritza, turismo-ostatuak eta aterpetxeak, osasun-ekipamenduak, ospitalak, bainuetxeak e.a., erlijio-ekipamenduak, elizak, ermitak e.a., zerbitzu publikoetako ekipamenduak oro har, eta aisialdiko ortuak.

Etxebizitza isolatuak eta Industria eta biltegitratze arriskutsuak. Ohiko definizioak.

- Antolamendu-kategoriak:

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

**GOIKATEGORIA**

**KATEGORIA**

**AZPIKATEGORIA**

MENDIA

NEKAZARITZA ETA  
ABELTZAINZAKO ETA  
LANDAZABALAKO

BALIO ESTRATEGIKO HANDIA  
TRANSIZIOKO LANDA-PAISAIA

BASOGINTZA  
BASOGINTZA - MENDI BARDANA  
MENDI LARREAK  
MENDI LARREAK - HARKAITZAK  
INGURUMENAREN HOBKUNTZA  
LURRAZALEKO URAK  
BABESTE

Gertaera baten (naturala edo eragindakoa) ondorioz lursail bat kategoriatan jakin batean sailkatu ahal izateko baldintzak aldatzen badira, gertaera hori ez da arrazoi nahikoa izango kategoriatan hori aldatzeko. Aitzitik, jatorrizko baldintzak bere onera ekartzeko neurri egokiak hartu beharko dira.

- Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoriako irizpide orokorra. Zona horietan, lurzoruen gaitasun agrologikoa mantenduko da. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta haiekin osagarri diren eta nekazaritza-paisaiak eta ekosistemak zaintzen direla bermatzen duten gainerako erabilerak mantenduko dira. Arau orokorra nekazaritzako azalera erabilgarria mantentzea izango da. Arreta berezia jarri behar da balio handiko lurzoruek okupatzeko joera duten eraikuntza prozesuak eta azpiegiturak finkatzeko prozesuak kontrolatzean.

- Mendia goikategoriako irizpide orokorra. Oro har, Mendia goikategoria hau arautzen duten irizpideak Basozaintzako Plan Estrategikoa dokumentuan (1994-2030) azaltzen dira. Zona hauetan egiten diren nekazaritza- eta basozaintza-erabilerak eta aprobetxamenduek Mendiei buruzko foru-arauak kontutan eduki behar dituzte. Oinarrizko irizpidea mendiko baliabideak modu osagarrian eta zehaztugabeen antolatzea da. Basoen ekoizpen jasangarria eta abeltzaintza erabileraren iraupena ziurtatu behar dira. Funtzio aniztasuna baloratu behar da. Basozaintza-erabilerak lehentasuna izan behar du Basoa kategoriako eremuetan, horien potentzialtasuna, bai produktibitateari dagokionez eta bai ingurumenaren babesari dagokionez, handiena delako. Zona horietan, baso-masak hobetzeko inbertsioak areagotuko dira, bide-sarea sortzen, suteen aurkako neurriak hartuz.

Oro har, finkatutako baso autoktonoak dauden eremuetan, natura kontserbatzeko irizpideak aplikatuko dira, nahitaez masa horiek balioztatzearen kontrakoak izan behar ez direnak.

Basoa - Mendi Barbana kategorian, aplikatu beharreko irizpideak ezberdinak izango dira une bakoitzean, eta zona bakoitzeko erabileraren arabera. Erabilera txandakakoa izan daiteke. Zuhaitzik gabeko eremu handietan, basozaintzako erabilera sustatuko da, abeltzaintzarekin era bateragarrian. Narriatutako inguruetan, Ingurumen Hobekuntza eta Baso Antolaketa sustatuko dira, bertako baso-estalkia berreskuratzeko. Kasu bakoitzeko xedearen arabera, hostozabalak landatuko dira (tarteko fase gisa txanda ertaineko koniferoak aldatu ahal izango delarik), eta entresakak, inausketak, kontrolatutako artzaintza, eta abar. , egingo dira.

Mendi-larreen kategorian abereen urtaroko belardien erabilera mantentzea da helburua. Artzaintzaren jasangarritasuna bermatu behar da, eremuok babesteko eraginkorrena den aldetik. Izan ere, larreen ekoizpen-balioaz gain, kultura- eta paisaia-balio garrantzitsuak kontuan izan behar dira.

Mendi Larreak - Harkaitzak kategorian dauden zonak balio handiko flora eta fauna dauzkaten habitatak izan ohi dira. Zona horietan kautelazko neurriak hartuko dira, haien balio ekologikoan eragina izan dezakeen edozein inpaktutatik babesteko.

- Degradatutako eremuak, lurzoru urrikoak edo gaur egun higadura handia dutenak dira. Haietan, ekosistema hobetzeko eta leheneratzeko lanak egin behar dira. Kasuz-kasuko oriektuak egingo dira, zeinetan espezie autoktonoen erabilera sustatuko da, hazien jatorria eta genetika bermatuko da, lurrazen arabera espezieak aukeratuko dira, e.a..

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Azpikategoria honetan, harrobiak ere sartzen dira, martxan daudenak eta utziak. Flora aloktono inbaditzaileko espezieek okupatutako lur-eremuak sartzen dira ere, lurrak nekazaritzarako edo basozaintzarako baliagarria izateari utzi badio, erauzte-lanak egiten ez diren bitartean.

Udal-plangintzak inbaditutako eremuak zedarritu ahal izango ditu espezie inbaditzaileak desagerrarazteko.

Ingurumena hobetzeko kategoriaren barruan dauden zonen kudeaketa modu integralean egin behar da, leheneratze-helburua lortzeko.

d) Gainjarritako baldintzak

Gainjarritako baldintzen sistematizazio orokorra hauxe da:

- 1.- Akuiferoen kutsadurarekiko eremu kalteberak.
- 2.- Eremu higagarriak.
- 3.- Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.
- 4.- Natura-intereseko eremuak.
- 5.- Korridore ekologikoak.
- 6.- Gutxi aldatu diren paisaiak dituzten eremuak.

- Herri-onurako mendiak eta mendi babesleak. Onura Publikoko Mendiak eta Mendi Babesleak Mendiei buruzko 43/2003 Legean definitzen dira, eta haien arauketa eta kudeaketa aipatu lege horren eta hiru lurralde historikoetako mendiei buruzko foru-arauen bidez egiten da. Mendi horietan baso-masaren egonkortasunera jo behar da, honako hauek kontrolatzeko: higadura, sute-arriskua, elurrak, haizeteek, uholdeek, eta abarrek eragindako kalteak. Aniztasun biologikoaren kontserbazioari egiten dioten ekarpenagatik katalogatutako mendiek babestu edo berrreskuratu beharko dira.

Herri-onurako mendiak eta mendi babesleak udal-plangintzak jaso beharko ditu gainjarritako baldintza gisa. Mendi horiek Babes Berezia kategorian egon ahal izateko LAGetako baldintzak betetzen badituzte, udal-plangintzak kategoria horretan ere jasoko ditu. Azken kasu horretan, arreta berezia jarriko da baliabidearen aprobetxamendu jasagarrian.

- Natura intereseko eremuak. Natura 2000 Sarean txertatu dira, zeinean Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL), Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) sartzten dira. LAGetan natura-intereseko area izendatzen diren eremuak ingurumen aldetik kalteberak diren eremutat jotzen dira. Aplikatu behar den erabilera irizpidea alde aurretik zegoen egoera mantentzea da. Zona aprobetxamendu pean baldin badago, aprobetxamendu horri eutsi behar zaio, erabilitako baliabidearen balio ekologikoak berritatzeko eta kontserbatzen direla bermatuz. Balioak kontserbatzeko eta hobetzeko egiten diren jarduketari lehenetsua ematen zaie.

Eremuak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen diren unean, kontserbazio-neurri zehatz batzuk izango dituzte. Horrela, leku horietan, LPS-an ematen diren gidalerroek izaera iragankorra eta subsidiarioa dute, eta, edonola ere, 92/43/EEE Direktibaren 6.3 eta 6.4 artikuluzatietan xedatutakoaren mende egongo dira.

- Korridore Ekologikoak gainjarritako baldintzaren kartografiak Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzaren «EAEko Korridore Ekologikoen Sarea» izeneko proposamena du oinarri. Zona horiek antolatzeko irizpideak orain dauden oztopoak detektatzea eta sailkatzea eta iragazkor bihurtzea izan beharko luke. Baimendutako erabilerak korridoreen funtzioarekin bat egin beharko lukete.

- Paisaia gutxi eraldatuta duten zonak. Egun, euskal ingurumen-organoa EAEko Paisaia Bikainen eta Berezien Katalogoa egiten ari da. Oraingoan, lan horien garapen-mailak ez du gomendatzen haiek Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-an ezartzea, baina, onartzen direnean, Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-ak automatikoki hartuko du bere gain, kartografia, aldaketarik egin gabe. Hala ere, bitartean, Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-ak beharrezkotzat jo du paisaiaren azterketari heltzeko jarraibideak aurkeztea.

Paisaia-helburua bikoitza da. batetik, paisaian inpaktuak galarazi beharra dago, eta, bestetik, paisaiak berekin gozamen- eta pertzepzio-funtzioa dakar. Hau da, eraikinak egiterakoan, paisaiaren eskala eta izaera kontuan izan behar da. Irizpide orokorra jarduerak, obrak, instalazioak eta eraikuntzak inguruko paisaiari egokitzea da. Edonola ere, eremu horiek lehenetsua izan beharko lukete Europako Batasuneko paisaia kontserbatzeko neurriak aplikatzeko. Neurri horiek Landa Garapenerako Erregelamenduan (Agenda 2000) agertzen dira.

e) Nekazaritzako eraikin berriak

Nekazaritza eta abeltzaintzako nahiz landazabaleko kategorietako balio estrategiko handiko nahiz trantsizioko landa-paisaiako azpikategorietara mugatzen dira. Nekazaritza-gaian eskumena duen foru-sailaren alde aurreko baimena eskatu beharko da, haien titularrak nekazariak direla eta instalazioak indarrean dagoen eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren araberrakoak direla egiaztatzeko.

Lursail hartzailearen gutxieneko azalera laborantzako gutxieneko unitatea izango da, lursaila biztanle-gunean edo horren ondoan egon ezean. Nekazaritzari lotuta dauden eraikuntza txikiagoak (adibidez, siloak, pixor-zuloak, eta abar) eraikin nagusia dagoen lursailaren perimetroaren barruan egon behar dute.

Ez da baimenduko ukitutako finkak banantzea, bereizte horren ondorioz laborantzako gutxieneko unitatea baino azalera txikiagoa duten lursail edo finka berriak sortzen badira, salbu eta dauden beste nekazaritako ustiagune batzuei atxikitzen zaiela bermatzen bada.

Eraikin berriak, bolometriari eta konfigurazio orokorrari dagokienez, EAEko eraikin tradizionalen eraikuntza-tipologietara egokitzen ahalegindu beharko da.

f) Ustiategiari lotutako etxebizitzak

Udal-plangintzari dagokio nekazaritzako ustiaguneari lotutako etxebizitza isolatuak eraikitzea egokia den ala ez xedatzea. Etxebizitza-erabilerako eraikin berriek ustiaguneari lotuta egon beharko dute, ustiagunearen titularraren ohiko etxebizitza izan beharko dute, eta Nekazaritza eta Abeltzaintza - Balio Estrategiko Handia nahiz Trantsizioko Landa Paisaia kategoriako zonetara mugatuta egon beharko dute; ez dira onargarriak izango gainerako lurzoru ez-urbanizagarriari. Gainera, aldundiko nekazaritza-sailak baimendu beharko ditu, lizentzia eman aurretik.

Etxebizitza ohiko etxebizitza moduan erabili beharko da eta ustiategiko titularrak honako eskaera hauek bete beharko ditu: ustiategiak gutxieneko baldintzak betetzen dituela modu autonomoan ekonomikoki bideragarria izateko, Gizarte Segurantzaren erregimen berezian alta emanda egotea, eskaera egin baino gutxienez urtebete lehenagotik, aurkeztutako azken errenta-aitorpenean eskatzailearen sarrerara arrunten % 50 baino gehiago baratzeko edo abeltzaintza-jardueraren ustiapenetik datorrela.

Etxebizitzako eraikin berriak egin ahal izango dira:

Ustiaguneko lurretan etxebizitzarik ez badago.

Baserrian lan egiten duten eta, baserrian bigarren etxebizitza egiteko leku nahikoa ez dagoenean, bertan jarraitzeko asmoa duten seme-alaba jaraunsleek familia berria egiten badute; udal-arkitektoaren aurretiko txostenak bermatuko du kontu hori. Eskritura publikoan egiaztatuko da nekazari gazteak nekazaritzako ustiaguneari jarraitzen duela, honako modalitate juridiko hauen bitartez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Zibilaria buruzko Legea aldatzeko 3/1999 Legeak babestutako oinordetza-ituna.
- Nekazari gazteak ustiagunearen titularkidetasuna eskuratzea, nekazaritzako ustiaguneari modernizatzeke 1995eko uztailaren 4ko 19/1995 Legean xedatutakoarekin bat, aldi berean honako baldintza hauek betetzen badira: titularrak eta nekazari gazteak erabakitzea azken horrek gerentziaren erantzukizuna, ustiapenaren emaitza ekonomikoak, haren kudeaketari loturiko arriskuak eta bertan egiten diren inbertsioak bere gain hartuko dituela 100eko 50eko gutxieneko proportzioan sei (6) urtez gutxienez; titularrak nekazari gazteari eskualdatzea bere jabetzaren herena gutxienez, ustiagunea osatzen duten elementuei dagokienez; haien erabilerak eta aprobetxamenduak ustiaguneari sartuta jarraituko dutelarik.
- Ustiaguneari jabetza osoa edo biziarteko gozamenaren salerosketa edo dohaintza.

Nekazaritza-ustiaguneari ekoizpen-dimentsioa behar adinakoa izango da ustiaguneko etxebizitza guzti-guztietan justifikatzeko (bai eta lehenagoko baserrian daudenetan eta aurreikusitako berrietan ere) gutxienez nekazaritzako lan-unitate bat okupatzen dela eskulanean, eta lortzen den marjina garbia azken hiru urteetako lanbide-arteko gutxieneko soldatari parekoa dela.

Etxebizitzako eraikinak baimentzeko, legezko baldintza izango da ustiategiarekin eduki behar duen loturak indarrean jarraitzea inolako etenik gabe gutxienez hogeita bost urtez. Etxebizitza baimendu ahal izateko erabilitako lursailak, hirigintzari eta erroldari dagokionez, eraikinari lotuta geratuko dira.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Oin berriko eraikinen kasuan, ukuiluak eraikin independente eta bereizi batean egongo dira nahitaez, eta beste nekazaritza- eta/edo abeltzaintza-lokalak ere eraikin independenteetan kokatuko dira lehentasunez, edo, bestela, beheko solairutik goraino doan horma bertikal isolatzaile baten bidez etxebizitzatik bereizita.

g) Abeltzaintzako instalazio intentsiboak

515/2009 Dekretuan arautzen dira berariaz, 165/1999 Dekretuaren arabera jarduteko lizentzia lortzetik salbuetsita dauden abeltzaintzaustiaguneak izan ezean.

Ganadua erabiltzeko uhaskak, askak, eskortak, eta abar, estali gabeak izan behar dute, eta lurrik mugitzea behar ez duten material mugikorak edo erraz desmunta daitezkeenak erabiliz egingo dira. Siloak estankoak izango dira, euriak biltegitatuta dagoena busti ez dezan. Lurzoruek gutxienez % 2ko malda izan beharko dute, siloratzefluidoen geratze oro galarazteko, eta haiek azkar husteko biltegitratze-hodi espezifikoen, edo, horrelakorik egon ezean, pixor-zuloetan.

Udal-plangintzak abeltzaintza-ustiagune berriak jartzea edo egungoak zabaltzea debekatu ahal izango du, pentsatzen bada haietan jarri nahi diren espezieek kalte egin diezaieketela natura-inguruneari eta biodibertsitateari; adibidez, bisoi amerikarrak (*Mustela vison*), koipuak (*Myocastor coipus*) eta Floridako dortokak (*Trachemys scripta*). Babestutako espezieak kudeatzeko planak eta espezie inbaditzaileen legeria sektorialaren zehaztapenak aplikagarriak izango dira: 630/2013 Errege Dekretua, 2013ko abuztuaren 2koa, zeinaren bidez arautzen baita espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa.

h) Hondakin organikoen kontrola

Nekazaritza-jarduerako lizentzia ematean, sortutako hondakinak biltegitratzeko, tratatzeko eta deuseztatzeko sistema bat aurreikusita egotea gomendatzen da.

Hondakin solidoak barruti estali eta iragazgaitzetan gordeko dira, eta lixibiatuak hobi estankora eramango dira. Hondakin solidoak eta likidoak abeltzaintzako ustiategien arau teknikoak, higienikosanitarioak eta ingurumenekoak finkatzen dituen 2009ko irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren arabera jasoko dira.

Pixorra ustiaguneko lurretan ongarri natural gisa zabaltzeko, kontuan izan behar da lurren gehieneko medeagarri edo karga organikoko kapazitate onargarria. Kalteberatzat jotako zonen kasuan honako hauek aplikatuko dira: nekazaritza-eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuan dauden inguruak izendatzeko arauak finkatzen dituen 1998ko abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuan xedatutako irizpideak, eta lehen aipatutako 2009ko irailaren 22ko 515/2009 Dekretuko zehaztapenak.

i) Basoen kudeaketa

Zuhaitzak moztu eta landatzeko baimen eskaerak foru-sail eskudunean aurkeztuko dira. Basozaintzako aprobetxamenduak baimentzeko ingurune naturalean edo dauden azpiegiturretan egin dezaketen kalteak gutxitzeko behar diren neurriak ezarriko dira.

Baso-antolaketaren hiru xede klasikoak lortzen ahalegindu beharko da: masen iraunkortasuna, errendimendu jasangarria eta ahalik eta onura gehien. Basoen kontserbazio-egoera eta produktibitatea hobetzen saiatuko da, beste erabilera batzuen potentzialtasuna eta etorkizunerako baso baliabideak arriskutan jarri gabe.

Baliabide edafikoen eta hidrikoen kontserbazioa bermatuko da. Suaren erabilera, belar-sastraken garbitzea eta lur-mugimenduak ahalik eta gehien mugatuko dira, eta eskuz landatzea, mozteko metodo progresiboak (entresakak, e.a.) sustatuko dira, erabateko mozketaren aurretik. Administrazio eskudunaren baimena behar da. Lurzoruaren egitura mantentzeko ahalik eta galera gutxien edukitzeko beharrezko jarraibideak emango dira.

Baso-bideak % 12tik beherako malda izatea hobesten da, salbuespenak-salbuespen. Urak ateratzeko eta ezpondak finkatzeko mekanismoak jartzen ahaleginduko da.

Ez da baimenduko erabilera aldatzea suaren, ingurumen-kalteen edo legez kontrako mozketen ondorioz basoz gabetutako lurretan.

j) Aisialdiko ortuak

Udaleko planeamendu orokorraren barruan, udalek aisialdiko ortuak ezartzea sustatu ahalko dute, ekimen publikoan edo pribatuan. Erabilera hori kokatzeko, lur erreserba batzuk aurreikusi behar dira, aldi baterako edo modu mugagabeen. Nekazaritza-zerbitzuetarako txabolak badaude, aldi baterako izango dira, eta haien eraikuntza-ezaugarriak dagozkien funtzioen eta ingurunearen arabera.

#### **1.4. INDARREAN DEN PLANGINTZAREN ANALISI ETA DIAGNOSTIKOA**

##### **1.4.1. PLANGINTZAREN BILKAERA**

Alkizako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak 1996ko azaroaren 5ean onartu zituen behin betiko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, eta urte bereko abenduaren 12an argitaratu ziren (GAO 236). Hau da, ia 27 urte igaro dira Alkizako plangintza-dokumentu berri bat egiteko beharra ikusi zenetik.

Arau Subsidiarioek Alkizako garapenerako helburu batzuk ezarri zituen, udalerrak zituen beharrak azalaratzen dituztenak:

Hiri-lurzoruan 7 egikaritze-unitate berri aurreikusi zituen. 26 etxebizitza ahalbideratzeko (horietatik 8 Babes Ofizialekoak). Etxe horiek hilerria doan bidekoak, frontoiaren atzealdekoak eta Asteasutik heltzen den errepideren ondoan zipriztinduta jartzen direna dira. Gero ikusiko dugunez arauen aldaketan bidez etxebizitza berriak 50 izatera iritsi dira.

Beste helburu bat, Lehendik zeuden bizitegi-eraikinak hiri-lurzoru bihurtzeko aukera ematea izan zen; horrela, etxebizitza berriak hartu ahal izango ziren, baldin eta azalera erabilgarria 80m<sup>2</sup>-tik gorakoa bazen.

Plana egiteko Alkizako oinarrizko ekipamenduari nahikoa zela iritziz zitaion, eta kokalekuek behar adina espazio zutela beharrezko handitzeak eta eraldaketak egiteko.

Lur gaineko aparkalekuak handitzea planteatu zen, funtzio hori modu desordenatuan egiten zuen plaza ez baitzen nahikoa. Plaza horiek tratamendurik gabeko hondakin-guneetan lortzea erabaki zen. Horren gain, hilerria eta bere ingurua birmoldatu ziren aparkaleku batzuk lortzeko.

Zerbitzu-azpiegiturak nahikotzat jo ziren, eta horien zati bat lurpean sartu behar zirela erabaki zen.

Landa-lurzorua antolatzea, eta natura-, ekologia- eta paisaia-balioen babesa bermatzeko babes- eta hobekuntza-araudia ematea planteatu zen. Horrekin batera, Ondare historiko, arkitektoniko eta arkeologikoa babesteko araudi orokorra ezartzea onartu zen.

Arau Subsidiario horiek a) motakoak dira, eta aldaketa zehatz batzuk izan dituzte, beren zehaztapenak lurralde-antolamenduak une bakoitzean ezartzen zituen eskakizunetara egokitzeko. Hauek dira aldaketak:

1. Alkizako Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa, UEU.1 Perurena, UEU.2 Marianton, UEU.3 Mariategi, UEU.10 Donmigelena, Administrazio Ekipamenduko Sistema Orokorra, Lurzoru Urbanizaezinaren Araudia eta 1 Sektorea Perualdeari buruzkoa. 2003ko urriaren 27an behin betiko onartu zen, eta 204 zenbakiko GAOn argitaratu. Aldaketaren helburu nagusia babes ofizialeko 22 etxebizitzako bizitegi-sektore bat sortzea izan zen. Horretarako, lurzoru urbanizaezin babestuaren 6.469m<sup>2</sup> inguruko poltsa bat birsailkatu zen, eta etxebizitzak egiteaz gain, lurzoru urbanizaezinean txabolak eraikitzeke aukera eman zen.

2. Alkizako Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa, lurzoru urbanizaezinaren araudiari buruzkoa, 2006ko azaroaren 6an behin betiko onartua (GAO 210). Aldaketa honen xedea lurzoru urbanizaezinari buruzko araudi orokorra onartzea zen, eremu horretan garatzen diren jarduerak arautzeko: eraikuntzakoak, nekazaritza eta abeltzaintzakoak, basokoak, energia elektrikoaren hornidura, etab.

3. Alkizako Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa, bizitegitarako hiri-lurzoruan UEU5.1 egikaritze-unitate berria sortzeko, 2010eko martxoaren 26an behin betiko onartua (57. GAO). Aldaketaren xedea zen hiri-lurzoruan baratzeko partzela bat bizitegirako kalifikatzea.

Aldaketa zehatz horiez gain, hirigintza-dokumentu batzuk izapidetu dira, egungo Arau Subsidiarioetan aurreikusitako garapenekin lotuta. Hona hemen dokumentu horiek:

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
 BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

UEU 7

- Partzelaren xehetasun-azterlana, 1996ko maiatzaren 30ean behin-behinean onartua. Ez dago jasota behin betiko onespeneraren data.
- Urbanizazio-proiektua, 1996ko irailaren 4an behin-behinean onartua. Ez dago jasota behin betiko onespeneraren data. UEU7 erabat gauzatuta dago.

UEU 14

- Konpentsazio-proiektua, 2003ko uztailaren 23an behin betiko onartua.

UEU 20

- Partzelaren xehetasun-azterlana, 2003ko martxoaren 5ean behin betiko onartua.
- Urbanizazio-proiektua, 2003ko maiatzaren 14an behin betiko onartua.
- Konpentsazio-proiektua, 2003ko uztailaren 23an behin betiko onartua.

1. SEKTOREA PERUALDEA

- Plan Partziala, 2003ko irailaren 16an behin betiko onartua.
- Urbanizazio-proiektua, 2004ko martxoaren 24an behin betiko onartua.

ESPASIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA

- Eskolako ekipamendu publiko baterako lerrokadurak definitzeko xehetasun-azterlana, 2011ko irailaren 6an behin betiko onartua.

**1.4.2. ARAU SUBSIDIARIOEN INDARRALDIAN ERAIKITAKOA**

Egoitzako eraikinak

24-05-1995	UEU 09 Madrigal. <b>Gure Txokoa</b>	Alkiza plaza 18	2 etxebizitza *
11-12-1996	UEU 17. <b>Garei</b>	Alkiza plaza 22	1 etxebizitza *
11-12-1996	UEU 18. <b>Gorosti Urrea</b>	Alkiza plaza 25	1 etxebizitza *
	UEU 07. <b>Etxeburua I- Etxeburua II</b>	Alkiza plaza 23-24	8 etxebizitza
1998-12-08	UEU 16. <b>Zutabe</b>	Alkiza plaza 26	1 etxebizitza
2003-07-23	UEU 20. <b>Santiago ermita</b>	Santiago ermita bidea 1-5	10 etxebizitza
2003-07-23	UEU 14. <b>Sagastizahar</b>	Alkiza plaza 27	2 etxebizitza
2004-09-04	UEU 23. <b>Katalandegi baserria</b>	Alkiza plaza 4	1 etxebizitza
2005-02-02	Sector 1 <b>Perualdea</b> . P2,P3,P4, P5	Peru bidea 2-5	16 etxebizitza
2005-09-27	Sector 1 <b>Perualdea</b> . P6	Peru bidea 6	2 etxebizitza
2006-03-07	Sector 1 <b>Perualdea</b> . P1	Peru bidea 1	4 etxebizitza
2011-12-09	UEU 5.1. <b>Lete</b>	Alkiza plaza 4	2 etxebizitza

**50 etxebizitza**

Landa lurreko eraikinak

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
 BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

1997-02-26	<b>Goiztiria</b> etxea eraikitze baimena	1 etxebizitza
1999-07-21	Indar enpresak Alkiza errekatik Anoeta zentralerako presa	
2005-11-09	<b>Urkullu</b> baserriaren berritzea bi etxebizitza egiteko	1 etxebizitza
2005-11-09	<b>Beltzalaga</b> baserrian bi etxebizitza eraikitze baimena	1 etxebizitza
2006-09-16	<b>Izarraitz</b> etxean bi bizitza eraikitze baimena	2 etxebizitza
2008-04-01	<b>Etxabeguren Barrena 2.</b> etxebizitza eraikitze baimena	1 etxebizitza
2010-07-04	<b>Saletxe</b> baserriaren birgaitzea	1 etxebizitza
2011-10-07	<b>Intxaurreundiaga</b> baserrian etxebizitza berri bat.	1 etxebizitza

**8 etxebizitza**

Horren gain, hurrengo zuzkidura publikoak eraiki dira;

Bidatek teknologiko ur beltzen araztegia (2010), Sendagilearen kontsulta, kirol aretoa, areto balioanitzak eta larrialditarako bi etxebizitza hartzen dituen Donjuanena etxeko birgaitzea (2012)

Alkizako eskola berria, eskola zaharra ordeztuta (2020).

### 1.4.3. ANALISIA

#### 1.4.3.1. HERRI-GUNEKO EGOERA

Alkizako Arau Subsidiarioen hirigintza-egikaritzapenerako unitate guztiak garatu dira, baita 2003. urteko Arau Subsidiarioen 1. aldaketaren ondoriozko Perueraldea 1. sektorea ere. Egun daukagun Alkizako herri-gunearen forma Arau Subsidiarioen Garapenari zor diogu. Jatorrizko gunea, eraikin publikoen ingurukoa, bi norabideetan luzatu da, GI-3630 errepideari itsatsita. Herriari jarraitutasuna emateko era naturalena zen, herri-gunea kokatzen den mendi-lepoak daukan orografiak ez baitu uzten herria zirkulu zentrukideetan haztea, eta beste alde, dauden errepide eta herri-bideak garapenerako oinarri erabiltzeak beste abantaila zuen, urbanizazio kostuak baxuagoak ziren, promozioen bideragarritasuna errazten zen eta etxebizitzaren prezioak merkeagoak izan zitezkeen.

Honek hala ere, errepidearen gaineko trafiko-presioa handitu du, eta bere zatirik estuenean, eliza eta Otsamendi etxearen artekoan, zirkulazio arazoak sortzen ditu. Errepidea ez da igarotze-trafiko hartzen duen bidea, Alkizara doazenak erabiltzen dute bakarrik, baina tarte horretan bi norabideetako irteera eta sarrerako trafikoak gainjartzen dira.

Hori, alde batetik onuragarria izan daiteke, eliza, eskola eta udaletxearen artean dagoen gune-espaziotik pasatzen den trafikoaren abiadura ezinbestez moteldu behar delako, baina kaltegarria ere bada, herriaren puntu zentralenean trafiko intentsitate handiena ematen delako. Zuzendu beharreko arazoa dela uste dugu. Eskuarteak daukagun planean ez bada hurrengoan, gune horretatik trafiko kantzak helburuetako bat izan behar du.

Eraikin publikoak plazan biltzen dira, udaletxea, eliza, eskola, pilotalekua eta erretoretzeko zerbitzuak bertan daude. Atari zabaleko jolastokiak daude ere. Kokapena ezin hobea da herriaren egiturazetik begiratuta eta erlazio gune bikaina izateko falta duen gauza bakarra bertatik trafiko eta aparkalekuak kentzea da. Aparkatzeko badago lekua hilerriaren inguruan, herri-gunera hurbilduko direnak jasotzeko nahikoa dena. Naiz bertakoentzat Alkizako aldirietan egon, objektiboko plazatik oso gertu dago, 200 metro baino gutxiago.

Plazatik trafiko kentzeko planteamendua gauza dadin herriguneko oinezkoentzako ibilbide longitudinalak osatzea egin beharrekoa da. Egun ez daukate jarraitutasunik eta irisgarritasunaren baldintzak ez dira betetzen. Leku falta da arazoetako bat. Ibilgailuentzako trafiko desbideratuta, egungo errepidea erabili ahal izango litzateke ibilbideak osatzeko. Bitartean, plazan mugikortasun mugatuta daukatenentzako aparkalekuak soilik jartzea izan daiteke tarteko ebazpena.

#### 1.4.3.2. LANDA-LURRAREN EGOERA

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Udalerriaren kokaleku den geografiak azaltzen duen izaera malkartsuak, udalerriaren barnean dauden bi erreka nagusiek, Arraia Errekak eta Mandabe errekak, eraturako bi ibarrekin batera, hainbat auzo elkarbereiztea bideratu du.

Hernio Bailara izena ematen dion mendi-taldearen saihespean kokatzen da. Bertarako sarrera Leteko multzoan sortzen den bazterbide batean zehar egiten da. Aritzategi Garaikoa baserriraino jarraitzen du.

Bide honen alboetan interesgarriak diren hainbat baserri daude, Arantzabene eta Aritzategi Barrena esaterako. Azken honek, fatxadak edertzeko erabiltzen diren egur-tailaturiko piezak agerian ditu. Inguruko paisaia, bertako zuhaitzi, kararizko gailurreria eta ur-jauziz osaturikoa, gogoan izatekoa da.

Aldapa Bailaran mendiko baldintzak errepikatzen dira, goibeheak lauagoak eta ez halako haundiak badira ere. Irispidea Larrauldik egiten da, hilerrirako errepideak jarraiki. Baserri aipagarrien artean bi hautatu ditugu: Urruzola, sarrera atea harlanduzko arku zorrotzekoa duena eta Arpide, tradiziozko eraikuntza delako.

Arana Bailara Alkizolak ibarrean zehar sakabanaturik dauden hainbat baserri besarkatzen ditu. Hemen aipagarrienak Intxaur Haundi, Garaikoetxe eta Antzieta dira.

Sakamidra. Halako izen arranditsuko eremu honetan Zumitza eta Aginaga armarridun etxeak biltzen dira. Lehenengoan nabarmen da estalkiaren erdiko zutabeen tailaturiko giza irudi bat. Aginagan berriz, erdi-puntuko arkuak dira adierazgarrienak, bertan sarrera-ateak zabaltzen direla.

Azaldegi bailara osatzen duten baserriak Asteasuko aranera jaisten den errepidearen inguruetan banatzen dira.

Azaldegi Etxeberrik, Garmendiak, Etxesagastik eta Apaiztegik arkitektura-ezaugarri adierazgarriak gorde dituzte. Lehenengoan, Azaldegi Etxeberrin (18-95) arku beheratua fatxada nagusian. Garmendian harlanduzko lana ikaragarria da eta Etxesagastin sarrerako arkuak da nabarmenena; Apaiztegi da multzo honetako eraikuntzarik bikainena, harlandu ikusgarria fatxadan eta tailaturiko egurrezko izanik.

#### NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA BASOGINTZA

Eustaten 2020-ko datuen arabera, udalerriak dauzkan 1.201 Ha-tatik 199 Ha dira nekazaritza-azalera erabilgarria.

Nekazal ustiapenera emandako azalera 494 Ha dira. Landutako lurak 33 Ha. Larre iraunkorrak 166 Ha. Bestelakoak 296 Ha.

Lur landuetatik belarkiak eta familia-baratzeak 9 Ha dira (%28). Frutarbolak 15 Ha (%44,9). Mahastiak 8 Ha (%25,2) eta bestelakoak 1 Ha (%1,9).

Abelburuak dira: 325 behi-aziendak 604 Ardi-aziendak, 47 ahuntz-aziendak eta 24 zaldi-aziendak. Ez dago txerri, hegazti edo untxi erregistraturik.

Nekazaritza ustiatzeetan urteko lan unitateak 25 dira. Titularrak 9, ezkontideak 4, bestelako senideak 2, soldatapekoak 9.


Horren gain, INE-ren datuen arabera, 411 Ha daude baso ustiapenerako.

#### INGURUMENA

Udalerriko lurzoruaren erabilerak dikotomia argia erakusten du: behealdean, 400 metro inguruko altueraraino, baserrietako laborantza-lurak eta sega-belardiak intsinis pinuaren birpopulaketekin txandakatzen dira; Hernioko gailurraren, kareharrizko harkaitzekin eta mendiko larreekin, eta jendea bizi den eremuaren artean, berriz, 500 Ha-tik gorako baso-orban bat kontserbatzen da oraindik, hainbat koniferoren landaketa-orbanekin tartekatzen dena eta hirigunearen inguruetaraino iristen dena.

Hernio-Gazume mendiguneak biodibertsitatearen ikuspegitik duen interesak bultzatuta, Eusko Jaurlaritzak Natura 2000 Sarean sartu zuen, eta Batasunaren Intereseko Leku (GKL) gisa proposatu zuen. Proposamen hori Europako Batzordeak onartu zuen. Alkizako hurrengo mapan berdez margotutako zona da.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**



GKL horren mugetan Alkizako udalerrriaren 520 Ha sartzen dira, GKLaren 2.158 Ha-ren ia laurdena, eta, udalerrriaren ikuspegitik, udalerrriak guztira duen azaleraren erdia, goialde osoa zehazki, hirigune txikiaren ingurutik Hernioko gailurreraino.

Barruti hori guztia ehunka lursail txikitara banatuta dago, eta 100 baino gehiago dira lursail horien jabeak, besteak beste, BILen 34 hektareako lursaila duen Udala, pagadiak, mendiko larreak eta harkaitzek okupatuta. Jabetzaren banaketaren ondorioz, lurraldean ekintzak eragiten dituen edozein ekimenek Alkizako biztanleriaren zati handi bat inplikatu behar du.

Eremuari dagokion araudiari buruz, Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen da 2012 Urriaren 16ko 219/2012 Dekretuaren bidez, bere erregistro zenbakia ES2120008 delarik.

Dekretuak kontserbazio-neurriak onartzen ditu, landareria, fauna eta geologia babesteko. Antolatzea egituratzeko eremuaren zonifikazioa egiten du. Horrek eragina izango du udalerrriaren HAPO definitzean.

Zonifikazio horren kategoriak hurrengo paragrafoetan definitzen direnak dira. Definizioen ondoren zonifikazioaren mapa sartu da ere.

#### Bilakaera naturaleko eremuak (BNE)

Balio ekologiko handiko eremuak dira, non lekuaren osotasun ekologikorako funtsezkoak diren prozesu funtzionalak garatzen diren, habitat naturalak dituzten edo espezie berezien edo oso mehatxatuen habitatak diren, ahalik eta esku-hartze gutxien behar dutenak.

#### Babes zorrotzeko eremuak (BZE)

Eremu horiek, oro har, oso txikiak dira, eta balio nabarmeneko edo aparteko elementu naturalak edo kulturalak dituzte, bakanak, adierazgarriak edo estetikoak direlako, garrantzi kulturala dutelako edo basafiora eta basafaunaren kontserbaziorako eta ziklo biologikoaren garapenerako esanguratsuak direlako, batez ere babesleku, elikagai edo desplazamendu gisa balio dutenak.

Babes zorrotza eta ingurunean egiten diren jardueren kontrola behar dute.

#### Leheneratze ekologikoko eremuak (LEE)

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Eremu degradatuak dira, eta haien balio ekologikoak, habitat naturalak eta dauden espezieak nabarmen aldatzen edo hondatzen dira; horietan, jarduerak proposatzen dira funtzionaltasuna berreskuratzeko, hartzen dituzten balioen biziraupena bermatzeko eta kontserbazio-egoera hobetzeko.

Leheneratze ekologikoko eremutzat hartzen dira zuhaitz lepatuak dituzten eremuak, heskaiak lehengoratzeko eremuak eta gaur egun heskaiak eta landaketak dituzten eremuak.

#### Baliabideen aprobetxamendu estentsiboko eremuak (BAEE)

Gutxi eraldatutako edo erdi naturaleko sistema naturalak dituzten eremuak dira. Sistema horiek ezinbestekoak dira lekuaren izendapena, osotasun ekologikoa eta ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen hornidura eragin duten flora- eta fauna-espezieen kontserbazio-egoera ona bermatzeko, eta, aldi berean, tokiko komunitateen garapen sozioekonomikoa asetzen duten edo laguntzen duten produktu naturalen eta zerbitzuen fluxu jasangarria ematen dute.

Zona horietan egiten diren aprobetxamendu guztietan, habitatak eta mosaikoa kontserbazio-egoera onean mantendu beharko dira, bai eta funtsezko espezieak ere, eta babes bereziko erregimenean, baina ez da kontuan hartuko habitat edo espezie horien kontserbazio-egoera alda edo honda dezakeen jarduera oro.

- Baso-aprobetxamendu estentsiboko eremuak: eremu horietan aprobetxamendu guztiak habitat eta espezie giltzarriak kontserbazio-egoera onean mantentzearen mende egongo dira, eta babes-araubide berezian.

- Abeltzaintza-aprobetxamendu estentsiboko eremuak: eremu horietan aprobetxamendu guztiak habitat eta espezie giltzarriak kontserbazio-egoera onean mantentzearen mende egongo dira, eta babes-araubide berezian. Horretarako, aprobetxamendu horiek "larreak antolatzeke planak" babestu beharko ditu, eta EAEko Natura 2000 Sarearen ardura duen ingurumen-administrazioak nahitaez eta modu loteslean eman beharko dio horren berri.

#### Baliabideak aprobetxatzeko eremuak (BAE)

Habitaten kontserbazioarekin zuzenean lotuta ez dauden ekoizpen-jarduerak hartzen dituzten eremuak dira, eta lekuaren barruan egoteak ez du arriskuan jartzen haien osotasun ekologikoa eta kontserbaziorako balio duten habitat naturalak eta espezieak egotea, ekoizpen-prozesuetan ingurumen-integrazio eraginkorra izateari esker.

Horrela ez bada, leheneratze ekologikoko eremu bihurtzeko edo lekuaren kontserbazioarekin bateragarriak diren beste erabilera batzuetarako joera izan beharko dute.

Baliabideen aprobetxamendu intentsiboko eremutzat jotzen dira KBEan dauden fruta-arbolen landaketak.

#### Erabilera publikoko zonak (EPZ)

Aisialdiko erabilerekin, interpretazioarekin eta ingurumen-hezkuntzarekin zerikusia duten jarduerak hartzeko edo arautzeko erabilera publikoko ekipamenduak dituzten eta bisitarien joan-etorria eta maiztasuna dakarten espazioak biltzen dituzte. Aipatutako eremuetarako sarbideak eta balizatutako pistak eta bidezidorrak ere sartzen dira.


Aisialdiko erabilerekin, interpretazioarekin eta ingurumen-hezkuntzarekin lotutako jarduerak hartzeko edo arautzeko erabilera publikoko ekipamenduak dituzten espazioak barne hartzen ditu, bisitarien joan-etorria eta maiztasuna dakartenak. Zelatungo tabernen ingurua eta homologatutako mendiko bidezidorrak izendatzen dira eremu gisa.

#### Hiriguneak eta azpiegiturak (HA)

Leku barruan egon daitezkeen hiriguneak, bizileku iraunkorra duten eta sakabanatuta dauden eraikinak eta baserriak, eta azpiegiturak eta eraikuntza artifizialak dira.

Parke eta lorategiak eta dentsitate txikiko eraikinak ere halakotzat jotzen dira.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
**BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA**  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**



**1.4.3.3. ONDAREA**

Ondarearen zerrenda eta elementuen babes maila Alkizan:

**Kalifikatua**

<b>kodea</b>	<b>izena</b>	<b>Helbidea</b>	<b>Eraikin mota</b>
60046	Hernio		Estazio megalitikoak
60042	Itxurain		Tumulu

**Diputazioaren katalogoan**

<b>kodea</b>	<b>izena</b>	<b>Helbidea</b>	<b>Eraikin mota</b>
60014	Bengoetxea	Arana bailara 7	Baserría
60017	Garaikoetxea	Arana bailara 18	Baserría

**Inbentariatua**

<b>kodea</b>	<b>izena</b>	<b>Helbidea</b>	<b>Eraikin mota</b>
60005	Alkizalete	Alkiza plaza 5	Etxea

**Eusko Jaurlaritzak behin-behineko inbentariatua**

<b>kodea</b>	<b>izena</b>	<b>Helbidea</b>	<b>Eraikin mota</b>
60010	Perurena	Alkiza plaza 14	Etxea

**Definitu gabe**

<b>kodea</b>	<b>izena</b>	<b>Helbidea</b>	<b>Eraikin mota</b>
60045	Agarrola		Ola
60030	Aritzategi garaikoa	Herriko bailara 10	Baserría
60015	Albiztegi	Arana bailara 1	Baserría
60013	Altzorbe	Arana bailara 2	Baserría
60016	Antzieta		Baserría
60026	Apaitzegi		Baserría

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
 BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

60029	Arantzabe	Hernio bailara 5	Baserria
60033	Arpide	Aldapa bailara 7	Borda
60019	Beltzalaga Txiki	Arana bailara 9	Baserria
60011	Berandoain	Herriko bailara 1	Baserria
60002	Udaletxea	Alkiza plaza 12	Udaletxea
60008	Erretore-etxea	Alkiza plaza 10	Etxea
60041	Leteberri	Akiza plaza 6	Baserria
60009	Donmigelena eta Donjuanena	Alkiza plaza 8	Etxea
60021	Otsamendi Goikoa	Alkiza plaza 20	Baserria

**Inbentariatzeko eskatua**

<b>kodea</b>	<b>izena</b>	<b>Helbidea</b>	<b>Eraikin mota</b>
60003	Aginaga	Sakamidra bailara	Etxea
60028	Aritzategi Barrena	Hernio bailara 9	Baserria
60036	Arpide Gain	Aldapa bailara 1	Baserria
60043	Belakum III (Zopiteko Koba 12)	Zopite mendia	Koba
60025	Etxesagasti	Azaldegi bailara 8	Baserria
60032	Garmendia	Azaldegi bailara 9 eta 13	Baserria
60022	Garro	Aldapa bailara 2	Baserria
60018	Intxaurrandiaga	Arana bailara 11	Baserria
60001	San Martin Tourskoa	San Martin enparantza z/g.	Eliza
60004	Zumitza		Baserria

**Ustezko interes arkeologikoko zona**

<b>kodea</b>	<b>izena</b>	<b>Helbidea</b>	<b>Eraikin mota</b>
60031	Azaldegi Etxeberri	Azaldegi bailara 19	Baserria
60038	Balako Arkaitza (Zopiteko Koba 10)	Zopite mendia	Koba
60039	Belakum II (Zopiteko Koba 11)	Zopite mendia	Koba
60024	Errotazar (Olaa), Errota Berri eta Goikoerota	Aldapa bailara	Errota
60012	Igaran errota	Hernio bailara 8	Errota
60020	Katalandegi	Alkiza plaza 4	Baserria
60027	Lizarzelai	Herriko bailara 7	baserria
60007	Mendiko Etxe (Mendia)	Alkiza plaza 10	Etxea
60034	Olatzazpi		Koba
60037	Santa Kruz		Baseliza
60006	Santiago (eta kalbarioa)	Alkiza plaza z/g.	Baseliza
60023	Urruzola	Aldapa bailara 4	Baserria
60035	Zopite I	Zopite mendia	Koba
60040	Zopite II	Zopite mendia	Koba

**1.4.4. DIAGNOSTIKOA**

Alkizako Arau Subsidiarioen hirigintza-egikaritzapenerako unitate guztiak garatu izana esan nahi du plangintzan aurreikusitako bizitegi-lurzoru guztiak (eta hedapenez hiri-erabileretarako aurreikusitako zoru guztiak), oso-osorik garatu direla, eta ez dagoela ezer egiteke. Beraz Alkizako bilakaerari hirigintzako oinarria eman nahi bazaio beharrezkoa da plangintza orokorra berritzea, herriaren beharrei erantzun diezaion.

Horren gain, oraindik indarrean dauden Arau Subsidiarioak izapidetu eta onartu zirenetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea onartu zen, egun indarrean jarraitzen duelarik. Bere bigarren xedapen iragankorraren lehenengo paragrafoan ezartzen denez, udalerrri guztien plan orokor eta arau subsidiarioak lege horren zehaztapenetara egokitu behar dira, eta gehienez ere zortzi urteko epean onartu beharko dira behin betiko. Beraz, plangintza dagoeneko egokituta egon beharko luke.

Alkizako plangintza orokorra berrazteertzeko ezinbestekotasunari argudio gehigo emateko, Tolosaldeko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren gauzatzeak eta ingurumena kontutan hartzen duten araudi sektorialen aldaketek eta ordezpenekek eta 2012an Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeak, Alkizako

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

udalerriko hirigintza-antolamenduaren irizpide orokorrak berrikustea gomendatzen dute, landa-lurzoruak eta horien gainean ezarri beharreko babes-mailak berdefinitzearen garrantzia bereziki azpimarratu behar delarik.

## INFORMAZIO MEMORIA

### 2. PLANA ZEHAZTEKO PROZESUA

“Alkizako udalerrriaren hirigintzako plangintza orokorraren lurraldearen gaur egungo baldintzekiko egokitzapena baloratzeko aurreko txostena” dokumentua 2013 urteko apirilako 18an sinatuta dago. Bere egitekoa Alkizako plangintza orokorreko gauzatzearen bilakaeraren eta bere orduko egoeraren diagnostia egitea zen, ez soilik bere barne betetzearen ikuspuntutik, aurreikuspenak beteta zeuden, baita indarrean egon zen bitartean gertatutako legediaren aldaketek eta lurralde plangintzako dokumentuen garapenek osatutako arau-esparru berrian zuen sartzearen ikuspuntutik ere.

Dokumentu horretan plangintza orokorra aldatzeko beharra adierazi zen. Horren ondorioz Udalak 2013ko apirilaren 23an egindako ohiko Udalbatzarrean Alkizako HAPOn Aurretzako Dokumentuaren gauzatzea esleitu zuen.

2014 urtearen bigarren erdian herritarren partehartze prozesu bat egin zen. Galdetegi bat prestatu zen herritarrek HAPOn eragina duten garapen arlo guztien gain iritzia adieraz zezaten. Horren gain herriginearen inguruan etxebizitzako garapenerako 6 eremu berri planteatu ziren, hainbat alternatibetan konbinatuta etorkizuneko ordenazioa osatu zezaketeenak. Panel eta orrietan aurkeztu ziren prozesu partehartzailean, eremu bakoitzari zegokion antolatzearekin, ezaugarrien azalpenarekin eta planoekin: eragindako lursailen planoak, eraikinen kokapen planoak eta mazelatan eraikinek edukiko luketen eragina ikusteko ebakidura planoak. Herritarrek alternatibak bailioetsi behar zituzten, egokien irizitakoak aukeratu.

Prozesuaren emaitzak 2014ko azaroaren 5ean sinatutako txosten batean azaldu zituen HAPOn aurrerakinaren talde egileak. Horretan Herritarren partaidetzatik eratorririko irizpideak zehaztuta geratu ziren.

2015 urtean aurrerakinaren lantzea aurrera jarraitu zuen. Otsailean talde egileak HAPOn Ingurune-Ebaluazio Estrategikoaren Hasierako Txostena aurkeztu zuen.

Horri lotuta Ingurune-ebaluazio estrategikoaren eskaeraren inprimakia osatu zen. Udalak eskaera eta dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzari bidali zizkion, eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 2012ko urriaren 18ko 211/2012 dekretuaren 9 artikuluan xedatutako betez eta prozedurari hasiera emateko 30 egunez argitara egon zedin. Argitarapena martxoaren 13an sinatu zen.

Aldez aurretiko kontsulten prozedura honetan hurrengo erakundeei kontsultatu zitzaizkien: Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza, Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza, IHOBE, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza, Garraio Azpiegituren Zuzendaritza, Kantauriko Ur konfederazioko Uren ikuskatzailetza, EHNE, ENBA, Gipuzkoako Uren Kontsultazioa, Eguzki, Ekologistak martxan, Aranzadi Zientzia Elkarte, Tolomendi, Tolosaldeako Mankomunitatea, Asteasu, Anoeta, Albiztur, Henialde eta Larraulgo Udalak, Oilegitik Elkarte, Herniope Ehiza Elkarte, Herri Ostatua, Eskola eta Kirol Patronatua.

Eskumenak dituzten haienbat administrazioen txostenak jaso ziren:

2015-eko apirilaren 9an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendietako eta natura Inguruneko Zuzendaritza.

2015-eko apirilaren 24an Gipuzkoako Aldundiaren Kultura Zuzendaritza.

2015-eko apirilaren 29an Eusko jaurlaritza, Natura Ingurumenaren eta Ingurumenaren Plangintzako Zuzendaritza.

2015-eko maiatzaren 6an Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

2015-eko uztailaren 8an Ingurumenaren Nekazaritzaren eta Elikaduraren Ministerioa.

2015-eko uztailaren 10ean Ura.

Txosten horiekin Gipuzkoako Foru Aldundiaren ingurumeneko eta Obra hidraulikoen Departamenduak Irismen Agiria edo Erreferentziako Agiria plazaratu zuen 2015-eko abuztuaren 28an.

Pausu honen ondoren HAPOn prozesua geldialdi batean sartu zen, bost urtez ez zen horren gaineko erabakirik hartu.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

2020ean Udalak HAPOrekin jarraitzea erabaki zuen. Pasatako denborak eraginda aurrez egindakoaren zenbait arlo berraztertu behar zirenez, Udalak aurretiazko edo Aurrerapen dokumentua berriro kontratatzea erabaki zuen.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legeko 118 artikularen arabera kontratu txikia zenez, zuzenean enpresa ezberdinei hainbat aurrekontu eskatuta bideratzea erabaki zuen. 2020ko irailaren 8ko Ohiko Udalbatzarrean aurrerapenaren erredakzioa esleitu zuen.

Aurreko faseko garapen proposamenekin alderatuta, 2020koan eman zen aldaketa nagusia etxebizitzako eremu berriei zegokiona izan zen. Herriguneari itsatsita ez zauden etxebizitzako eremuak desagertu ziren, Herriaguanearen inguruan alternatiba berriak planteatu ziren, 7 guztira.

Erredakzio talde berriak Hasierako Agiri Estrategiko berria 2020ko abenduan aurkeztu zuen. Aurrerapen dokumentua, zeinaren ildo nagusiak 2020ko bukaerarako finkatuta zeuden, 2022ko maiatzean bukatu zen. Ekainaren 28 Udalbatzak bi dokumentuak argitaratzea eta bi hilabetez erakustaldi publikoan mantentzea erabaki zuen.

Dokumentua erakustez gain, herritarren partehartzea bultzatzeko hainbat ekimen egin ziren, Alkizako Etorkizuna 2030 Herri Proiektuaren Lanketa egitasmoaren baitan, hala nola udal batzarrak, informazio zuzena interesatuei e.a.. Prozeduraren emaitza 2022ko ekainaren 30eko Alkiza Herritarrekin txostenean jaso ziren.

Horren gain, erakustaldian aurkeztutako alegazioei erantzuna eman zitzaion eta ekarpenak onartu ziren.


**INFORMAZIO MEMORIA**

**3. AZTERTUTAKO ALTERNATIBAK ETA HAUTAPEN PROZESUA**

**3.1. HERRIGUNEA ANTOLATZEKO ALTERNATIBAK**

Hurrengoak dira Aurrerakina gauzatzeko prozesu partehartzailean aztertu ziren alternatibak.

**3.1.1. 01 AUKERA. PLAZA AURREA**



<b>01. AUKERA. PLAZA AURREA</b>	
<b>AZALERA</b>	6.065 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK</b>	3.631 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BIDEAK</b>	1.750 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PUBLIKOEN KOPURUA</b>	15
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BERDEGUNEAK</b>	1.881 m <sup>2</sup>
<b>LURSAIL PRIBATUAK</b>	2.434 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA AZPIKO OKUPAZIOA</b>	1.140 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO OKUPAZIOA</b>	786 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA</b>	2.000 m <sup>2</sup>
<b>ZENBATETSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA</b>	12
<b>APARKALEKU PRIBATUEN KOPURUA</b>	28
<b>ERAIKINEN PROFILA (SESTRA AZPIAN /SESTRA GAINEAN)</b>	I / II + TP

**3.1.1.1. ESPAZIO PUBLIKOAK**

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arabera barrutiaren azaleraren %15 tokiko sistemen berdegunea izan behar da. Bikoiztu egiten da azalera hori ordenazioan. Berdeguneak kokatzen

diren mazelaren malda handia eta daukaten tamaina txikia direla eta, natura hiri-bilbean integratzeko balioko dute, baina oinezkoentzako ibilbideak egiteko aukera gutxi emango dute.

Berdegune zati handienak herriko plazaren aurrean kokatzen direnez, aldatuko diren zuhaitzen tamainarekin tentuz ibili beharko da, plazak dituen bistak ezta ez ditzaten.

#### 3.1.1.2. BIDE-ANTOLATZEA ETA IRISGARRITASUNA

Barruti hau, Santiago Aurreakoarekin batera, herriguneari ingurabidea emateko helburuarekin definitzen da. Bi eremuak osagarriak dira eta biak luzeetara gurutzatzen dituen bideari jaraitutasuna emateko ordenatzen dira; 5 metro zabaleko kale bakarra, bailara aldera 2 metroko espaloia eta aparkalekuak dituena.

Oinezkoentzako ibilbideak, espaloiak, ez dauka Hir-inguruneen, Espazio Publikoen, Eraikinen eta Informazio eta Komunikazio Sistemen Irisgarritasun-baldintzei buruzko 68/2000 Dekretuak ezarritako urbanizazio baldintzak betetzeko arazorik. Kaleak gutxi gorabehera sestra-kurben geometria jarraitzen du. Horren gain, familia bakarreko etxeen sarrera espaloia sestran dago, dekretuak dioena betez.

#### 3.1.1.3. ORIENTAZIOA ETA ERLIEBERA EGOKITZEA

Orientazio ezin hobea da, etxeak mazelan integratzen direnez, eta hau hegoaldera jaisten doanez, etxeak iparraldetik mazelak berak eta herriguneko eraikineek babestuta daude eta hegoaldera guztiz irekita geratzen dira.

Beste alde, erliebera egokitzeari dagokionez ez da egoera berdina barrutiko luzera osoan, mazelaren malda aldatzen doalako. Mendebaldean errazagoa da moldatzea, ia erliebera aldatu gabe eta indusketa handirik egin behar izan gabe. Erdiko zatian indusketa egin behar da, bai kalea berdintzeko eta bai etxeen erdisotoa egiteko. Hala ere, etxeen zabaleran mazelak galtzen duen altuera aparkalekuen erdisotoaren altueraren parekoa denez etxearen profila mazelaren profilean ondo txertatzen da. Ekialdean mazelaren malda handiagoa da eta txertatzea etxeen erdisotoa zabalera txigiagotzen lortzen da. Dena dela, barrutian lur mugimendu ia osoa indusketa da, ez dago indusketa betelanarekin orekatzerik.

#### 3.1.1.4. ERAIKINEN PROFILA

Etxe guztien profila berdina da: erdisotoa aparkaleku pribatuentzako sestra azpian, eta behe-solairu, goi-solairu eta teilatupea dituzten etxebizitzak sestra gainetik.

#### 3.1.1.5. GIZARTE-TXERTATZEA

Etxe-multzo berriko biztanleek sendotutako komunitatean integratzeko ahalbideen gainekoa izan behar du azterketa, baina, hirigintzako jarduketara bati dagokionez, ordenazioak interrelazioak bideratzeko eman ditzakeen aukeren analisira bideratua.

Ordenazioa herriguneari itsatsita dago. Honekin daukan komunikazio arazo bakarra desnibela da. Herriko plaza bertan da, baina 7,5 metro gorago. Ez dago arazorik eskailera bat egiteko, baina lotura irisgarria zailagoa da. Kale berria herrigunea zeharkatzen duen errepidearekin lotuta dago, baina azken honen malda ez da irisgarria. Alde honetatik, ordenazio berria ikastolatik mendebaldera dauden herriguneko etxe guztien egoera berebetean egongo litzateke. Plaza eta ingurabidea aldapa irisgarri batez lotzeko, %6-ko malda eduki beharko lukeena, 125 m luze beharko lirateke.

Etxebizitzaren tipologiari dagokionez, ez da herriguneari daudenen oso ezberdina; egia esan, herriguneari tipologia barietate handia dago egun. Esparrura etorriko den Jendearen tipologia, beraz, ez du zertan aurrez dagoenaren ezberdina izan behar. Integrazuierako ez dut alde horretatik arazorik ikusten

#### 3.1.1.6. GENERO-IKUSPEGIA

Generoko hirigintza ikusgarritasunaren hirigintza da, espazioen erakusketa etengabea, ahal den behaketa zabalena, idealki unibertsa, ahalbideratzen duena.

Ikuspegi honetatik, puntu batetik ia bere osotasunean ikus daitezkeen, etxebizitzak inguratuta dagoen eta goiko plazaren bistara geratzen den kale bakarra edukitzea egoerarik onena izan daiteke.

### 3.1.2. 02 AUKERA. SANTIAGO AURREA



<b>02. AUKERA. SANTIAGO AURREA</b>	
<b>AZALERA</b>	11.032 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK</b>	7.457 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BIDEAK</b>	3.388 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PUBLIKOEN KOPURUA</b>	22
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BERDEGUNEAK</b>	4.069 m <sup>2</sup>
<b>LURSAIL PRIBATUAK</b>	3.575 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA AZPIKO OKUPAZIOA</b>	2.203 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO OKUPAZIOA</b>	1.391 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA</b>	3.500 m <sup>2</sup>
<b>ZENBATETSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA</b>	26
<b>APARKALEKU PRIBATUEN KOPURUA</b>	52
<b>ERAIKINEN PROFILA (SESTRA AZPIAN /SESTRA GAINEAN)</b>	I / II + TP I / III

#### 3.1.2.1. ESPAZIO PUBLIKOAK

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arabera barrutiaren azaleraren %15 tokiko sistemen berdegunea izan behar da. 2,5 aldiz handiagoa da azalera hori ordenazioan. Berdeguneak oro har malda handiko mazeletan kokatzen dira eta estuak dira, ez oso erabilgarriak, natura hiri-bilbean integratzeko ez bada. Hala ere Santiago bidearen ondoan marrazten dena ezaugarri hobeak ditu eta ordenazioaren erlazio-gunea izan daitekeena antolatzeke balio dezake, umeentzako parkea jarriz, adibidez.

#### 3.1.2.2. BIDE-ANTOLATZEA ETA IRISGARRITASUNA

Barruti hau, Plaza Aurreakoarekin batera, herriguneari ingurabidea emateko helburuarekin definitzen da. Bi eremuak osagarriak dira eta biak luzeetara gurutzatzen dituen bideari jaraitutasuna emateko ordenatzen dira; 5 metro zabaleko kalea, bailara aldera 2 metroko espaloia eta aparkalekuak dituena. Esparru honetan Santiago bideko zati bat sartzen da ere. Honen zabalera 5,5 metrotara handitzen da. Honen ondoan ere espaloia eta aparkalekuak jartzen dira, baterian kasu honetan.

Ingurabidearen eta Santiago bidearen artean eskailera bat jartzen da esparruko bi mailak lotzeko.

Irisgarritasunaren aldetik zailtasunak daude. Santiago bidea ez da irisgarria, daukan malda %6 baino handiagoa delako. Ingurabidea berriz, irisgarria da oro har, baina ekialdera, Asteasurako errepidearekin lotzeko igo behar du, eta beharrezko malda %10 da, 68/2000 Dekretuak ezarritako gehienezko %6 gainditzen du. Honek ekialdetik dagoen lehenengo etxearen irisgarritasuna kaltetzen du.

Santiago bidetik sarrera duten etxeei dagokionez, sarbide irisgarria egin daiteke kalea eta etxeen artean, baina bidearen ondoko espaloia ez da irisgarria 68/2000 dekretuaren arabera.

### 3.1.2.3. ORIENTAZIOA ETA ERLIEBERA EGOKITZEA

Aurreko barrutian bezala, orientazio ona daukate etxeek. Iparraldetik ez daude aurrekoek bezain babestuta, Santiago kaletik sarrera duen etxe-lerroak ez du babesik behe-solairutik gora, ingurabideari itsatsita daudenak mazelak babestuta geratzen dira. Aitzitik, hegoaldera irekita geratzen dira guztiak, eguzkia jasotzeko ez dute oztoporik izango, Ingurabideko etxeek Santiago bidekoen bistak itxiko dituzten arren.

Beste alde, erliebera egokitzeari dagokionez, indusketa egin behar da, bai kalea berdintzeko eta bai etxeen erdisotoa egiteko. Hala ere, aurreko esparruan bezala, etxeen zabaleran mazelak galtzen duen maila erdisotoko altueraren parekoa da, etxeen profilak mazelaren profilean ondo txertatzen dira. Ordenazio honetan ere, lur mugimendu ia osoa indusketa da, ez dago betelanarekin orekatzerik.

Ingurabidea Asteasuko errepidearekin lotzeko Santiago bidearen azpitik pasa behar da. Lubakia egin behar da eta Santiago bidea mantentzeko zubia egin. Honek indusketa lana modu esponontzian handitzen du.

### 3.1.2.4. ERAIKINEN PROFILA

Familia bakarreko itsatsitako etxeen profila honako hau da: erdisotoa aparkaleku pribatuentzako sestra azpian, eta behe-solairu, goi-solairu eta teilatupea etxebizitzarako sestra gainetik. Teilatu-hegalerrainoko altuera 7 metrokoa izango da.

Bi etxebizitza-blokeen profila berriz: aparkalekuko erdisotoa, komertzioko edo zuzkidurako behe-solairua eta etxebizitzako bi goi solairu. Teilatu-hegalerrainoko altuera 9 metrokoa izango da.

### 3.1.2.5. GIZARTE-TXERTATZEA

Etxe-multzo berriko biztanleek sendotutako komunitatean integratzeko ahalbideen gainekoa izan behar du azterketa, baina, hirigintzako jarduketa bati dagokionez, ordenazioak interrelazioak bideratzeko eman ditzakeen aukeren analisisira bideratua.

Ordenazioa herriguneari itsatsita dago, honen ekialdeko muturrean. Herri plazatik 100 eta 250 metro arteko distantziara dago. Aurreko barrutian bezala, beheko kaleak, ingurabiedak, herriguneari daukan komunikazio arazoa desnibela da. Plazarekin lotura zuzena Plaza Aurrea barrutiaren bidez egingo beharko litzateke.

Santiago bideari dagokionez, honek ez du desnibelaren arazorik, baina ezin da plazaraino oinezkoentzako soilik den ibilbiderik egin. Santiago bideko luzera osoan espaloia dago eta baita ere errepideko zati batean, baina elizara iritsi aurretik bukatu egiten da eta errepideea erabili behar da plazarantz jarraitzeko.

Esparru barneko komunikazioa berriz eskailera bati lotuta dago, ez dago lotura irisgarria egiteko aukerarik. Badago, halaz ere, esparruko biztanleen barne erlaziorako espazioa antolatzeko lekua, lehen aipatu dugun eran. Espazioa esparruaren inguruko etxeen bizilagunentzako ere baliagarria litzateke, baina ez litzateke oso handia izango eta ingurabidea barne komunikaziorako den oztopoak bere erabilera baldintzatuko luke.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
**BEHIN-BHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA**  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

Etxebizitzaren tipologiei dagokionez, herrigunean dauden artekoak dira. Esparrura etorriko den jendea aurrez dagoenean antzekoa izango dela ondorioztatu daiteke, beraz. Integrazioarako ez dut alde horretatik arazorik ikusten

### 3.1.2.6. GENERO-IKUSPEGIA

Generoko hirigintza ikusgarritasunaren hirigintza da, espazioen erakusketa etengabea, ahal den behaketa zabalena, idealki unibertsala, ahalbideratzen duena.

Ikuspegi honetatik, barruti honetan baldintzak ez dira aurrekoan bezain onak, baina ez dira txarrak. Ez dago espazio publiko itsurik. Perspektibak luzeak dira eta etxeak puntu guztietatik gertu daude. Puntu itxiena ordenazioko bi mailak lotzen dituen eskailera da.

### 3.1.3. 03 AUKERA. LURGAIN



<b>03. AUKERA. LURGAIN</b>	
<b>AZALERA</b>	797 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK</b>	107 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BIDEAK</b>	107 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PUBLIKOEN KOPURUA</b>	0
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BERDEGUNEAK</b>	0 m <sup>2</sup>
<b>LURSAIL PRIBATUAK</b>	690 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA AZPIKO OKUPAZIOA</b>	139 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO OKUPAZIOA</b>	139 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA</b>	350 m <sup>2</sup>
<b>ZENBATETSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA</b>	2
<b>APARKALEKU PRIBATUEN KOPURUA</b>	5
<b>ERAIKINEN PROFILA (SESTRA AZPIAN /SESTRA GAINEAN)</b>	I / II + TP

#### 3.1.3.1. ESPAZIO PUBLIKOAK

Eremua hiri-lurzoruan kokatuta dago. 2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arabera bere azaleraren %15 tokiko sistemen berdegunea izan beharko luke baina ez dago lagapena gauzatzetik. Konpentsatu beharko da.

#### 3.1.3.2. BIDE-ANTOLATZEA ETA IRISGARRITASUNA

Hemen ez dago bide berririk. Eremuaren aurrealdetik pasatzen den espaloiri bere beste zatietan dituen ezaugarriak ematen zaizkio, zerrenda publikoa zabalduz.

Zati horretan espaloia ia laua da, beraz irisgarria da, planteatzen diren bi etxebizitza familia bakarrekoen sarrerak irisgarriak diren era berean.

#### 3.1.3.3. ORIENTAZIOA ETA ERLIEBERA EGOKITZEA

Orientazioa ona da. Eraikinaren aurrealdeak hegoaldera ematen du. Etxebizitzen bi solairuak errepideko sestraren gainetik geratzen dira, eta aurrez aurre, errepidearen beste aldean, beste familia bakarreko etxe bat badute ere, artean dagoen distantza nahikoa da eguzkiak jasotzeko arazoak ez izateko.

Iparraldetik ez du haizearen aurreko babesik, bista onak aldiz, bai, Larraul aldera guztiz irekiak.

Erliebera egokitzeko erdisotoaren altuera handia izan behar du, 4 metrokoa. Kontutan eduki behar da erdisotoari ematen zaion ibilgailuen sarrera alboko lursailetik datorrela, eta beraz bere maila behartua da.

Kasu honetan etxea ezartzeko egin beharreko lurren egokitzapenean betelana indusketa baino handiagoa da. Materiala kanpotik ekarri beharko da.

#### 3.1.3.4. ERAIKINEN PROFILA

Familia bakarreko itsatsitako bi etxebizitzaren profila honako hau da: erdisotoa aparkaleku pribatuentzako sestra azpian, eta behe-solairu, goi-solairu eta teilatupea etxebizitzarako sestra gainetik. Teilatuegalerainoko altuera 7 metrokoa izango da.

#### 3.1.3.5. GIZARTE-TXERTATZEA

Etxe-multzo berriko biztanleek sendotutako komunitatean integratzeko ahalbideen gainekoa izan behar du azterketa, baina, hirigintzako jarduketara bati dagokionez, ordenazioak interrelazioak bideratzeko eman ditzakeen aukeren analisira bideratua.

Eremua hiri-bilbean integratuta dago, gizarte-txertatzerako egokia da kokapena, naiz zuzkidura eta espazio publiko nagusietatik 140 metro aldentuta egon, horietara iristeko ibilbidearen irisgarritasun akatsak aurreko esparruan aipatu ditugun berberak direlarik.


Etxebizitzaren tipologiei dagokionez, herrigunean daudenen artekoak dira. Esparrura etorriko den jendea aurrez dagoenearen antzekoa izango dela ondorioztatu daiteke, beraz. Integrazuorako ez dut alde horretatik arazorik ikusten

#### 3.1.3.6. GENERO-IKUSPEGIA

Generoko hirigintza ikusgarritasunaren hirigintza da, espazioen erakusketa etengabea, ahal den behaketa zabalena, idealki unibertsala, ahalbideratzen duena.

Eremua errepideak duen 140 metroko zuzengunearen erdian dago, etxeko sarrerak zuzenean espaloira ematen dute. Ez da jende asko ibiliko baina perspektiba irekia da.

### 3.1.4. 04 AUKERA. ELIZEGI



<b>04. AUKERA. ELIZEGI</b>	
<b>AZALERA</b>	228 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK</b>	52 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BIDEAK</b>	52 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PUBLIKOEN KOPURUA</b>	0
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BERDEGUNEAK</b>	0 m <sup>2</sup>
<b>LURSAIL PRIBATUAK</b>	176 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA AZPIKO OKUPAZIOA</b>	91 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO OKUPAZIOA</b>	91 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA*</b>	230 m <sup>2</sup>
<b>ZENBATETSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA</b>	2
<b>APARKALEKU PRIBATUEN KOPURUA</b>	4
<b>ERAIKINEN PROFILA (SESTRA AZPIAN /SESTRA GAINEAN)*</b>	I / II + TP

\* Sestra gainekoa jartzen badu ere, ez dago argi, zeren profilean ikus daitekeenez, sarrerako maila etxebizitzako bigarren maila da eta bere azpian dagoena, etxebizitzako lehen maila, erdisotoa izan daitekeelako.

#### 3.1.4.1. ESPAZIO PUBLIKOAK

Eremua hiri-lurzoruan kokatuta dago. 2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arabera bere azaleraren %15 tokiko sistemen berdegunea izan beharko luke baina ez dago lagapena gauzatzerik. Konpentsatu beharko da.

#### 3.1.4.2. BIDE-ANTOLATZEA ETA IRISGARRITASUNA

Hemen ez dago bide berririk. Eremuaren aurrealdean errepidearen ondoan espaloi berria egiten da. Beste espaloi bat egin behar da atzealdean, aparkalekuko erdisotoko mailan. Espaloi honen zehar sartuko lirateke ibilgailuak, baina hori egin ahal izateko Plaza Atzea esparruko urbanizazioa egina egon beharko luke. Erdisoto horren erabilera Plaza Atzeako garapenak baldintzatuta dago.

Aurrealdeko espalo berria ezin da irisgarria izan errepideak zati horretan gehiegizko malda duelako. Atzeko espaloia irisgarria izan daiteke Plaza Atzeako ordenazioaren arabera.

#### 3.1.4.3. ORIENTAZIOA ETA ERLIEBERA EGOKITZEA

Eguzki aldera solairu bakarrak ematen du, taulako oharrean esan dugun eran, etxebizitzako bi solairuen baxuena errepidearen mailatik behera dagoelako.

Errepidearen mailatik gora dagoen solairu horretan eta teilatupean eguzkia jasotzea ez dago ziurtatuta, eliza aurrez aurre daukatelako. Eguerdian udaran iritsiko zaio, baina neguan ez da ziurra. Goizean urte osoan joko du.

Iparraldetik ez du haizearen aurreko babesik, bista onak aldiz, bai, Larraul aldera guztiz irekiak.

Erliebera egokitzeari dagokionez, etxebizitzako solairuen mailak esan dugun eran kokatzearen eta aparkalekuko erdisotoaren 3,46 metroko altuera edukitzearen zioa ez da mazelaren desnibela, aparkalekuko erdisotoari ematen zaion ibilgailuen sarrera Plaza Atzea ordenazio-aukerako urbanizaziotik egiten dela baizik. Urbanizazioaren maila lurraren mailatik behera dago puntu horretan.

Kasu honetan etxea ezartzeko egin beharreko lurren egokitzapenean indusketa da ia dena.

#### 3.1.4.4. ERAIKINEN PROFILA

Aurreko ataletan deskribatutakoa da. Errepide aldera teilatu-hegalerrainoko gehienezko altuera 4,5 metrokoa izango da.

#### 3.1.4.5. GIZARTE-TXERTATZEA

Etxe-multzo berriko biztanleek sendotutako komunitatean integratzeko ahalbideen gainekoa izan behar du azterketa, baina, hirigintzako jarduketa bati dagokionez, ordenazioak interrelazioak bideratzeko eman ditzakeen aukeren analisisira bideratua.

Eremua hiri-bilbean integratuta dago, gizarte-txertatzerako egokia da kokapena, zuzkidura eta espazio publiko nagusietatik 35 metrotara dago. Ibilbidea ez da irisgarria errepideak malda handia duelako.

Etxebizitzaren tipologiei dagokionez, herrigunean dauden artekoak dira. Esparrura etorriko den jendea aurrez dagoenearen antzekoa izango dela ondorioztatu daiteke, beraz. Integrazuorako ez dut alde horretatik arazorik ikusten

#### 3.1.4.6. GENERO-IKUSPEGIA

Generoko hirigintza ikusgarritasunaren hirigintza da, espazioen erakusketa etengabea, ahal den behaketa zabalena, idealki unibertsala, ahalbideratzen duena.

Eremua herrigunearen bihotzean egoteak bere ziurtasunari laguntzen dio, naiz eliza den eraikin itxiak nolabaiteko zokoratzea eragin, etxea kokatzen den lekuan perspektiba handirik irekitzen ez delako.

### 3.1.5. 05 AUKERA. PLAZA ATZEA



<b>05. AUKERA. PLAZA ATZEA</b>	
<b>AZALERA</b>	6.425 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK</b>	3.189 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BIDEAK</b>	1.389 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PUBLIKOEN KOPURUA</b>	17
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BERDEGUNEAK</b>	1.797 m <sup>2</sup>
<b>LURSAIL PRIBATUAK</b>	3.239 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA AZPIKO OKUPAZIOA</b>	2.013 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO OKUPAZIOA</b>	1.141 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA</b>	2.800 m <sup>2</sup>
<b>ZENBATETSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA</b>	19
<b>BEHE SOLAIRU TERTZIARIOA EDO ZUZKIDURAKOA</b>	248 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PRIBATUEN KOPURUA</b>	40
<b>ERAIKINEN PROFILA (SESTRA AZPIAN /SESTRA GAINEAN)</b>	I / II + TP I / III

#### 3.1.5.1. ESPAZIO PUBLIKOAK

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arabera barrutiko azaleraren %15 tokiko sistemen berdegunea izan beharko luke. Ordenatzen dena eskaera hori bikoiztetik gertu dago. Berdeguneak malda handiko mazelak dira. Ordenazioaren erdigunean dimentsio onak dituen zatia dago, aisiako erabilerak jasotzeko moldatu daitekeena, naiz malda handiaren eragozpena izan. Edozein kasuan, berdeguneek natura ordenazioan iragaz dadin balioko dute.

#### 3.1.5.2. BIDE-ANTOLATZEA ETA IRISGARRITASUNA

Oinezko eta ibilgailuentzako bide bakarra marrazten da. Oinezkoentzako esparruko luzera osoa hartzen du eta ibilgailuentzako luzera horren erdia soilik.

Oinezkoentzako herrigunearekin lau lotura daude, bana ordenazioaren muturretan, esparruaren barnean irisgarriak direnak baina irisgarriak ez diren bideetara ematen dutenak, eta tarteko puntutan beste bi lotura eskaileren bidezkoak, bat 04 aukeraren ondotik egiten dena eta bestea ostatuaren atzeko aparkalekura ematen duena.

Ibilgailuentzako berriz, lotura bakarra dago, Sagasti Zahar baserriaren ondotik errepidearekin egiten dena.

Oinezkoentzako luzetarako ardatza irisgarria da, baina esan den bezala, ez du herriguneko plaza eta zuzkidura nagusiekin lotura irisgarriarik. Ezin du eduki, herrigune historikoaren gabezia delako, herrigunearen ibilbide nagusiak irisgarriak ez direlako plazatik kanpo geratzen diren etxeetarako.

#### 3.1.5.3. ORIENTAZIOA ETA ERLIEBERA EGOKITZEA

Naiz eta ordenazioa iparraldera ematen duen mazelan eta herrigunea baino beherako kokatuta egon, eraikin berriak zaharretatik aldentuta daude eta ez dute eguzkiaren argia jasotzeko arazorik izango. Hobe da ekialdeko eraikin-lerroaren orientazioa, guztiz ekialde-mendebalde ardatzean ezarrita baitago, mendebaldeko eraikin-lerroarena baino, azken honen orientazio hegomendebalde-iparekialdea baita. Honen aurrealdeek eguzki proportzio txikiagoa jasoko dute, baina ordainean, arratsalde ere atzeko aldean eguzkia edukiko dute.

Ipparraldetik ez du haizearen aurreko babesik, bista onak aldiz, bai, Larraul aldera guztiz irekiak.

Erliebera egokitzeari dagokionez, beste aukera ia guztietan bezala ez dago arazorik desnibela erdisotoaren altuerarekin berdintzen delako etheen zabalera. Aurrez, aztertutako beste kasuetan bezala ez da indusketa betelanarekin orekatzen, materialak hondakindegitarra garraiatu beharko dira.

#### 3.1.5.4. ERAIKINEN PROFILA

Bi eraikin mota daude ordenazioan, familia bakarreko etxebizitzak multzo-lerrotan edo binaka itsatsiak, eta etxebizitza blokea, behe solairuan erabilera tertziario edo zuzkidurakoak eduki ditzakeena. Lehen motako eraikinen profilak erdisotoa, behe-solairu, goi-solairu eta teilatupea dauzka eta bigarren motako eraikinaren profilak erdisotoa, behe solairu eta bi goi solairu ditu.

Teilatu-hegalerrainoko altuera 7 metro lehenengo motako etxeetan eta 9 metro blokean.

#### 3.1.5.5. GIZARTE-TXERTATZEA

Etxe-multzo berriko biztanleek sendotutako komunitatean integrazteko ahalbideen gainekoa izan behar du azterketa, baina, hirigintzako jarduketara bati dagokionez, ordenazioak interrelazioak bideratzeko eman ditzakeen aukeren analisisira bideratua.

Ordenazioa herrigunearen parean dago, lau lotura ditu honekin konektatzeko, ez da baztertuta geratuko den auzoa. Tipologien aldetik ere, etxe normalak aurrakusten dira, herriguneko berrien antzekoak, beraz jende mota berarentzat egokiak izan daitezkeenak, ez dute zertan bazterketarik sortu behar.

#### 3.1.5.6. GENERO-IKUSPEGIA

Generoko hirigintza ikusgarritasunaren hirigintza da, espazioen erakusketa etengabea, ahal den behaketa zabalena, idealki unibertsala, ahalbidetzen duena.

Esparruko bideek perspektiba luzeak dituzte, etxez inguratuta daude eta herriguneko zenbait espazioetatik ikusgarriak dira. Ez da ordenazioko urbanizazioan zokorik sortzen.

**3.1.6. 06 AUKERA. SANTIAGO BIDEA**



<b>06. AUKERA. SANTIAGO BIDEA</b>	
<b>AZALERA</b>	2.171 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK</b>	1.186 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BIDEAK</b>	471 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PUBLIKOEN KOPURUA</b>	7
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BERDEGUNEAK</b>	715 m <sup>2</sup>
<b>LURSAIL PRIBATUAK</b>	985 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA AZPIKO OKUPAZIOA</b>	784 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO OKUPAZIOA</b>	472 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA</b>	1.200 m <sup>2</sup>
<b>ZENBATETSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA</b>	10
<b>BEHE SOLAIRU TERTZIARIOA EDO ZUZKIDURAKOA</b>	248 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PRIBATUEN KOPURUA</b>	17
<b>ERAIKINEN PROFILA (SESTRA AZPIAN /SESTRA GAINEAN)*</b>	I / III

- Erdi-mailez osatutako profila da. Mailen artean h=1,5m

**3.1.6.1. ESPAZIO PUBLIKOAK**

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arabera barrutiko azaleraren %15 tokiko sistemen berdegunea izan beharko luke. Ordenatzen denaK eskaera hori gainditzen du. Berdeguneak malda handiko mazelak dira, ez dute erabilgarriak izateko dimentsiorik, baina edozein kasuan, natura ordenazioan iragaz dadin balioko dute.

#### 3.1.6.2. BIDE-ANTOLATZEA ETA IRISGARRITASUNA

Santiago bidea 5,5 metrotara zabaldu egiten da planteatzen den ordenazioan. Santiago bidea zati horretan ez da irisgarria, daukan batez-besteko malda %6 baino handiagoa delako.

Iriskgarria izateko espaloia errepidetik aldentzen da. Etxeen sarrerainiko ibilbidea irisgarria izango da, %6-ko malda izango du. Ibilbidearen ekialdeko angeluan errepidearen maila hartzen du, eta puntu horretan espaloia errepidearekin horizontalki lotu daiteke eta ondoan irisgarritasun baldintzak beteko dituen egokitutako aparkalekua jar daiteke.

#### 3.1.6.3. ORIENTAZIOA ETA ERLIEBERA EGOKITZEA

Orientazio ezin hobea da, etxeak mazelan integratzen direnez, eta hau hegoaldera jaisten doanez, etxeak iparraldetik mazelak berak babestuta daude eta hegoaldera guztiz irekita geratzen dira.

Beste alde, erliebera egokitzeari dagokionez, kokatzeko mazela nahiko etzana da. Solairuak erdi-mailatan antolatzean lurrean egiten den txertatzea errazagoa da, profileko marrazkian ikus daitekeenez. Ordenazio honetan indusketa betelanarekin orekatzeko aukera gehiago daude.

#### 3.1.6.4. ERAIKINEN PROFILA

Esan dugunez erdi-solairutan antolatzen da profila. Etxebizitza bakoitzean plantako iparraldeko erdia maila batean dago eta hegoaldeko erdia 1,5m gorago edo beherago. Bi mailen artean eskailera-atal bakarra dago, bi eskailera-atalekin solairu baten altuera osoa (3m) salbatzen da. Sestra azpian erdi-maila bakarra dago, iparraldera zabaltzen den aparkalekuarena, eta sestra gainean, iparraldera 2 erdimaila eta hegoaldera 3 erdi-maila daude.

Teilatu-hegalerainoko altuera 6,5 metrokoa izango da iparraldeko fatxadan eta 8,5 metrokoa hegoaldeko fatxadan.

#### 3.1.6.5. GIZARTE-TXERTATZEA

Etxe-multzo berriko biztanleek sendotutako komunitatean integratzeko ahalbideen gainekoa izan behar du azterketa, baina, hirigintzako jarduketa bati dagokionez, ordenazioak interrelazioak bideratzeko eman ditzakeen aukeren analisisira bideratua.

Ordenazioa herriguneari itsatsita dago, honen ekialdeko muturrean. Herri plazatik 200 eta 250 metro arteko distantziara dago.

Esparrutik ezin da plazaraino oinezkoentzako soilik den ibilbiderik egin. Santiago bideko luzera osoan espaloia dago eta baita ere errepideko zati batean, baina elizara iritsi aurretik bukatu egiten da eta errepiedea erabili behar da plazarantz jarraitzeko.


Etxebizitzen tipologiei dagokionez, herriguneari dauden artekoak dira. Esparrura etorriko den jendea aurrez dagoenaren antzekoa izango dela ondorioztatu daiteke, beraz. Integrazuierako ez dut alde horretatik arazorik ikusten

#### 3.1.6.6. GENERO-IKUSPEGIA

Generoko hirigintza ikusgarritasunaren hirigintza da, espazioen erakusketa etengabea, ahal den behaketa zabalena, idealki unibertsala, ahalbidetzen duena.

Esparruko espazioek perspektiba luzeak dituzte, etxeen aurrean daude eta ez da ordenazioko urbanizazioan zokorik sortzen.

**3.1.7. 07 AUKERA. PLAZA ATZEA 2B**



<b>07. AUKERA. PLAZA ATZEA 2B</b>	
<b>AZALERA</b>	6.457 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO ZUZKIDURA PUBLIKOAK</b>	4.148 m <sup>2</sup>
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BIDEAK</b>	2.494 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PUBLIKOEN KOPURUA</b>	18
<b>TOKIKO SISTEMEN SAREKO BERDEGUNEAK</b>	1.654 m <sup>2</sup>
<b>LURSAIL PRIBATUAK</b>	2.309 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA AZPIKO OKUPAZIOA</b>	1.622 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO OKUPAZIOA</b>	1.141 m <sup>2</sup>
<b>ETXEBIZITZEN SESTRA GAINEKO ERAIKIGARRITASUNA</b>	2.800 m <sup>2</sup>
<b>ZENBATETSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA</b>	19
<b>BEHE SOLAIRU TERTZIARIOA EDO ZUZKIDURAKOA</b>	248 m <sup>2</sup>
<b>APARKALEKU PRIBATUEN KOPURUA</b>	40
<b>ERAIKINEN PROFILA (SESTRA AZPIAN /SESTRA GAINEAN)</b>	I / II + TP I / III

**3.1.7.1. ESPAZIO PUBLIKOAK**

2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen arabera barrutiko azaleraren %15 tokiko sistemen berdegunea izan beharko luke. Ordenatzen dena eskaera hori gainditzen du. Berdeguneak malda handiko mazelak dira. Ordenazioaren erdigunean dimentsio onak dituen zatia dago, aisiako erabilerak jasotzeko moldatu daitekeena, naiz malda handiaren eragozpena izan. Edozein kasuan, berdeguneek natura ordenazioan iragaz dadin balioko dute.

Berdeguneen gain, pisuen eraikinaren aurrean plazatxo bat jartzen da 241m<sup>2</sup> dituen, eraikineko behe solairuan jar daitezkeen komertzio edo zuzkidurako jardueri zerbitzua eman ahal diena.

**3.1.7.2. BIDE-ANTOLATZEA ETA IRISGARRITASUNA**

Bide antolaketari dagokionez bertsio honen ezaugarri nagusia ingurubidea da. Ekialdetik hastean eta esparruaren erdialderaino oinezkoen ibildideetatik bereizita doa. Ekialdeko etxe multzoaren aparkalekuko sorotoaren mailan pasatzen da eta honek etxebizitza bakoitzeko garajeari sarrera bereizia ematea ahalbideratzen du. Hala ere badago guztiei sarrera bateratu bakarra emateko aukera ere.

Mendebaldera bideak gora egiten du eta egun dagoen eta herriguneko etxeen lursailen itxitura murruei itsatsita jarraitzen du, egun bertan dagoen bidexkaren plataforma erabiliz. Bidea egungo errepedearekin bat egiten bukatzen da, honek udaletxea eta eskolaren artera bideratzeko egiten duen azken biurguneari lotzen delarik.

Oinezkoentzako herriguneari hiru lotura daude, bat ordenazioaren mendebaldko muturrean, esparruaren barnean irisgarria dena baina irisgarria ez den bidera ematen duena, eta tarteko puntutan beste bi lotura eskaileren bidezkoak, bat 04 aukeraren ondotik egiten dena eta bestea ostatuaren atzeko aparkalekura ematen duena. Esparruko etxe multzoak lotzen dituen oinezkoentzako ibilbide osoa irisgarria da, aparkaleku publikoetara ailegatzeko badago ere ibilbide irisgarria. Baina esan den bezala, ibilbide horrek ez du herriguneko plaza eta zuzkidura nagusiekin lotura irisgarririk. Ezin du eduki, herrigune historikoaren gabezia delako, herriguneari ibilbide nagusiak irisgarriak ez baitira plazatik kanpo geratzen diren etxeetarako.

#### 3.1.7.3. ORIENTAZIOA ETA ERLIEBERA EGOKITZEA

Naiz eta ordenazioa iparraldera ematen duen mazelan eta herrigunea baino beherako kokatuta egon, eraikin berriak zaharretatik aldentuta daude eta ez dute eguzkiaren argia jasotzeko arazorik izango. Hobe da ekialdeko eraikin-lerroaren orientazioa, guztiz ekialde-mendebalde ardatzean ezarrita baitago, mendebaldeko eraikin-lerroarena baino, azken honen orientazio hegomendebalde-iparekialdea baita. Honen aurrealdeek eguzki proportzio txikiagoa jasoko dute, baina ordainean, arratsalde ere atzeko aldean eguzkia edukiko dute.

Iparraldetik ez du haizearen aurreko babesik, bista onak aldiz, bai, Larraul aldera guztiz irekiak.

Erliebera egokitzeari dagokionez, mendebaldeko eraikin lerroan mazelako malda oso handia denez eta kalea errepedearekin lotzeko maila jakin baten joan behar duenez, ez da nahiko eraikina bera desnibela salbatzeko. Eragozpen hau ebazteko tentuz aztertu beharko litzateke kaleak errepedearekin bat egiteko forma eta hartu beharko lukeen maila.

Aurrez, aztertutako beste kasuetan ez bezala, hemen ekialdeko zatian betelana izango da nagusi indusketaren aldean, eta mendebaldeko zatian gauza orkatuagoa egongo da.

Esan denez kale berria herriguneko eraikin zaharren lursailtako murruei parean joango da eta kalearen nibela murruei hauen egonkortasuna ez kaltetzeko planteatu da. Aztertu beharrekoa ere Letetik plazara doan bideari kale berriaren igarotzea eragiten diona. Nola egin kaleak bide historiko hori eten ez dezan.

#### 3.1.7.4. ERAIKINEN PROFILA

Bi eraikin mota daude ordenazioan, familia bakarreko etxebizitzak multzo-lerrotan edo binaka itsatsiak, eta etxebizitza blokea, behe solairuan erabilera tertziario edo zuzkidurakoak eduki ditzakeena. Lehen motako eraikin profila erdisotoa, behe-solairu, goi-solairu eta teilatupea dauzka eta bigarren motako eraikinaren profila erdisotoa, behe solairu eta bi goi solairu ditu.

Teilatu-hegalerrainoko altuera 7 metro lehenengo motako etxeetan eta 9 metro blokean.

#### 3.1.7.5. GIZARTE-TXERTATZEA

Ordenazioa herriguneari parean dago, hiru lotura ditu honekin konektatzeko, ez da baztertuta geratuko den aztoa. Tipologiaren aldetik ere, etxe normalak aurrakusten dira, herriguneko berrien antzekoak, beraz jende mota berarentzat egokiak izan daitezkeenak, ez dute zertan bazterketarik sortu behar.

#### 3.1.7.6. GENERO-IKUSPEGIA

Generoko hirigintza ikusgarritasunaren hirigintza da, espazioen erakusketa etengabea, ahal den behaketa zabalena, idealki unibertsal, ahalbideratzen duena.

Esparruko bideek perspektiba luzeak dituzte, etxez inguratuta daude eta herriguneko zenbait espazioetatik ikusgarriak dira. Ez da ordenazioko urbanizazioan zokorik sortzen.

### **3.2. AUKEREN ARTEKO ERKATZEA, BATERAGARRITASUNA ETA OSAGARRITASUNA**

Aurrerakineko dokumentuan horrela erkatzen dira alternatibak:

*“Etxebizitzako barrutiak dira guztiak, eta lurraldeko plangintzak Alkizari aurrirakusten dion etxebizitza berrien kopurua ordenatzeko, aukeretakoa bat ordenatzea ez da nahikoa izango. Hainbat aukera batera hartzea beharrezkoa izango da helburua betetzeko.*

*Bi garatze alde nabarmentzen dira aukeretan. Herriguneko hego-ekialdean planteatzen diren aukerak eta ipar-mendebaldean proposatzen direnak.*

*Bi garapen-kokagune nagusi horien osagarri geratuko lirateke Elizatik iparrera eta ipar-ekialdera errepideari eta Santiago bideari itsatsita definitzen diren aukera txikiagoak.*

- Intereseko kirolengatik eta bultzatu beharko litzatekeenagatik galdetzean:
  - Mendi kirolak (ibilbideak, traila, eskalada, etab.)
  - Frontoia erabiltzeko argi indarra merkeago eta herriko eskola-umeek izatea bertan jolasteko lehentasuna
  - Pilota eta herri kirolak bultzatzea
  - Inguruko polikiroldegi batzuetan (batean) alkizar bezala deskontuak udako igerilekua
  - Gazteek kirol ezberdinak egin ahal izateko baliabideak: porteriak, saskibaloia, saskiak,....
  - Bestelako kirol zaletasunak: atletismoa, txirrindularitza, saskibaloia, frontenisa

#### **GENERO IKUSPEGIA**

- Genero ikuspegiaren gainean ez dago egiten denaren ezagutzarik (%52)
- Zerbait gehiago egin beharko litzatekeen galdetzean:
  - Beti dago zer egina.
  - Ez, lan ona egiten ari dela iruditzen zait
  - Oso azaleko lana egiten ari dela uste dut
  - Oso ondo dago egiten dena
  - Genero berdintasunean aurrera gizonetzkoan parte-hartzea indartu

#### **PARTAIDETZA**

- Parte hartzeko gogoia badu herritarrek: inkesta bidez, gai zehatzak lantzeko, auzolanean batez ere.
- Udal hauteskundeetan parte hartuz ere parte hartuko lukete gutxi batzuk.

#### **ETORKIZUNERAKO ERRONKAK**

- Alkizak dituen etorkizuneko erronka nagusiengatik galdetzean, hauek dira nagusitu direnak:
  - 1. HERRITARREN BEHARREI EGOKITZEN DEN ETXEBIZITZAK ESKAINTZEA.
  - 2. ERRETORE ETXEA BIRGAITZEA ETA HERRIAREN ZERBITZUEZ HORNITZEA
  - 3. ELIKAGAIAK ETA ETXEKO PRODUKTUAK HERRIAN BERTAN EROSI AHAL IZATEA
  - 4. HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK ASETU
  - 5. ADINEKO PERTSONEN ETA EZGAIUEN ZAINZTA

### **4.2.3. HERRITARREKIN EGINDAKO BILERAK**

Emaitzak aztertu ondoren herritarrekin bilerak egin ziren.

#### **4.2.3.1. GAZTEEKIN BILERA**

Herritar gazteekin egin zen bileran 8 gazte elkartu ziren (16-17 urteko arteko 3 gazte eta 25-30 urte arteko 5 gazte) galdetegiko emaitzak ezagutu eta 2030erako Alkizak dituen erronka eta eginbeharretaz hitz egiteko. Herriko erronka nagusien inguruko hausnarketa eskatu zitzaion. Hauek ziren: etxebizitza, mugikortasuna-irrisgarritasuna, partaidetza bultzatzea, landa eremuko ekonomia, Erretore etxea, aisia eta gazteak eta oinarrizko zerbitzuak herrian.

Etxebizitzari buruzko gazteen aburuak:

Erronka nagusia eta premiazkoa etxebizitza eskaintza areagotzea litzateke, herriko gazteen beharrei egokittuta dena. Gazte asko daude herrian eta arriskua bada bertako gazteak etxebizitza kanpoan bilatu beharrean izatea. Hutsik geratzen diren baserriek duten potentziala probestu beharko litzateke, baserri batean etxebizitza bat baino gehiago egiteko aukerak erraztuz.

Mugikortasunari buruzko gazteen aburuak:

Foru Aldundiarekin borrokatu garraio publikoaren zerbitzu maiztasuna areagotu eta herritarren beharretara egokitzeko. Kotxea elkar banatzeko saiaketak egin daitezke aplikazio baten bitartez. Plazako aparkalekua herritarrentzat bai baina kanpotik datozenak hilerriko parkinera bideratu beharko lirateke.

Partaidetzari buruzko gazteen aburuak:

Herriko hainbat lan auzolanean egitea bultzatu beharko litzateke, batez ere natur eremuari dagokion kudeaketan, herri-bideak garbitzen eta konpontzen (Urkizun,..), etab. Lan hauek udaran gazteek egin ditzaten ordainsariak jartzea ere aukera bat da.

Landa ekonomiari buruzko gazteen aburuak:

Baserriari laguntza eskaini behar zaio, landa eremuaren kudeatzaile izanik eta mendiaren iraunkortasunerako duen garrantzia ikusita, landa-jarduera bultzatzea beharrezkoa da: ganaduak, nekazaritza, basogintza iraunkorra,... Fagus Alkizan egiten diren lanak herritarren artean gehiago zabaltzea beharrezkoa da, askok ez dute ezagutzen.

Erretore etxeari buruzko gazteen aburuak:

Erretore-etxearen gainean oraindik hausnarketa eta eztabaida prozesu bat irekitzea eskatzen da. Eskatzen diren zerbitzuen artean, hauek: Ostata, kafetegia eta honi loturik dendatxo bat (lehengai eta bertako eta inguruko produktuekin), Barnetegi-aterpetxea berriro ere martxan jartzea, zerbitzu handia emango bait luke (AEK-UEMA, udalekuak, erakunde ezberdinek erabiltzeko, erromesentzako aterpetxe bezala, etab.), Tailer eta ikastaroentzako gunea (eskulanak, antzerkia,...).

Aisia eta gateak gaiari buruzko gazteen aburuak:

Orohar ikastaro-tailer eskaintza zabaltzea beharko litzateke herriari bizia emateko: eskulanak, jostintza, baratzagintza, dantza,... Nerabe eta gazteen nahiak entzun beharko lirateke aurrez. Gazteen dinamizazioa eskualde mailan egin izan da (Aiztondo) eta berriro ere horrelako zerbait bultzatu beharko litzateke, jarduera interesgarriak eskaini bait dira modu horretan: eskalatzeko, puenting egiteko irteerak, etab. Billabonako kiroldegiarekin hitzarmen bat bideratzea sarrera merkatzeko.

Oinarrizko zerbitzuak herrian gaiari buruzko gazteen aburuak:

Lokal edo dendatxo bat lehen mailako gaiak erosi ahal izateko beharrezkoa da. Nola egin ordea bideragarri? Ostatuko zerbitzuari loturik joan behar da edo herritarrek kudeatzea beharrezkoa litzateke?. Eredu ezberdinak daude (Orexa, Baliarrain). Herrian dagoen kutxazaina mantendu ezezik berritu behar da. Ikasgela bat formalizatzea eta ondo egokitzea "Juanenan". Etxeko konposta bultzatzeko saiakerak kale egin dute eta 5. Edukiontzia jartzea izan da irtenbide bakarra. Hau ondo erabiltzea norberaren ardura da. Hala ere, birziklatzea bultzatu behar da, kontzientziatzeko datuak emanez, birziklatzeak izango lituzkeen onurak partekatuz, etab.

#### 4.2.3.2. HELDUEKIN BILERA

Herriko helduen bilerara 9 herritar elkartziren (36 urtetik gorakoak). Kasu honetan aztertu beharreko gaiak hauek ziren: zaintza, etxebizitza, mugikortasuna-irisgarritasuna, oinarrizko zerbitzuak herrian, landa eremuko ekonomia, partaidetza, Erretore etxea eta aisia eta gazteak.

Zaintzari buruzko helduen aburuak:

Bakardadea pairatzen duten herritar helduenei begira zerbait egin beharra dago: jubilatuen txokoa beste era batera dinamizatu, sasoiak dauden jubilatutako gazteagoek bakarrik dauden horiei konpainia egiteko programa bat bideratu (bolondresak). Gizarte zerbitzuen prozedurak zailak izaten jarraitzen dute eta eskaintzen den zerbitzua ez da nahikoa izaten, prozedurak erraztu beharko lirateke.

Etxebizitzari buruzko helduen aburuak:

Herri proiektu bezala herritarrentzako etxebizitza beharra asetuta egotea beharrezkoa da. Orain arte ez da eskari handiegirik egon bertakoen aldetik, baina datozen urteetan beharra aurreikusten da.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Etxebizitza eredu ezberdinak planteatu daitezke, badaude ereduak: etxebizitza partekatuak (zerbitzu partekatuak), etab. Ondo legoke eredu hauek herritarrei ezagutaraztea, oraindik ere herritarren gehiengoaren mentalitatea eredu berri hauei nahiko itxita egon badaiteke ere. Zerbitzu partekatuak eta estudio txikiak dituzten eraikinen ereduak bakardadean bizi diren pertsona helduenentzako irtenbide on bat izan daiteke. Baserriak hutsik geratzen ari diren honetan, hauek etxebizitza txikiagoetan banatzeko potentzial handia izan dezakete, hauek kanpo egitura mantenduz.

Mugikortasunari buruzko helduen aburuak:

Udaletxe – eskola – plaza aurreko eremu horretan konfliktu puntu bat dago. Arrisku egoerak sortzen dira ibilgailuen plazako sarrera irteeretan. Irtenbideetako bat plazako parkinaren sarrera mugatzea izan badaiteke ere, guztiak ez daude ados mugatze horrekin. Herritar batzuk ados egongo lirateke kanpotarrak hilerria bideratzearekin, plaza herritarrentzako soilik utziz, beste herritar batzuk aldiz ez lukete bereizketarik egin nahiko eta ez dute horrenbesteko arazorik ikusten. Hilerriko parkina txiki geratu dela ere aipatu da (Turismoari begira bertan jarri diren elementuek toki gutxi utzi dute) eta zabaldu beharko litzatekeela kanpotik datozenek tokia izan dezaten. Oinez ibiltzea bultzatzeko oreka bat bilatu beharko litzateke.

Oinarrizko zerbitzuan herrian gaiari buruzko helduen aburuak:

Kutxazaina kondizio onetan eduki behar da. Herrian denda bat jartzea ondo legoke, ostatuari loturik, bertako produktuen salmentarako eta oinarrizko lehengaiak bertan erosteko aukera izateko. Benetan herritarrak bertan erosteko konpromisoa hartu beharko lukete eta gaur egun hori ez da hain erraza.

Landa eremuko ekonomiari buruzko helduen aburuak:

Turismoari begira bizi da Alkiza eta lehen sektorea apenas dago (2 ustiategi). Hemen ere eredu aldaketa bat eskatzen da, ezin da biziraun aintzinako egiteko moduarekin, eredu berriak behar dira eta lehen sektorea dibertsifikatuz landa eremuan bizi eta lan egiteko aukera berriak aztertu beharko lirateke (herrian badaude eredu batzuk). Bertan eta inguruan (eskualdean) ekoiztako produktuei bultzada eman beharko litzazieke.

Partaidetzari buruzko helduen aburuak:

Partaidetza eredu berritzaileak jorratu behar dira. Gazteak auzolanerako eskaini badira ere, ez dute benetako konpromisorik ikusi izan orain arte. Beraingandik atera beharko litzateke auzolanaren antolaketa Udalarari erantzunkizun hori eman gabe. Auzolanak gaur egun ekar ditzakeen arazoez kezkarik agertu dira (istripuen arriskuen aurrean segurtasun neurriak, seguruen kontratazioa, etab.)

Erretore etxeari buruzko helduen aburuak:

Hausnartu behar da. Liburutegia eta haurren txokoa mantentzea garrantzitsua litzateke.

Aisia eta gazteak gaiari buruzko helduen aburuak:

Loatzo musika eskolan sartzeko aukerarik ez dute Alkizarrak (Alkizak ez zuen bere sorreran parte hartu). Aukera hori egon daitekeen aztertu beharko litzateke.

#### 4.2.3.3. ELKARRIZKETAK ERAGILE SOZIOEKONOMIKOekin

Alkizako 5 eragile sozioekonomikoekin egin ziren elkarrizketak:

Ur Mara	Koldobika Jauregi	609465942	Asteartea 7, 16:00
Ekotalo	Julen	685752987	Asteartea 7, 16:45
Herri-ostatua	Marcos	656962339	Ostirala 10, 17:00
Lete landetxea	Asun	671071514	Ostirala 10, 16:00
Ganaduzaleen elkarte	Xabier Mujika	635704795	Ostirala 17, 15:00etan

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Elkarrizketa saioen hasieran saioaren helburua eta Alkizako herri proiektua berrikusteko prozesuaren berri eman zitzaizen elkarrizketatuei. Udalean herritar gazteenekin izandako saioan jasotako ekarpenen berri ere eman zitzaizen.

Gai hauen inguruan galdetu zaie elkarrizketatuei:

Herri erronka nagusien gainean: Etxebizitza, Mugikortasuna (garraio publikoa eta aparkalekua), Herrian denda, Ostatua, Auzolana, Baserritarrei laguntza, Erretore-etxe, etab.

Beraien jardueraren gainean: Zuen ekimena martxan jartzeko ze zailtasun izan zenituzten? Laguntzarik jaso zenuten? Zuen esperientzia baikorra izan da? Zertan eskertuko zenukete laguntza? Zuen esperientzia eredugarria izan daitekeela uste duzue? Ze ekarpen egin ahal diozue Alkizari? Ze eskatuko zenioke Alkizari? Herri bizia eta herrian lana egitea: Lan aukerarik bada? Ekintzailtza bultzatzerik egongo litzateke?

Landa eremuen garapen ekonomiko-soziala- etorkizuneko ekonomia: arlo ezberdinen baitan ze iritzi duten:

- Tokiko produktuen ekoizpena eta kontsumoa – km 0 – nekazaritza - denda
- Lurraldearen kudeaketa - basogintza - abeltzantza
- Ingurumenaren zaintza
- Energia trantsizioan – Klima aldaketa
- Adinekoen zaintzaren baitan – zilar ekonomia

Hauek izan dira jaso diren ekarpenak eragile bakoitzerako:

UR MARA:

Turismoari begirako eskualdeko proiektuak itxiz joan dira eta gaur egun museo jarduera bakarrak TOPIC eta UR MARA izango dira. Ez da behar hainbat bultzatzen. Proiektu hauek ez dira herritar gehiengoarena iristen, eskolako haurrei zuzenduriko proiektuak izaten dira eta ez da nahikoa. Museoak batez ere atzerritarren bisitekin bizirautean dira eta esparru ezberdinetako jende interesgarria etorri ohi da. Bertako herritarren gehiengoan proiektua ez duela ezagutzen esan daiteke. Herrian neska-mutilen hezkuntza profila anitza da eta artista batzuk ere badaude. Ur Maran tailerrak antolatzen dira eta parte hartu izan dute.

EKOTALO:

Ekintzailtzean Udalak laguntzen du hastapenetan bete beharreko protokoloan eta ondo etorri izan zaio. Bestalde herriak Ekotalorekin kontaktatzen du herriko festetan, kultura jardueretan,...eta bestelakoetan erreferentzia egiten diete. Etxe ondoan duten argi-postetik txakolindegia eta Ekotalok jasotzen duten argindarrak 220 V-tako potentzia ematen diete. Ekotalok erabiltzen dituen makinek 380 V eskatzen dute eta ez daude 220 V-etara egokituta. Hori egokituta erabiltzen dituen makinak errendimendua hobetuko luke.

LETE:

Nekazalturismotik ez dago gaur egun bizitzerik, gehigarri bat da etxeko ekonomiarentzat. Gazteak ez lituzkete lan horretarako bideratuko.

OSTATUA:

Egoera zaila izan da 4 urte hauetan. Herriak eta Udalak oso harrera ona egin badio ere bizirautea zaila izaten ari zaio. Eguneko zerbitzuan eguerdiko ordutegitik (12:00-16:00) kanporako orduak berak ordaintzen ditu eta horrek ordutegi hauetan ixtera eraman dio.

GANADUZALEEN ELKARTEA:

Baserritik ez dago bizirautek, kanpoan ere lana egitea beharrezkoa da.

Hauek izan dira jaso diren ekarpen bateratuak:

Etxebizitza:

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

- Etxebizitzen beharra izan zen eskola berria egin zenean (orain 4 urte), aspaldirik dago beharra eta gazte batzuk herritik kanpora joan behar izan dira etxebizitza bila. Lehen 3 taberna zeuden martxan herrian eta gaur ezin bakarria mantendu. Herriak bizia behar du eta horretarako beharrezko da etxebizitza aukera herrian izatea.

- Haurren zaintza dela eta beharrezkoa da haur-eskolan bi irakasle bi haur zaintzeko jartzea? Eskolan ere gainbehera datorrela atzematen da, hemendik aurrera ez da hainbeste haur izango.

Auzolana- partaidetza:

- Herritarrek urrun daude Udaletxeko jardueratik eta ez dute bertako lana behar beste baloratzen.

- Auzolana baserriarren kontua izan da betidanik, gaur baserriarrik ez dagoela galdu da. Kanpotik etorritako herritarrek ez dute ohitura horrekin jarraitu. Bizimodua asko aldatu da.

- Mendiko bideak ixten (sasitzen) ari dira eta hauek auzolanean garbitzeko premia badago, bertako zein kanpotik datozenentzako (Turismoa) beharrezkoa da hauek irekita egotea.

Aisia-gazteak:

- Gaztetxea itxi zenetik gazteek kuadrilak kanpoan egiten dituzte, ez herrian. Gazteentzako prestatu nahi izan diren proiektuak- guneak ez dira ondo atera izan eta garrantzitsua litzateke Erretore-etxean beraien kudeatutako gune bat prestatzea (lokal huts bat) alokairu sinboliko batekin.

Oinarrizko zerbitzuak – denda:

- Herrian denda eskatzea erraza da, zaila mantentzea. Alkiza ez dago ondoko herrietako dendetatik hain urrun eta dendak jarri dituzten herri txikiak behar handiago izan dutelako jarri dute denda.

- Denda bat jartzea ez litzateke bideragarri izango, ez bait luke behar den pertsonala ordaintzeko nahikoa jasoko. Ez da errealista denda bat eskatzea, ez eta taberna ordutegi zabalago batean irekita edukitzea.

Landa eremuko ekonomia - natur eremuaren kudeaketa:

- Lan handia ematen du landa eremua kudeatzeak eta ez zaio baliorik ematen. Norbaitek egin behar du ordea. Baserria uzten ari da, ez baita hau mantentzeko erraztasunik ematen ez eta proiektu berritzaile bultzatzen (makinak elkar uztea, lan amankomunak,...) Arazoa baserriarrek berak sortu du, norbere buruari eta bere lurrei begira bizi izan baita, elkarlanerako bidea egin gabe. Baserrian beti egon izan da familia laguntzen (baserriatik kanpo bizi zena), orain ordea bakarrik daude. Faktore ugari ekarri dute baserriaren gainbehera. Dirulaguntzak ez dira irtenbide bat, beste ikuspegi bat eta beste eredu batzuk behar dira. Potentziala badago eta lur eremu oso on eta emankorrek dira Alkizan. Atzerrira joan besterik ez dago (Suiza, etab.) posible dela ikusi eta egon daitezkeen aukeraz jabetzeko.

- Ahalegin bat egin da Udaletik, lurjabe batzuekin hitz egin eta 3-4 ganaduzaleentzako lur amankomunak lortu dira. Elkarlanerako inertzia bat sortu da eta horri jarraipena eman behar zaio.

- Baserri hutsek potentziak handia dute ez soilik etxebizitza moduan, baita etekin ekonomiko baterako ere. Horretarako ez du garai bateko ereduak balio, eredu berriak behar dira.

- Herritarrek ez dute behar beste baloratzen herrian duten ondare ekonomikoa. Proiektu oso bezeriak eta anitzak daude Alkizan eta herritarrek ez dituzte ezagutzen.

- Turismoa ere neurrian bultzatu beharko litzateke, herri txikia da eta. Fagus Alkiza lana ondo egiten ari da zentzu horretan.

- Landa-paisaia aldatzen ari da eta herritik ikusten diren bistak ez dira orain urte batzuetan zeudenak. Basoak larrea hartu du.

Energia -klima aldaketa:

- Klima aldaketa ez da oraindik intereseko gaia herritarren artean, ez da zuzeneko eragina ikusten. Gakoak izango dira bertako produktuen kontsumoa areagotzea eta mendien kudeaketa eta bertako bioaniztasunaren babesa.

- Energia trantsiziorako bidea hasia da. Kontzientzia aldaketa bat eskatzen du, momentuz etekin ekonomikoak ez baitira ikusgarriak izango.

- Energia berriztagarriekin pausuak ematen ari badira ere, inbertsioa oso handia da oraindik jasotzen den etekinerako eta lortzen den aurrezpenerako.

Erretore-etxea:

- Erretore-etxeko proiektuan herritarren inplikazioa beharko da. Herria asko piztuko luke barnetegiak eta euskarari loturiko proiektuak.

#### **4.2.4. PROZESU PARTEHARTZAILEAREN EMAITZAK**

##### **4.2.4.1. ETXEBIZITZA**

Erronka nagusia eta premiazkoa etxebizitza eskaintza areagotzea litzateke, herrikogazteen beharrei egokitzen dena. Urte asko pasa dira azken etxebizitzak egin zirenetik eta gazte asko daude herrian arriskua bada bertako gazteak etxebizitza kanpoan bilatu beharrean izatea. Lehen bait lehen gaiari heldu behar zaio.

- Hutsik geratzen diren baserriek duten potentziala probestu beharko litzateke, baserri batean etxebizitza bat baino gehiago egiteko aukerak erraztuz.

- Etxebizitza eredu ezberdinak planteatu daitezke, badaude ereduak: etxebizitza partekatuak (zerbitzu partekatuak), etab. Ondo legoke eredu hauek herritarrei ezagutaraztea, oraindik ere herritarren gehiengoaren mentalitatea eredu berri hauei nahiko itxita egon badaiteke ere.

- Zerbitzu partekatuak eta estudio txikiak dituzten eraikinen ereduak bakardadean bizi diren pertsona helduenentzako irtenbide on bat izan daiteke.

- Baserriak hutsik geratzen ari diren honetan, hauek etxebizitza txikiagoetan banatzeko potentzial handia izan dezakete, hauek kanpo egitura mantenduz.

##### **4.2.4.2. MUGIKORTASUNA-IRISGARRITASUNA**

- Foru Aldundiarekin borrokatu beharko litzateke garraio publikoaren zerbitzu maiztasuna areagotzea eta herritarren beharretara egokitzea, aurretik herritarren beharrak zeintzuk diren jasoaz.

- Kotxea elkar-banatzeko saiaketak egin daitezke aplikazio baten bitartez.

- Udaletxe – eskola – plaza aurreko eremu horretan konflikto puntu bat dago. Arrisku egoerak sortzen dira ibilgailuen plazako sarrera irteeretan. Irtenbideetako bat plazako parkinaren sarrera mugatzea izan badaiteke ere, guztiak ez daude ados mugatze horrekin. Herritar batzuk ados egongo lirarteke kanpotarrak hilerrira bideratzearekin, plaza herritarrentzako soilik utziz, beste herritar batzuk aldiz ez lukete bereizketarik egin nahiko eta ez dute horrenbesteko arazorik ikusten. Hilerriko parkina txiki geratu dela ere aipatu da (Turismoari begira bertan jarri diren elementuek toki guzti utzi dute) eta zabaldu beharko litzatekeela kanpotik datozenek tokia izan dezaten.

- Oinez ibiltzea bultzatzeko oreka bat bilatu beharko litzateke.

##### **4.2.4.3. PARTAIDETZA**

- Herriko hainbat lan auzolanean egitea bultzatu beharko litzateke, batez ere natur eremuari dagokion kudeaketan, herri-bideak garbitzen eta konpontzen (Urkizun,..), etab.

- Herritarrentzako ez ezik kanpotik datozenentzako (Turismoa) beharrezkoa da mendi bide hauek irekita egotea.

- Lan hauek udaran gazteek egin ditzaten ordainsariak jartzea ere aukera bat da.

- Partaidetza eredu berritzaileak jorratu behar dira.

- Gazteak auzolanerako eskaini badira ere, ez dute benetako konpromisorik ikusi izan orain arte.
- Beraiengandik atera beharko litzateke auzolanaren antolaketa Udalari erantzukizun hori eman gabe.
- Auzolanak gaur egun ekar ditzakeen arazoez kezkarri agertu dira (istripuen arriskuen aurrean segurtasun neurriak, seguruaren kontratazioa, etab.)
- Herritarrak urrun daude Udaletxeko jardueratik eta ez dute bertako lana behar beste baloratzen.

#### 4.2.4.4. LANDA EREMUKO EKONOMIA- NATUR EREMUAREN KUDEAKETA

- Turismoari begira bizi da Alkiza eta lehen sektorea apenas dago (2 ustiategi), baserriaren gainbehera nabarmena da.
- Lan handia ematen du landa eremua kudeatzeak eta ez zaio baliorik ematen. Norbaitek egin behar du ordea. Baserria uzten ari da, ez baita hau mantentzeko erraztasunik ematen ez eta proiektu berritailerik bultzatzen (makinak elkar uztea, lan amankomunak,...). Faktore ugari ekarri dute baserriaren gainbehera, baina egoera hau baserritarrak berak sortu du, norbere buruari eta bere lurrei begira bizi izan baita, elkarlanerako bidea egin gabe. Baserrian beti egon izan da familia laguntzen (baserritik kanpo bizi zena), orain ordea bakarrik daude.
- Dirulaguntzak ez dira irtenbide bat. Baserri hutsek potentzial handia dute ez soilik etxebizitza moduan, baita etekin ekonomiko baterako ere. Alkizan gainera lur eremu oso on eta emankorrak dira daude. Baserriari laguntza eskaini behar zaio, landa eremuaren kudeatzaile izanik eta mendiaren iraunkortasunerako duen garrantzia ikusita, landa-jarduera bultzatzea beharrezkoa da. Eredu aldaketa bat eskatzen da, ezin da biziraun aintzinako egiteko moduarekin, eredu berriak behar dira eta lehen sektorea dibertsifikatuz landa eremuan bizi eta lan egiteko aukera berriak aztertu beharko lirateke (herrian badaude eredu batzuk).
- Bertan eta inguruan (eskualdean) ekoizitako produktuei bultzada eman beharko litzaike.
- Ahalegin bat egin da Udaletik, lurjabe batzuekin hitz egin eta 3-4 ganaduzaleentzako lur amankomunak lortu dira. Elkarlanerako inertzia bat sortu da eta horri jarraipena eman behar zaio.
- Herritarrek ez dute behar beste baloratzen herrian duten ondare ekonomikoa. Proiektu oso bezeriak eta anitzak daude Alkizan eta herritarrek ez dituzte ezagutzen. Fagus Alkizan egiten diren lanak herritarren artean gehiago zabaltzea beharrezkoa da, askok ez dute ezagutzen.
- Turismoa ere neurrian bultzatu beharko litzateke, herri txikia da eta. Fagus Alkiza lana ondo egiten ari da zentzu horretan.
- Landa-paisaia aldatzen ari da eta herritik ikusten diren bistak ez dira orain urte batzuetan zeudenak. Basoak larrea hartu du.

#### 4.2.4.5. ERRETORE ETXEA

- Erretore-etxeko proiektuan herritarren inplikazioa beharko da. Erretore-etxearen gainean oraindik hausnarketa eta eztabaida prozesu bat irekitzea eskatzen da.
- Eskatzen diren zerbitzuen artean, hauek: Ostatua, kafetegia eta honi loturik dendatxo bat (lehengai eta bertako eta inguruko produktuekin), Barnetegi-aterpetxea berriro ere martxan jartzea, zerbitzu handia emango bait luke (AEK-UEMA, udalekuak, erakunde ezberdinek erabiltzeko, erromesentzako aterpetxe bezala, etab.), Tailer eta ikastaroentzako gunea (eskulanak, antzerkia,...)

#### 4.2.4.6. AISIA

- Orohar ikastaro-tailer eskaintza zabaltzea beharko litzateke herriari bizia emateko: eskulanak, jostintza, baratzagintza, dantza,... Nerabe eta gazteen nahiak entzun beharko lirateke aurrez.

- Gazteen dinamizazioa eskualde mailan egin izan da (Aiztondo) eta berriro ere horrelako zerbait bultzatu beharko litzateke, jarduera interesgarriak eskaini bait dira modu horretan: eskalatzeko, puenting egiteko irteerak, etab.
- Gazteentzako prestatu nahi izan diren proiektuak- guneak ez dira ondo atera izan eta garrantzitsua litzateke Erretore-etxean beraien kudeatutako gune bat prestatzea (lokal huts bat) alokairu sinboliko batekin.
- Billabonako kiroldegiarekin hitzarmen bat bideratzea sarrera merkatzeko.
- Loatzo musika eskolan sartzeko aukerarik ez dute Alkizarrak (Alkizak ez zuen bere sorreran parte hartu). Aukera hori egon daitekeen aztertu beharko litzateke.

#### 4.2.4.7. OINARRIZKO ZERBITZUAK HERRIAN

- Lokal edo dendatxo bat lehen mailako gaiak erosi ahal izateko beharrezkoa ikusten da. Nola egin ordea bideragarri denda bat? Ostatuko zerbitzuari loturik joan behar da? edo herritarrek kudeatzea beharrezkoa litzateke?. Eredu ezberdinak daude (Orexa, Baliarrain). Benetan herritarrak bertan erosteko konpromisoa hartu beharko lukete eta gaur egun hori ez da hain erraza. Herrian denda eskatzea erraza da, zaila mantentzea. Alkiza ez dago ondoko herrietako dendetatik hain urrun eta dendak jarri dituzten herri txikiak behar handiago izan dutelako jarri dute denda. Ostatura daraman pertsonaren ustetan denda bat jartzea ez litzateke bideragarri izango, ez bait luke behar den pertsona ordaintzeko nahikoa jasoko. Ez da errealista denda bat eskatzea, ez eta taberna ordutegi zabalago batean irekita edukitzea.
- Herrian dagoen kutxazaina mantendu ezezik berriro behar da, orain gutxi arte txartelak tragatu izan bait ditu eta horrek erabilera baldintzatu du.
- Ikasgela bat formalizatzea eta ondo egokitzea "Juanenan" - Etxeko konposta bultzatzeko saiakerak kale egin dute eta 5. Edukiontzia jartzea izan da irtenbide bakarra. Hau ondo erabiltzea norberaren ardura da. Hala ere, birziklatzea bultzatu behar da, kontzientziatzeko datuak emanez, birziklatzeak izango lituzkeen onurak partekatuz, etab.

#### 4.2.4.8. ZAINZA

- Bakardadea pairatzen duten herritar helduenei begira zerbait egin beharra dago: jubilatuen txokoa beste era batera dinamizatu, sasoiaren dauden jubilatutako gazteagoek bakarrik dauden horiei konpainia egiteko programa bat bideratu (bolondresak).
- Gizarte zerbitzuen prozedurak zailak izaten jarraitzen dute eta eskaintzen den zerbitzua ez da nahikoa izaten, prozedurak erraztu beharko lirateke.

#### 4.2.4.9. INGURUMENAREN BABESA ETA KLIMA ALDAKETA

- Klima aldaketa ez da oraindik intereseko gaia herritarren artean, ez da zuzeneko eragina ikusten. Gakoak izango dira bertako produktuen kontsumoa areagotzea eta mendien kudeaketa eta bertako bioaniztasunaren babesa.
- Energia trantsiziorako bidea hasia da. Kontzientzia aldaketa bat eskatzen du, momentuz etekin ekonomikoak ez baitira ikusgarriak izango. Energia trantsiziorako (energia berriztagarri bidezko auto-hornikuntza, energia kontsumoaren aurrezpena,..) herritarra inplikatzeko eta laguntza eskaintzea beharrezkoa izango da.

## INFORMAZIO MEMORIA

### 5. H.A.P.O.-REN HASIERAKO ONESPENA

#### 5.1. ONARPENA

Udalak, 2024ko irailaren 3an egindako osoko bilkuran, legezko gehiengo osoaren quorumarekin, erabaki hau hartu zuen:

*“Lehenengoa: Alkizako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onespena ematea eta jendaurrean jartzea, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, gutxienez berrogeita bost (45) egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera, eta udal-mugartean zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratzea. Informazioa emate aldera, bere egoitza elektronikoan eta egokitzen dituen gainerako komunikabideetan ere argitaratuko du.*

*Bigarrena: Eskumen sektorialak dituzten administrazio publiko hauei jakinaraztea hasierako onespena, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten:*

- 1. Ur Agentziari, 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.*
- 2. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen laugarren xedapen iragankorra).*
- 3. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza (martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26.5 artikulua).*
- 4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateginaren 94.2 artikuluan xedatutakoa betez (1/2006 Foru Dekretu Arauemailea, ekainaren 6koa).*
- 5. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari, Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta Trenbide Azpiegituren Administrazioari.*
- 6. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorraren 50.2 artikuluan xedatutakoa betez.*
- 7. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren 25.4 artikuluan xedatutakoa betez.*

*Hirugarrena. – Hasierako onespeneraren dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa aldeztu aurretik kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei bidaltzea, aurreko apartatuan ezarritako epe berean egokitzen dituzten txostenak eta alegazioak egin ditzaten.*

*Laugarrena: Hirigintzako onarpenak, baimenak eta lizentziak bertan behera uztea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan.*

*Lizentzien etetea lurrak zatitzeko eta eraikitzeko edo eraisteko jarduerak xede dituzten lizentziei buruzkoa izango da, baina ez eraberritze-obrei buruzkoa, salbu eta eraberritzearen garrantziagatik eraikina berreraikitzearekin pareka badaiteke, urgentziazko arrazoiengatik justifikatu gabe, edo eraikitako bolumena handitzea badakar.*

*Etenduraren iraupena gehienez ere bi urtekoa izango da, erabaki hau hartzen denetik aurrera.”*

Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024-09-12an argitaratu zen, 176. buletin-zenbakian.

#### 5.2. JENDEAURREKO ERAKUSTALDIAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

### **5.2.1. ALEGAZIOAK ETA ERANTZUNAK**

Jendaurrean egon zen bitartean, alegazio hauek aurkeztu ziren:

1. José Ignacio Gorostidi
2. Ainoha Jauregi Otaño
3. Digitalizaziorako Espainiako Elkarte
4. Edurne Bengoa Ansa
5. Iñaki Altuna Barandiaran
6. Javier Gorostidi Usabiaga
7. Juan Ignacio Umerez Urrezola
8. Juan Martín Gorostidi Ugartemendia 1
9. Juan Martín Gorostidi Ugartemendia 2
10. Juan Martín Gorostidi Ugartemendia 3
11. Miguel José Saizar Ayerbe
12. Vodafone
13. Xabier Gabirondo Elorza
14. Alkizako Abertzale Ezkertiarrak 1
15. Alkizako Abertzale Ezkertiarrak 2
16. Alkizako Abertzale Ezkertiarrak 3

Alegazio horien azterketa HAPO egiten ari den lan taldearen esku geratu eta honek 2025-eko irailaren 10ean sinatutako txostenean egindako proposamenak kontutan edukiz, Udalak hartu zuen erabakia honako ondorioak ekarri zituen:

Onartu ziren alegazioak 8 izan ziren. Hauek: José Ignacio Gorostidi, Juan Ignacio Umerez Urrezola, Juan Martín Gorostidi Ugartemendia 2, Miguel José Saizar Ayerbe, Xabier Gabirondo Elorza, Alkizako Abertzale Ezkertiarrak 1, Alkizako Abertzale Ezkertiarrak 2, Alkizako Abertzale Ezkertiarrak 3.

Ukatu ziren alegazioak 6 izan zire. Hauek: Ainoha Jauregi Otaño, Edurne Bengoa Ansa, Iñaki Altuna Barandiaran, Javier Gorostidi Usabiaga, Juan Martín Gorostidi Ugartemendia 1, Juan Martín Gorostidi Ugartemendia 3.

Partzialki onartu ziren alegazioak 2 izan ziren. Hauek: Digitalizaziorako Espainiako Elkarte, Vodafone.

### **5.2.2. ONDORIOAK**

Erabaki horretatik Alkizako HAPO-an egin beharreko aldaketa hauek eratorri ziren:

- 1. Eremuko b2.1.1. lursaileko, eraikinaren profilean estalkipeko solairua dagoela aitortzea. Lurzatiaren kalifikazio xehatua aldatu beharko da, eta bizitegi-kalifikazioa jarri: a2 eraikin irekia. Zenbatetsitako etxebizitza kopurua 2 izango litzateke, HAPOren irizpide orokorren arabera zatigarriak.
- F Dokumentuan, Arau Orokorrak, eta H Dokumentuan, Eraukuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak, beharrezko aldaketak egin telekomunikazioen araudi estatalei egokitzeko.
- 1 eremuko araudi partikularreko 3.C.2 puntuan a2.1.1 lursaileko erabilera-ehunekoak aldatzea, etxebizitza-erabilera goiko solairuetara mugatzeko.
- Herriko plazaren inguruan behe solairuetan etxebizitza erabilera jartzea eragotziko duen eremua definitzea, HAPOren araudiarekin bat etor behar duena.
- HAPO-ko 1. Eremuko a1.1.2 lursailean dagoen etxe nagusiaren ondoko eraikinean etxebizitza berri 1 ahalbideratzea eta eraikinaren altuera 1m altxatzea ahalbideratzea.
- 1. Eremuko a1.1.11 lursaileko eraikinean etxebizitza berri 1 ahalbideratzea.
- Katalandegi Txiki antolamenduz kanpo jartzea eta eraikin berri bat eraiki ahal izateko zuzkidura-jarduketa berri bat planteatzea 1. Eremuan. Horretan 5. eremuaren espaloia elizaraino luzatu behar da.

- 6 sektorea faseka egin ahal izateko ejekuzio-unitateak definitu behar dira urbanizatzeko jarduketa-programan.
- 6. sektorearen urbanizazio-karga gisa, Eltzaurpe etxerako oinezkoentzako sarbidearen eta Santiagoko Ermita kalearen beste aldean dagoen espaloia artean zebra-bide goratu bat gehitzea.
- 6 sektorean Miguel José Saizar Ayerbe jaunaren lursail osoa sartu eta ondoko beste lursailen sarrerak bermatzea.
- Etxebizitzen zatiketetan edo berrantolatzeetan, etxebizitzak eduki dezakeen gutxieneko azalera definitu behar da, Arau Orokorrak izena duen F dokumentuan.

Aldaketa guzti hauek behin-behineko dokumentua egin dira.

### **5.3. INSTITUZIOEN SEKTOREKO TXOSTENAK**

#### **5.3.1. TXOSTENAK ETA ERANTZUNAK**

HAPO-ri Udalak hasierako onespena eman ondoren, eskumen sektorialak dituzten administrazio publiko hauei helarazi zitzaizen dokumentua, dagokien txostena egin zezaten:

1. Ur Agentziari, 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.
2. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen laugarren xedapen iragankorra).
3. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza (martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26.5 artikulua).
4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateginaren 94.2 artikuluan xedatutakoa betez (1/2006 Foru Dekretu Arauemailea, ekainaren 6koa).
5. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari, Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta Trenbide Azpiegituren Administrazioarekiko. Abiazio zibilar dagokionez, 2591/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria eta 369/2023 Errege Dekretuaren 227. artikulua betez.
6. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorraren 50.2 artikuluan xedatutakoa betez.
7. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren 25.4 artikuluan xedatutakoa betez.
8. Emakunderi, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikulua xedatutakoa betez.

Instituzio guztiek bidali dituzte erantzunak denbora epe ezberdinetan, horien irakurketaz hurrengo atalean azaltzen diren ondorioak atera ditugu.

#### **5.3.2. ONDORIOAK**

1. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostenak oniritzia ematen dio HAPO-ri, baina kontutan eduki beharreko puntu hauek aipatzen ditu:

Herriari ura hornitzen dion entitateak ziurtagiria egin behar du hornitzea egiteko ur nahikoa dagoela adierazten.

HAPO-ren ordenazio berrien saneamendu sarea, udaleko hondakin-uren araztegian amaitzen den saneamendu-sistema publikora bideratu behar da. Barrutien fitxetan adierazi behar da.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**A DOKUMENTUA. INFORMAZIO MEMORIA**

---

Akuiferoak kutxa ditzaketen euri urak, hondakin urak bezala hartuko dira eta horien isuriak administrazio hidraulikoak baimendu beharko ditu.

Urbanizazio berrietan drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dira. Zoladura iragazgaitzak ekidingo dira.

Azaleko uren zortasun zerrenda garbi eta oztoporik gabe mantendu behar da.

Ibilguak zaintzeko eremuan eta jabari publiko hidraulikoan edozein obra egiteko, arroko erakundearen baimena beharko da.

2. URA-k egindako txostenetik atera dugun baldintza Hau da: 6 sektoreko hirigintzako fitxan, urbanizazio proiektuak drainaje jasangarriko sistemak eta zoladura iragazkorrak erabili behar dituela adierazi behar da.

3. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak adierazten duenez, Aurkeztu behar den HAPO-ren behin-behineko dokumentuarekin batera Ingurumen-Azterketa Estrategiko egokitua aurkeztu behar da ere, ingurumen organoak Ingurumen-Adierazpen Estrategikoa egin dezan.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak ez dio eragozpenik jartzen HAPO-ri.

5. Lurralde Oreka Berdeko Departamenduak honako baldintza hauek jarri ditu:

HAPO-n definitu den 6 sektoreak eragin negatiboa dauka nekazaritza ustialekuen gain, baina Ingurumen-Azterketa Estrategikoko Nekazaritza Sektorearen Gaineko Eragina eranskinak jartzen dituen neurri zuzentzaileak egokiak direla dio.

Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak, H Dokumentuan, aldaketa batzuk sartzea eskatzen du. 36, 39, 40, 42, eta 49 artikuluetan.

6. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak, trenbidearen gain ordenazioak eraginik ez duenez, ez du txostenik egiten. Abiazio zibilari dagokionez ere ez da txostenik egiten.

7. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari, Telekomunikazioei buruzko hainbat aldaketa proposatzen ditu telekomunikazioen azpiegiturak jartzea eragotzi edo oztopa dezakeen HAPO-ko artikulua eta xedapen oro ezabatzeke.

8. Emakunde bere txostenean 1/2023 legeak udalei ez diela eragiten dio, eta beraz ez dagokio txostenik egitea.

Txoten guzti hauetan adierazitakoa kontutan eduki da eta HAPO-ren dokumentuetan txertatzeko beharrezko aldaketak egin dira.

Ohar egin behar da Lurralde Oreka Berdeko Departamenduak egindako txoteneko puntu bati buruz, H Dokumentuko 49 artikuluari buruz ari dela, nekazalturismoak, landetxeak eta hotelak arautzen ez direla esaten baitu. Ez da horrela. Establezimendu mota horiek Ostatu Zerbitzuak erabileraren baitan hartzen dira F dokumentuko 8. Artikuluan. Ostatu zerbitzuak landa lurrean kokatzea arautzen duen artikulua H Dokumentuko 46 artikulua da. Horren 1 puntuan erabilera aipatzen da, beste erabilera batzuekin batera, eta gainontzeko puntutan horien kokatzea arautzen da.

Alkizan 2025eko irailean

Talde Egilea

Migel Anjel Irazabalbeitia, Pedro Izaskun, Amagoia Azurmendi, Cristina Burgos, Borja Izaskun, arkitektoak

Teodoro Cacho, abokatua



**ALKIZAKO UDALA**

**DILIGENTZIA:** Egiaztatzeko, Alkizako hiri antolamenduko Plan orokorrari, 2024ko irailaren 3an egindako udalbatzarrak hasierako onespena eman ziola eta 2025eko azaroaren 25ean eginiko udalbatzarrak behin behineko onspena eman ziola.

Alkizan 2026 ko urtarrilaren 20an.

**IDAZKARI KONTUHARTZAILE AKZIDENTALA**

Sin. Maite Iraola Agirresarobe